

•eus
Jakin 254

herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2023

Xipri Arbelbide elkarrizketa

JOSE LUIS AIZPURU OSTOLAZA

GAIAK

Euskal hezkuntzan ahaztutako
auzo-ikastoletako maistrak
KARMELE ARTETXE SANCHEZ

EGUNEN GURPILEAN

MAIALEN AKIZU BIDEGAIN
JOANES IGEREGI SANTAMARIA

Jakin^{•eus}254

herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2023



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

ERREDAKZIOA

Haritz Azurmendi • Oihana Iguaran

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Andoain. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

HISTORIA BIZIA

11 Xipri Arbelbideri elkarrizketa Jose Luis Aizpuru Ostolaza

Xipri Arbelbide idazle eta kazetariaren bizitzan eta jardunean sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: haurtzaroa Heletan; gerra garaia eta alemanak Heletan; ikasketak misionistekin; Aljeriako gerlako esperientzia; apez eta misionista bizitza Boli Kostan; Euskal Herrira itzulera: aldaketa garaia kultur eta politika giroan; lehen liburuak 80ko hamarkadan; Gure Irratiaren sorrera eta garapena; gizartearen bilakaera Ipar Euskal Herrian: euskara, kultura, ekonomia, politika; Elizaren krisia; kultur alorreko hainbat laguni buruz idatzitako biografiak...

GAIAK

69 Euskal hezkuntzan ahaztutako
auzo-ikastoletako maistrak
Karmele Artetxe Sanchez

Bizkaiko auzo-ikastoletan aritutako maistra ikasi, euskaraz alfabetatu eta profesional ezezagunenganako lehen hurbiltzea egi-
ten da, arreta berezia jarritz 36ko gerran jasan zuten errepresio
politiko-militarrean.

EGUNEN GURPILEAN

93 Kultura
Maialen Akizu Bidegain

99 Glokalia
Joanes Igeregi Santamaria

KONTRAZALA Dom Campistron

Interview with Xipri Arbelbide

The journalist Jose Luis Aizpuru Ostolaza conducts a wide-ranging interview with the writer and journalist Xipri Arbelbide, in a new issue of the Living History series. The interview takes an extensive look back over Arbelbide's life and career: his childhood in Heleta; World War II and the German presence in Heleta; his studies with missionaries; his experience in the Algerian War; his ordination as a priest and missionary in the Ivory Coast; his return to the Basque Country: time of changes within the cultural and political milieu; his first books in the 80s; his role in setting up and developing the radio Gure Irratia; social evolution in the North Basque Country: Basque language, culture, economy, politics; the Church crisis; the biographies written about a range of personages from Basque culture... **Jose Luis Aizpuru Ostolaza**

Overlooked neighbourhood *ikastola* teachers in Basque Education

The historian Karmele Artetxe Sanchez takes an initial approach to the unsung neighbourhood *ikastola* (Basque language school) teachers from Biscay –professional women in education who were well-trained and schooled in the Basque language–, especially highlighting the political/military repression they endured in the Spanish Civil War. **Karmele Artetxe Sanchez**

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture and globalization matters. This section draws on various specialists: Maialen Akizu Bidegain and Joanes Igeregi Santamaria. **Various authors**

Xipri Arbelbidek aurten 89 urte beteko ditu. Heletan jaioa, apeza eta euskaltzalea. Iparraldean aski ezaguna, eta baita Hegoaldean ere, euskalgintzaren munduan begi bat mugaz bestalde bota dutenen artean, Arbelbidek euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna modu 'nazionallean' garatu nahi izan baitu. Haurra zela, naziak ikusi zituen jaioterrian, Miarritze bondardatua ezagutu zuen, Aljeriako gerlan aritu zen bortxaz bi urtez eta han berak aljeriarrekin bat egin. Aljeriako gerlan beste gerla bat ere jokatu zen, eta han hainbat euskaldunen artean «sortu eta harrotu zen» frantses nazionalismoaren lekuko izan da. Euskal Herrira bueltan, eliza eta euskara eta euskalduntasuna izan ditu bere bizitzako ardatz nagusiak gaur arte. Lehenari, azken hamarkadetan, gainbehera ezagutu dio, eta, bigarrenari, inarrotea, abertzaletasunari esker, bere hitzetan. Gure Irratiaren sortzaile da, eta hasieratik bertatik euskara hutsezko irratia defendatu izan du, baita abertzale zenbaiten aurrean ere, elebiduna egitea 'normalagoa' zenez. Euskararekin erradikala izatea defendatu eta praktikatu du beti. Badu zeresanik Ipar Euskal Herriko mugimendu kooperatiboaz, laborantzaz, ekologiaz, etxebizitzaren arazoaz, Euskal Hirigune Elkargoaz eta bestez, bizitza luze baten talaiatik Euskal Herrian gertatutako aldaketak eta berrikuntzak harilkatu ahala. Kazetari eta idazle, artikulu, biografia, irratsaio eta liburu andana jarri du plazan. Jose Luis Aizpuru Euskal Irratietako kideak jaso dio bere historia bizia Arbelbideri, eta tartean pasadizo ugari sartu, kazetariaren ñabarduraz eta bizitasunaz kontatuak. *Historia bizia* ataleko hogeita seigarren testigantza.

Bizkaiko auzo-ikastoletan xx. mendearen lehen herenean aritutako eta erabat ahaztutako maistren izatea eta horiek egindako lana dakarkigu Karmele Artetxe historialariak. 1919tik 1936ra arte jardun zuen ikasiak, euskaraz alfabetatuak eta pedagogikoki aurrerakoiak izan ziren maistra talde profesional horrek. Egin zuten ekarpena aurrendaria izan zen. Eta, horregatik ziurrenera, frankismoaren errepresioa bereziki eta berariaz sufritu zuten. Bizkaian 84 maistrek izan zuten gerra kontseilua, eta horietatik laurden bat auzo-ikastoletakoak ziren. Artetxek hipotesia botatzen du: frankismoak interes berezia izan zuela ordura arte autonomoki kudeatu-

tako eskola sare hori –halako euskaltzaletasuna zeriona eta pedagogia progresista jarraitzen zuena– eta bertan aritutako maistrak zapaltzeko. Desagerpenera kondenatuak izan ziren maistra horiek guztiak 36ko gerraren ondotik, eta, ondorioz, historiografiak, baita egungoak ere, eta euskal hezkuntzak erabat ahaztu ditu. Eta baztertu. Ezabatze bikoitza. Hori ere *historia bizia* da, argira ekarri beharrekoa, ezinbestean, postumoki bada ere.

Egunen gurpilean atalak apopilo berria hartu du: Joanes Igeregi. Auzi ekologikoa eta euskararen biziberritzea ditu, besteak beste, bere bi pentsamendu eremu, eta biak lotuta, gainera. Ikuspuntu berria bezain beharrezkoa. Aurrean dugun erronkaren handia ikusita, JAKINEN monografia bereziarekin ireki genion atea 2021ean krisi ekologikoaren gaiari, eta horregatik egin nahi diogu tartea zenbakiro. Horrela, Igeregi Maialen Akizuren etxekide da. Lehena ekologiaz eta bigarrena kulturaz ari dira, baina, oro har, bizi gaituen egungo munduaz biak, bere kontraesanez eta auziez, euskaldun izatearen betaurrekoak janztea ahaztu gabe.

HISTORIA BIZIA

11 Xipri Arbelbideri elkarrizketa
Jose Luis Aizpuru Ostolaza

Xipri Arbelbideri elkarrizketa

Jose Luis Aizpuru Ostolaza

Kazetaria

Nork ez du ezagutzen Xipri Arbelbide Ipar Euskal Herrian? Euskal komunitatearen *Top 3*-an legoke, adin batetik goragokoentzat batez ere. Naziak ikusi zituen Heletan haurra zelarik, eta Miarritze bonbardatu zutenean han izan zen eskolako lagunekin, ikusmiran. Aljeriako gerla ezagutu zuen ia bi urtez, frantziarrek bortxaz eraman zutelarik, nahiz eta aljeriarrekin bat egin berak. 68ko Maiatzaren arrastoak nabaritu zituen Parisen, eta, Euskal Herrira bueltan, elizaren gainbehera eta euskal identitatearen inarrotea bizi izan zituen.

Ahoan bilorik gabe mintzatzen da usu, temati, gartsuki, eta horrek eztabaida biperretara eramaten du askotan. Prentsa artikulugile geldiezina, historiaren maitalea –euskal pertsonaien biografia ainitz idatzi ditu *Bidegileak* bildumarako–, aktualitatearen jarraitzaile porrokatua da.

Xipri Arbelbide (Heleta, 1934) Baionako Casenave txokolategi famatuaren gibealeko etxean bizi da, bigarren estaian. Egurrezko etxeak euskal kulturaren museoa dirudi. Denetarikoko dokumentu, soinu-artxibo, liburu edo Afrikatik ekarritako tresnak atzeman daitezke, nahas-mahas, nonahi; bizitza osoan jaso eta jaso aritu den xinaurriaren gordelekua dirudi. Baina xinaurria ez da gordetzen bere zuloan. Macronen erretraren erreformaren kontrako manifestazioan parte hartu du: «Joan-jin bat eginen diat, usaian bezala». Telefonoaz ez da oraindik armiarma sarea jabetu, bizirik dago, eta lantzean behin bere abisua jotzen du, nahiz eta elkarrizketatuak ez dion kasurik egiten, edo ez duen entzuten. Azkenengo hipotesiak dirudi egiazkoena. Halere, bigarren edo hirugarren joaldian, ahots goxoz eta xuka maiz, arrapostu ematen die bere hurkoei, gehienetan emazteak, elizarekin zerikusia duten solasak medio.

Heletarrak aitortu du, laurogeita hamarreko langa igarotzeaz delarik, ez diola beldurrik heriotzari, eta alferlanetan aritu ez denaren kontzientzia garbia duela, xinaurri zintzoaren lanak egin ondoren. Hirurogei urte pasa apezte zelarik Heletan berean: «Hori biziki arraroa izan zen, apez guztiak Baionan apezten baitziren». Gaur egun, alabaina, ez da apez gehiago bazterretan... hemengo zuriak, gehitzen du zorrozki. Hazpainen, Izturitzen, Donamartirin, Donoztirin eta Aiheran jarraitzen du meza ematen aste hondarretan, eta etxean ere: «Ikusten duzun aldare honetan egunero meza ematen dut, enetzat, ez baita nehor etortzen».

Xipri Arbelbidek bere etxeko egongelako aldarearen ondoan, Afrikako leinu batek errege izendatu ondoren oparitu zioten urre koloreko bastoi-makilaren alboan jarrarazten du elkarrizketatzailea, eta bera parean, baina ez garaiera bereko aulkian. Gorago den tronuan jarria da aitortzarako prest, mingaina zorrotz, memoria argi eta damurik gabeko solasaldiari ekiteko prest.

Ez zuen Ipar Euskal Herriko apez euskaldunen ohiko bi-dea jarraitu bere apez-heziketarentzat, horregatik ez zuen

sobera ezagutu Piarres Lafitte. Misionisten ordenako fraide batzuk Heletara heldu, eta Xipri haurrari gogoa piztu zitzaion Afrikara joan behar zuela misio lanak egitera; horregatik, Uztaritzeko seminario ezaguna ez da bere formakuntzaren lekuko izan. 1960an apeztu ondoren, Baudonneko Afrikar Misioetan irakatsi zuen 1961etik 1964ra. Ondotik, Boli Kostara joan zen, eta han egon 1976 arte, lehenik Bingervilleko seminarioan eta, 1967tik goiti, Tiassaléko parrokian. Afrikako bere ibilbideaz idatziak ditu hiru liburu: *Boli Kostako baoulé herriaren atsotitzak*, frantsesez, eta ondotik *Gerlako tresna bizidunak: Algeriaz eta Afrikako 'salbaien' zuhurtzia*.

Afrikako 'bidaia' gustukoa izan bazuen, ez zen gauza bera izan Aljeriako gerlara joateko «gonbidapena» ukan zuenean armada garaian, beste hainbat euskaldunen antzera. Eskari mingotsa. Belaunaldi oso bat markatu duen gerlaz *Euskaldunak Aljerian* idatzi zuen, kronika gisara, eta irratian ere hainbat elkarrizketa eginak ditu gerlari buruzko lekukotasunak bilduz.

Arbelbidek euskara eta eliza izan ditu bi zutabeak. Lehena-ekin «erradikala» izan behar dela azpimarratzen du, fermuki (euskaltzain urgazle da 1987tik). Zirrikitu oro ez bazaizkio frantsesari hesten, ura bezala, nonahitik sartzen dela konbentzitua da. Elizaz, euskararekin lez, geroa ez du garbi ikusten. Gaur egungo gizarte kapitalista eta kontsumistak elizaren «beharrik» ez duela sentitzen du, eta horren isla da gazteak ez zaizkiola gehiago hurbiltzen elizara, «salbu ehorzketa eta ezteietara». Emazteen protagonismoa emendatuz, beharbada, elizaren *Titanic*-a ur hotzetatik salbu geratuko delakoaren esperantza du, marinela Afrika beltzetik heltzen ari baitira, europarrok beste interes batzuk ditugulakoan. Gogoeta eztabaidatsuak utzi ditu elizaz, *Oilarra kukuruka* bere azken saia-keran, edo *Euskal Elizaren historia* eta *Xuri-gorriak* liburuetan.

Gazteak ez dituela sobera ezagutzen gehitzen badu ere, bere dohainik biziena jakin-mina da. Hitzaldi, mahai-inguru, manifestazio edo mobilizazio, Xipriren begietatik iragaten dira usu, gaur egun ere, euskal mundutik jiten badira batez

ere. Jakin-mina asetzeko-edo, irrati bat sortzea otu zitzaion François Mitterrand Frantziako presidente berriak irrati-uhinen espazioa liberalizatzea erabaki zuen 1981 hartan. Eta non sortuko, eta hirian behar zela, «hirian baita bizia», nahiz eta Ipar Euskal Herriko barnealde euskalduna bere eskuko eriak baino hobeto ezagutu. Duela berrogeita bi urte Lizarran ikusi eta buruan iltzatua geratu zitzaion irratiaren ideiak gaur egun arte iraun duela ikusteak harrotasunez betetzen du, itsaskirri eta ekaitz ainitz bizi izan baititu Gure Irratiak. Baina ez da isiltzen den horietakoa, eta luma zorrozten du edo telefonoa astintzen du gustukoa ez duen zerbait entzuten duenean... eta ez da gutxitan gertatzen.

Mintzalari nekazina da. Elkarrizketatzailea lehertzeraino gai da solasean segitzeko, pausarik gabe, erranez bezala: «Segi, segi, oraindik badut eta kontatzekorik!». Umorean fin, sarritan irri artean erantzunez, tarteka *xiprikeriaren* bat edo beste, eta kukurruku egiteko prest, gandorrak atxiki arte.

Nolakoa izan zen zure haurtzaroa?

Heletan sortua naiz 1934ko abenduaren 17an, Bizkaia etxean; beraz, heldu den urtean laurogeita hamar urte beteko ditut. Amatxi ezkondu zen Bizkaia etxaldera Garratik. Han sortu zen ere ene ama. Aita, berriz, garaztarra nuen eta Heletara jin zen amarekin ezkondu zenean. Zazpi senidetatik lau bizirik: Maixan, Beñat, Martxalin eta ni neu. Denak Katixa amañoren eskuetan sortu ginen Bizkaian.

Zure ama andre berezia zela irakurri dut, eta garairako emazte aitzinatua.

Bizkaia etxaldeko senide zaharrena zenez, etxearen segida hartu zuen aitarekin ezkondu ondoren, Nafarroako lege zaharrek hori baimentzen baitzioten. Garairako emazte irekia zen. Zutik jarri orduko eskolara hasi ginen joaten, etxetik

hurbil zen serorenera. Sei urtera arte egon nintzen han, eta gero eskola publikora eraman ninduten. Ama gaztetxotan Hondarribian eta Pauen egona zen, ttantta *karmelita* izanik; mundua ezagut zezan nahi zuen eta bere irekitasuna hortik zetorkiola erranen nuke. Aita, berriz, laboraria. Ameriketara egona gaztetan, baina ez zen zozoa. XIX. mende hondarrean jaio bazen ere, bazuen eskola-agiria. Hemen inguruan lehenetarikoa zen *zertifikata* eskuratzen, hots, lehen maila bukatzean pasatzen zen azterketa, CM2 bukatzean pasatzen zena. Donibane Garaziko Maiorga kolegioan pasa zuen; bere familiakoa zen Arbelbide kalonjeak sortu zuenez kolegioa, guk denok bagenuen bertan ikasteko eskubidea. Pentsa, ene garaian ere *zertifikata* urtean batek edo bik pasatzen zuten, hoberenek. Errientak hautatzen zituen hoberenak azterketara aurkezteko.

Zuen laborari-etxea nolakoa zen?

Etxean bagenituen hamaika hektarea lur, pentze eta landa, eta zortzi behi, bi bigantxa eta bi aratxe; zaldi eme bat ere. Elekrika ni sortu aitzin ekarri zuten etxera, eta ura ere auzo orotara heldu zen gerlaren ondotik. Ur beroa bagenuen eta bainugela bainerarekin... Lehenetarikoa izanen zen Heletan.

Arbelbide abizenak arrasto luzea du Nafarroan.

Paperetan ageri denez, Arbelbide abizena Jatsutik heldu da, eta 1300 urte inguruko dokumentuak badira. Arbelbidetar famatuak ere badira, horien artean ezagunena aitatxiren otto izan zen: Donibane Garaziko Maiorga kolegioaren sortzaile, idazle, kalonje eta Belokeko fraide-etxearen sortzaileetarikoa. Bada beste Arbelbide famatu bat ere: Hazparneko erretorea. Iraultza garaian apez ainitzek ihes egin behar izan zuten, eta horrek Luzaideko bidea hartu zuen. Han bada kaiera bat bataiatuak izan direnekin, eta Arbelbide horrek Iparralde-tik joan zirenekin lerro berezia egin zuen honakoa idatziz: «Frantses soldaduak pasa dira, eta etxe bakar bat zutik utzi dute». Ikusteko zer garai izan zen!

Etxean frantsesez ala euskaraz egiten zenuten?

Etxean beti euskaraz. Ez dut nehor entzun frantsesez, eta eskolan ikasi nuen frantsesa. Oraingo ikastoletan euskaraz ikasten den bezala [irriñoa atera zaio ezpainetan].

Noka-toka familian?

Ene arreba zaharrenarekin, nik hari noka, amak ere horrela egiten baitzion. Aldiz, ttipiagoeekin baduzu amodio bere-

zia, eta horiei, xuka. Aitari ere xuka, garaztarra baitzen, eta Garazin xuka egiten baita usu, Baigorri ez bezala. Anaiari toka, eta amari xuka.

«Heletan ikusi nituen
lehen aldiz naziak.
Ikaragarriko beldurra
nien, hilko nindutela
pentsatzen nuen... Haur
baten oroitzapenak ditut.
Aldiz, haurrei txokolatea
ematen zietela ere
buruan dut»

Eskolan debekatua zenuten euskaraz aritzea?

Bai, bai, debekatua zen eta hogealdi kopiatu behar izaten genuen aldi bakoitzean: «*Je ne parlerai pas en basque, je parlerai en français*». Ehundaka aldi kopiatu dut erranaldi hori,

eta gaur da ordainaren eguna: «*Je parle en basque et pas en français*» [irriz].

Bigarren Mundu Gerla ezagutu zenuen haur garaian. Nolako oroitzapenak dituzu?

Heletan ikusi nituen lehen aldiz naziak. Ikaragarriko beldurra nien, hilko nindutela pentsatzen nuen... Haur baten oroitzapenak ditut. Aldiz, haurrei txokolatea ematen zietela ere buruan dut, eta Heletako plazan hogeita bat tanke lerro-lerroan ikusten ditut oraindik.

Gerla nola bizi izan zenuen eskolan?

Hamar urterekin Heleta utzi eta Tarnosera joan nintzen ikastera misionistekin, gerla garaia zen. Han nengoela, Miarritzeko

bonbardaketa famatuaren berri ukan nuen. Eguerdia zen eta hegazkinak entzun genituen, eta ondotik zartako batzuk. Berehala jakin genuen Miarritze bonbardatu zutela. Biharamunean abiatu ginen bertara, oinez. Tarnosetik Baionara, eta ondoren trena hartu eta Miarritzera. Etxeak txikituak ziren eta bonbek utzi ziloak nonahi.

Eta erresistentziaz oihartzunik bazenuten?

Ez sobera. Entzuten genuen bazirela terroristak... Hor ikasi dut terrorista hitza zer zen. Frantsesak ziren terroristak! Uda batean alemaniarrak joan zirela jakin genuen, baina beren baitatik joan ziren! Afixak agertu ziren biharamunean, Baionan, *Libération* hitzarekin, eta ordura arte ikusi ez genituen aintz jende karriketan, frantses bandera besoan loturik.

Goserik pasa zenuen gerla garaian?

Bazen merkatu beltza... ogia ere gutxi. Hiru zentimetro lodierako ogi-xerra bagenuen jateko. Arbia ere eskolan ateratzen ziguten. Pentsa, Heletan arbia zerriei jaten emateko baliatzen genuen.

Alemanen errepresioa bizi izan zenuen?

Ni ttipiegi nintzen, baina bazen Heletako auzotar bat preso eramán zutena Alemaniara. Hilabetero idazten zuen, eta, postaria oinez ibiltzen zenez, gutunak eskolako haurrei ematen zizkigun bana genitzan etxaldeetan. Alemaniatik eskapatu zela jakin nuen gutun-azala irakurritz. Eta horrela zen idatzia: «Mr. Arbelbide Eskapatu. Meson Bizkaia Atzeman. Helette, Jinen berriz». Euskara baliatzen zuen bere mezuak pasatzeko eta eskapatu zela abisatzeko [irriz].

Hamar urterekin Heleta utzi eta Tarnoseko eskolara joan zinen misionistekin.

Ez dut oroitzapen txarrik. Lehen egunetan, halere, arratsetan bakarrik gelditzean, negar egiten nuela oroitzen naiz.

Eta eskolatik noiz etxeratzen zineten?

Hiru hilabete pasatzen genituen eskolatik irten gabe. Egu-berriz, pazkoz eta udan sartzen nintzen Heletara Tarnose-tik. Trenez Luhusora eta oinez Luhusotik Heletara, hamar kilometro ene balizarekin. Auto bakar bat ez zen pasatzen garaian, pentsa non bizi ginen!

APAIZ BOKAZIOA

Apaiz bokazioa noiz piztu zitzaizun?

Biziki ttipitatik banekien apez izan nahi nuela. Norbaitek galdegin zidan: «Zer egin nahi duk handituta?». Eta nik arrapostu: «Apez, apezpiku, aita saindu eta Jainko».

Nire lehen pindarra hori izan zen! Ondotik, Heletatik pasatu zen misionistak ere markatu ninduen. Ene izena eman nuen eta geroztik hor segitzen dut. Hura ez bazen herrira jin, beste bide bat hartuko nuke beharbada.

Misionisten Tarnoseko eskolatik Naonedekora joan zinen.

Hamabost edo hamasei urte izanen nituen. Baionan trenea hartzen genuen Bordelera heltzeko eta beste sei edo zazpi oren Naonederako. Zenbait aldiz balizaren gainean jarriarik egiten genuen bidaia osoa, korridorean, ez baitzen tokirik denentzat.

Zenbat zineten Euskal Herritik?

Hamabost inguru baginen misionisten apez-eskolan Naoneden. Atzerrian ginela sentitzen genuen gure burua, gu euskaraz aritzen baikinaren elkarren artean, eta hangoak kexu, ez zutelako fitsik ulertzen. Berrogei ikasle inguruk lo egiten genuen gela berean. Ez ginen ia inoiz irteten eskolatik. Igandetan katixima genuen goizez eta arratsaldetan grekoa.

Baxoa eta gero, Belgikara joan zinen ikasketak jarraitzera misionisten eskolara. Zer zuen eskola hark?

Bi urte pasa nituen. Ikasle bakoitzak bagenuen gure ganbera eta eskolatik ateratzen ahal ginen hirunaka. Bazuen ere beste berezitasun bat eskolak: laborantzan aritzeko aukera genuen bertan. Neguan hotz galanta pasatzen genuen, zeropetik hogeita bost gradu! Barrukietan sartzen ginen hotza zenean kabalekin batera.

Gero seminario handian Teologia ikasketak urte batez egin eta berehala armadara joan behar izan zenuen.

Hogei urte ez nituen. Soldadu joateko deia ukan genuen etxean, gutun bidez. Aljeriako gerla garaia zen, eta Alemanian egin nituen armadako lehen formakuntza hilabeteak. Tiroka hartzen ikasi nuen, armak garbitzen eta auto permita ere pasatu nuen. Ni han eta hemen ibilia nintzen, baina baziren beste batzuk sekula herritik atera gabekoak... Banuen lagun bat Hoztakoa, baxenabartarra. Armadara joateko bere baliza eskutan, Hoztatik Bunuzeko bide handira oinez jin zen, eta bidea ikusi zuenean hara zer erran zuen [zutitzen da bere aulkitik, ezkerrera eta eskuinera so eginez, irriz]: «Zein zabala den mundua». Pentsa nola ginen gerla hartan! Nola nahi zuten Aljeriako gerlan ihardoki genezan? Ez zen posible!

ALJERIAKO GERLA

Urtebete egin zenuen Alemanian, eta gero Aljeriara, gerlara.

Trenez eraman gintuzten Alemaniatik Marseillara, eta ondotik ontziz Aljeriara. Lehen aldiz ontzi bat hartzen nuela, eta bidaian eritu nintzen. 1957an heldu ginen Marokora. Hamar egun han egin genituen, eta segidan Oranera. Trenez eraman gintuzten, eta handik mendi bateko posizioa hartzera. Hamalau hilabetez mendi kasko batean egon ginen, baina ez ginen suaren erdian... 1914ko gerlako eskopeta bana eman ziguten, hiru balekin! Beharrik ez gintuztela atakatu!!!

Baziren kanoiak eta 150 soldadu inguru, murriz inguratuak, eta alanbre sareak nonahi... Indotxinako gerlan izan zirenek erraten zuten: «Hori izan bagenu Indotxinan, gau batean hartuko gintuzten indotxinarre!».

Baina zu Aljeriako independentziaren aldeko zinen...

Guk, misionistok, Afrikara joan nahi genuen misiolari, eta gure artean bazen giro berezi bat. Afrikar modura ikusten genuen poxi bat gure burua, eta Aljeria Afrikan zenez... Aljeriarren aldekoa nintzen, bai. Erranen dizut, Alemanian ginelako formakuntza militarra egiten, koronelak nahi izan zuen nik ikasketak egin nitzan ofizial izateko, apezgai bainintzen *École des officiers de réserve*-n. Izan ere, baxoa banuen. Pentsa zer zen baxoa garai hartan ukaitea! Baina ez nuen nahi izan, gerlaren kontra bainintzen. Eta, mendekuz, soldadu huts atxiki ninduen, sarjentu izan behar banuen ere.

Gerlaren krudelkeria bizi izan zenuen?

Ez horrenbeste. Nik ez nuen borrokarik egin frontean. Koronel batek hartu ninduen bere inguruan, beste hainbatekin batera, beste funtzio batzuk egiten nituen. Ez genuen gerla zuzenki bizitzen... Beraz, ez nuen herrarik sentitzen, ez bainuen gerlaren krudelkeriarik ikusten.

Halere, kontatuko dizut ene lagun bat, apezgai ni bezala eta gerlaren kontrakoa ni bezala, egun batez segada batean atzeman zutela. Lagunak hilak, koskoilak moztuak, zakila ahoan sartua... Hor erotuak ziren... Lagunak ez zidan itsuskerien berri eman, baina konprenitu nuen zer gertatu zen. Bi aldeetan izan ziren ankerkeriak, eta horrelakoak ikusita edozer egiten da, herra hor baita!

Armadako buruzagi batzuek Aljerian egin zuten estatu kolpearen garaian, han zinen oraindik?

Bai. 1958ko maiatzaren 13a zen koronelek boterea hartu zutenean Aljerren. Guk, usaian bezala, arratseko zazpietako berri saila entzuteko irratia piztu genuen... Baina berririk ez... «Zer

pasatzen da, zer pasatzen da...». Baina berririk ez, eta musika militarra. Halako batean, irratian entzun zen ahots ozen bat: «*Le Coronel Raoul Salan –eta ez dakit nor gehiago– ont pris le pouvoir à Alger pour remettre l'ordre...*». Pentsa zer giro zen! Gero jakin genuen manipulatuak zirela.

Gutunak idazten zenituen gerlatik? Euskaraz?

Beti euskaraz idatzi izan ditut ene letrak, seminarioko bigarren urtetik landa. Apezek gure gutunak irakurtzen zituzten, eta bigarren mailan nintzenean, apezari ez zitzaion gustatu amari idatzi niona. Berriz idatzarazi zidan gutuna. Eta pentsatu nuen: «Hurrengoan euskaraz idatziko diat». Eta horrela hasi nintzen euskaraz idazten. Baina ez nekien nola idatzi, ez bainuen frantsesa bezala menderatzen euskara idatzia.

Ez zinen alfabetatua.

Batere! Baina geroztik amarekin beti euskaraz idazten nintzen! Amak frantsesez, eta nik euskaraz... Eta apez *superiorak* erraten zidan: «*J'aime le français de votre mère!*». Aljeriatik ere euskaraz idazten nion amari.

«Afrikara joan nahi
genuen misiolari, eta
gure artean bazen
giro berezi bat. Afrikar
modura ikusten genuen
poxi bat gure burua, eta
Aljeria Afrika zenez...
Aljeriarren aldekoa
nintzen, bai»

Aljeriara itzuliz, gutunetan zer idazten zenuten?

Ez genituen gerlari buruzko berri ilunak idazten. Ez genituen arranguratu nahi.

Euskal Herritik Aljeriara bidaliak izan ziren soldadu euskaldunek zer pentsatzen zuten gerlaz?

Euskal Herria Frantziaren aldekoa izan da gerla horretan; izan ere, bizian ohartu naiz, zerbaitengatik sufritzen duzularik, horri atxikia zarela. Eta Frantziarekin borrokatu zuten

euskaldun ainitz herrarekin itzuli ziren etxera, aljeriarren kontrako gorrotoarekin. Han sortu eta harrotu zen frantses nazionalismoa, beste inon baino gehiago.

Frantses nortasuna hor indartu zen, beraz, eta euskalduna apaldu?

Bai, bai... Hor gibelera egin genuen. Enbata mugimenduak ere arazoak ukan zituen, garai horretan sortu baitzen. Frantses populuaren inarrosaldia izan zen.

Zure gaztaroko urteetan, noiz piztu zitzaizun euskal kontzientzia?

Gure artean euskaraz mintzatzen ginen naturalki, baina Tarnosen, eskolan nintzelarik, hamabost edo hamasei urterekin, liburuak irakurtzen ziren bazkari tenoretan, isilik jan behar baikenuen. Eta ene lehen pindarra hor piztu zen, *Histoire du curé Santa-Cruz* Gaëtan Bernovilleren liburua irakurri genuelarik. Hor ikasi nuen Hegoaldea bazela, eta gerla egin zutela. Euskaldun ginelako kontzientzia hor sortu zitzaidan. Gu euskaldunak ginela, eta besteak ez.

Beste libururen batek sortu zizun antzeko ihardukitzerik?

Bai. Naoneden nintzenean, baxoa pasatu behar izan nuen bigarrenetara, eta, anartean, hiriko liburutegira joan eta *Basque sailean* begiratzen nuen. Han atzeman nuen *De Guernica à New York, en passant par Berlin* [Agirre lehendakariaren liburua]. Bigarren ufakoa sentitu nuen liburu hori irakurtzean. Autonomia ukan zutela Hegoaldean jakin nuen.

Zure etxean abertzaleak ziren?

Euskaltzaleak bai, baina abertzaleak ez nuke erranen. Aitak kontatzen zuen 14ko gerla handian kapitainak erran ziola: «*Vous les Basques vous n'êtes pas français!*». Sentitzen zuten zerbait bazela... Ez ziren abertzaleak, baina nortasun ezberdin bat bazuten. Politikatik urrun ziren, baina Alduden ikusten zutenean Baztango artzain bat, zerbait bazela konturatzen

ziren. Ez genekien mugaren bestaldean Euskal Herria bazenik ere! Ezjakintasuna zen arazoa: eskolan *La bataille de Roncevaux* ikasten genuen, baina ez genekien non zen ere! Aldiz, aitaren sortetxea ez zen urrun, baina segur errientak ere ez zekiela non zen Orreaga.

1958an armada bukatu eta ikasketekin jarraitu zenuen.

Seminarioa bukatu nuen Lyonen, eta irekitze bat bazela sentitu nuen. Eliza irekiagoa zen. Baziren hamar bat seminario handi Lyonen, ordena ezberdinetakoak. Giro intelektual bat ezagutu nuen, hemen ez zena. Bost urte egin nituen eta Teologiako lizentzia atera nuen.

Ingalaterran ere izan zinen ingelesa ikasten. Nola izan zen hori?

Lyondik Tarnoseko eskolara itzuli nintzen kurtsoak ematera; ingelesa irakastera, baina ez nuenez ingelesa menderatzen, bi hilabetez Ingalaterrara joan nintzen 1961ean. *Service Civil International* erakundearekin joan ginen lagun bat eta biok. Eta zer tokatuko eta, kolonia protestante batean lan egin beharra [irriz]! Gu gure sotana eta guzti izan ginen han lanean... Hor lehen aldiz mintzatu nintzen protestanteekin. Seminariora itzultzean, ez genion nehoi erran protestanteekin ari ginenik lanean. Gure artean gelditu zen sekretua.

Gaztaroan bestak egingo zenituen han eta hemen...

Ez genuen egiten, ez baikenuen sosik. Mugitzeko ere oinez mugitzen ginen, gehienez auzo-herrira. Horrela zen orduan. Dantzaldietara ere ez ginen joaten!

Eta neskekin nolako harremana zenuten apaizgaiek?

Nahikeria bazen..., baina ez zen guretzat egina! Hola zen... Seminarioan ginen. Baina beste gazteek ere ez zuten neskarik hunkitzen e! Oroitzen naiz Naonedeko seminarioko gela erraldoi hartan lagunak erran zidala: «Armadako lehen gauean zernahi entzunen duk». Argiak hil eta espantuka

aritu ziren, hau eta hura. Segur naiz erdiak ere ez zirela neska bakar batekin egon... Fantasmak baziren. Orduan ez zen pilularik, ez eta preserbatiborik...

ELIZAKO BIDE LUZEA

Elizan, beraz, haize berri bat sentitzen zen 60ko hamarkadaren hasieran?

Bai, bazen giro bat Frantzian. Apez langileak baziren ere, eta ikusten zen irekidura bat behar zela, denak ez baitziren ados irekidurarekin. Hazparneko misionistak parroketan aritzen ziren misioak predikatzen, eta Lartzabaleko kantonamenduan egiten zen apez bilkura batera misionista bat igorri zuten. Xede bakarra zuen: Euskaldun Gazteriara ez zezatela gazterik igor. Beste heziketa bat ematen zitzaaien Eus-

kaldun Gazterian, eta Piarres Xarriton zen gainera omonier [irriz]. Euskaldun Gazterian formatu ziren gazte horietako bospasei auzapez izatera heldu ziren hogeitaka urterekin. Irekidura sentitzen zen...

Elizaren irekidurarekin batera, Enbata mugimendua ere ari zen sortzen.

Anaia Xalbat eta arreba Martxalin Enbatako bilkura guztietara joaten ziren. Arreba gainera zuzendaritzan zen, beraz familiatik ezagutza zuzena

nuen; baina Enbataren lehen urteetan ni ez nintzen hemen oraindik. Egia da apezen artean batzuk alde eta beste batzuk kontra zirela.

«Kontziliotik landa tokiko hizkuntzetan mezak emateko baimena eman zen, eta oroit naiz Hazparnen eztabaida sortu zela: mezak euskaraz ala frantsesez? Azkenean meza nagusia frantsesez eta kantuak euskaraz ematea deliberatu zen»

1960ko uztailaren 3an Heletan apeztu zinen.

Ordura arte ez ziren apezgaiak ordenatzen parroketan, katedraletan baizik; baina, bi ginenez, Erromara baimena galdetu, eta erdietsi zen baimena. Lehen aldikoz historian, ordenazio bat egin zen Heletako elizan!

Nolako oroitzapena duzu?

Gazteak Besta Berriz jantzi ziren, eta apezetxetik elizara joan ginen denak elkarrekin, hori oroitzen naiz, bai. Hala ere, Afrikara joan arte ez nintzen hasi parrokia batean lanean. Klaseak ematen hasi nintzen Tarnosen, eta handik Afrikara.

Apeztu zinenean, mezak zein hizkuntzatan ematen ziren?

Latinez! Eta bizkarra emanda! Frantsesa mezan sartu zen ni Afrikan nintzenean. Tokiko hizkuntzak ere sartu nahi izan genituen Boli Kostan. Lagun batek itzulpen lana egin, eta herrietan hasi ginen tokiko hizkuntzan mezak ematen. Denak ez ziren akort. Frantsesez eman genitzan nahi zuten, frantsesak baitzuen prestigioa eta begirunea, Frantziako kolonia ohia baitzen. Baziren ere beren hizkuntzak errefusatzeko zituztenak. Euskal Herrian ere antzeko arazoak ukan genituen, baina guti. Kontziliotik landa tokiko hizkuntzetan mezak emateko baimena eman zen, eta oroit naiz Hazparnen eztabaida sortu zela: mezak euskaraz ala frantsesez? Baziren frantximantak... Azkenean meza nagusia frantsesez eta kantutak euskaraz ematea deliberatu zen, eta geroztik hala da zentro gehienetan. Hori aldatzeko iraultza beharko da egin!

Zure ametsa Afrikara joatea zen misionista gisara.

1961ean Boli Kostara heldu nintzen. Bingervilleko seminarioan hiru urtez ingelesezko kurtsoak eman nituen. Ehun eta berrogei gazteri lehen mailan ingelesa irakasten, eta horiekin Afrika ezagutu nuen. Adibidez, sineskeriekin eta fetitxismoarekin duten harremana, begi gaiztoa norbaiti botatzen zaionean, irudiekin eta panpinekin duten harremana... Pentsatu behar duzu animistak direla gehienak.

Zerk harritu zintuen gehien?

Seminarioan nituen gazteek lurrean egiten zuten lo beren etxeetan. Ez zuten argirik, eta jatekoa ere eskas. Seminaria heldzen zirenean, bazuten argia, ohea, egunean hiru apairu, ura iturrian... Beste mundu batean sartzen ziren. Haien apez mentalitatean izan zuen horrek ondorioa; izan ere, beren kultura bigarren mailako gisara hartzen zuten, errefusatzeko zuten... Lagundu genien berena kontuan hartzen eta goraiatzeko.

Bertako hizkuntza ikasi eta zure lehen liburua idatzi zenuen.

Beren hizkuntzan predikatuak ematen saiatzen nintzen, eta, lagun batzuen bitartez, atsotitzez osaturiko liburua baoulé hizkuntzan idatzi nuen. Hamar milako bat saldu ziren han berean. Erran zaharrak dira, aspaldiko istorioak, frantses munduak kutsatu gabeak.

Elizak misioetan egin duenaz noizbait zalantzarik ukan duzu? Egiteko moldeez?

Moldeak eta moldeak badira. Hemen ere e! Badira manatzailerak hemen ere... Molde zaharrekoak. Ez dut uste arrasto txarrik utzi dugunik. Boli Kostako independentziaren berrogeita bost urteen kariatara joan nintzen bertara. *Chef d'honneur* izendatu ninduten; beraz, ez dut uste oroitzapen txarrik utzi nienik. 3.500 kilometro karratuko eremuan aritzen nintzen ni, eta bagenituen berrogeita bost edo berrogeita sei kaperara, dozena bat nik sortuak. Horietako batzuk Burkinatik jin etorkinentzat. Han ere etorkinak baziren, hemen bezala.

Zer proportziotan ziren giristinoak?

Ni nintzen eremuan hirutik bi animistak ziren, eta gainontzeak, musulmanak eta giristinoak. Ez genuen inoiz arazorik ukan beste erlijioetakoekin. Gu ontsa ikusiak ginen. Eskola publikoko errientek erraten ziguten guk, bederen, eskola ekarri genielako; musulmanek, aldiz, fitsik ez.

Boli Kostak independentzia eskuratu berri zuen zu hara heldu zinenean. Frantsesekiko nolako sentimendua zuten herrialde hartan?

Ni nintzen eskualdean, mendialdean, beltzen artean, ez dut uste arrangurarik zutenik. Ospakizun handiak baziren independentzia ospatzeko urtero, baina ez nuen sentitzen herra berezirik. Kontatuko dizut pasarte polita. Bazekiten Etiopia-ko enperadorea heltzekoa zela bisitan, eta galdetu zidaten: «Nolakoak dira etiopiarak?». Eta nik erantzun nien: «Beltzak zuek bezala, baina ezpainak eta sudurra gu bezala dute». «Egiten dute hegazkinik?», galdetu zidaten, eta nik ezetz. Eta haien arrapostua: «A, orduan beltzak dira».

Hamabi urte egin zenituen Boli Kostan. Zer ikasi zenuen han?

Munduaren beste ikusmolde bat ekarri nuen enekin. Erlatibizatzen ikasten duzu. Giristinoei dagokienez, barkamena-ren manamendua ez dugu beti betetzen. Han, aldiz, barkatu behar da, bortxaz, beren ohiko kulturaren Pazientzia ere ikasten duzu. Nik lehen ez nuen pazientziarik, eta han ikasi dut! Ez dute tenorearen noziorik, garai hartan bederen, eta ez da ez zutelako ordularirik besoa!

EUSKAL HERRIRA ITZULERA

1977an Euskal Herrira itzultzen zara Parisetik.

Urte bat behar izan nuen Afrikatik Europara trantsizioa egiteko, eta hori Parisen egin nuen. Gizarte Zientzietako Goi Mailako Ikasketen Eskolan izan nintzen. Aldaketa ainitzeko urteak ziren, 68ko Maiatzaren eraginagatik. Urte bat hartu nuen hemengo mundura jartzeko, eta Pariseko artxiboetan izan nintzen denbora berean Afrikako kolonietako aferak miatzen. 1977an Uharte Garaziko parrokia hartu nuen, eta etxera itzuli nintzen.

Zuk eskaturik?

Ez, diozesak du hautatzen hori. Han baginen lau apaiz, Garazi inguruko lau herrirentzat. Bi apaiz denbora osoz eta beste bi denbora parte batez.

Lau apaiz lau herrirentzat... Gauzak aldatu dira.

Uf, ordurako jadanik gauzak aldatzen hasiak ziren. Hogeita zortzi apez baginen Garazi eta Baigorri artean. Gaur egun bost...

Zer aldaketa sentitu zenuen Euskal Herrira heltzean?

Beste mundu bat zen hemengoa. Larunbat arratsaldetan herriko gazte guztiak jiten ziren mezara, eta, ondotik, dantza taldearen errepikak egiten zituzten. Gaur egun ez da gazte bihirik heldu mezara.

Aldaketa politiko ainitz ere ikusiko zenituen 1977an?

Hegoaldetik heldu errefuxiatuak, errate baterako. Euskal Herritik Afrikara joan nintzenean, ez ziren hor... Bueno, baziren 36koak, baina hemen txertatuak ziren arrunt. Aldiz, errefuxiatu berriak nonahi baziren. Eta ezagutu ditut GALen lehen atentatuak. Bat izan zen Azkaraten, bide bazterrean; beste bat, Arrosan. Eta Baionan, katedraletik hurbil, dozena bat inguru... Orduan izan ziren atentatu gogorrenak.

Euskara eta Euskal Herriari buruz ere orduan hasi zen kontzientzia berri bat pizten. Ikastolak sortuak ziren lehenxeago, gau eskolak ere... Eta kontzientzia horren piztean zerikusi handia ukan zuten errefuxiatuek. Lehen ikastola Argitxu Nobliak sortu zuen, iheslari baten emazteak. Lehen andereñoa, Libe Goñi, Hegoaldetik jina. Orduan hasi zen mugimendu berri bat, hala euskararen alde, hala euskal kontzientziaren alde. Orduko politikarietan bat edo beste bazen... Eman dezagun, Ibarlako auzapeza abertzalea zen. Heletako auzapeza, ene koinata, Marie-Andrée Arbelbide... Bozetan emaitza onak erdiesten hasi ziren, ordura arte ezagutzen ez zirenak... Lehen,

ehuneko lau edo bost egiten zuten, eta orain ehuneko hamasei-
ra ere heltzen hasi ziren. Urte horietan abiatu da mugimendua!

Errefuxiatu berri horiek nola ziren hemen hartuak?

Bazen minoria bat ongietorria egiten ziena, eta beren etxee-
tan hartzen... Baina gehiengoa kontra zuten. GALen aten-
tatu bat baldin bazen, beraiek ziren hobendunak iritzi publi-
koaren aitzinean, Hegoaldetik jin zirelako hona. Horrela pre-
sentatzen zuen afera eskuinak. Manifestazio bat ere antolatu
zuen bortizkeriaren kontra, eta badakizu nortzuk ziren ai-
tzinean? Aljeriako *Les anciens combattants*!

«Euskara eta Euskal
Herriari buruz ere orduan
hasi zen kontzientzia
berri bat pizten.
Ikastolak sortuak ziren
lehenxeago, gau eskolak
ere... Eta kontzientzia
horren piztean zerikusi
handia ukan zuten
errefuxiatuek»

Gazteria nola hasi zen aber- tzaletzen?

Ni abertzalea nintzen eta ho-
riekin nintzen hastapenetik.

Bazen Garazin Euskaldun Gazteria taldea, eta gazte horiek
ene apezetxean biltzen ziren. Gero pittaka-pittaka ELB sin-
dikatu sortu zen hortik.

Gazte horien gehiengoa abertzalea da gaur egun. Ez dut
erran nahi nik abertzaletu nituenik, baina bazen jadanik giro
bat. Jende argi eta aktiboak abertzaleetan ziren... Eta gaur
egun ere, funtsean... Nork egin du Iparraldearen aldaketa,
hala kulturaren, hala politikan, hala sindikatu aldetik? Aber-
tzaleek egin dute. Nork sortu zuen ELB laborari sindikatu?
Abertzaleek. Baionan gaur egun ari diren Alda edo Bizi! be-
zalako mugimenduak abertzaleek dituzte sortu!

Zer iritzi zenuen borroka armatuaz?

Erranen dizut: ni Algerian egona nintzen, eta han ezagutu
nituen atentatuak. Bonbak autobusen barneetan, eta antzeko

pitokeriak aljeriarrek eginak. Ene buruari galdetzen nion: «Zer balio dik horrek!». Baina behin atentatu bat egin zuten Salan general frantsesaren kontra, eta pentsatu nuen: «Aldi batez, bederen, egin ditek zerbait interesgarri!» [irriz].

France Inter irratian, euskaldun batek emankizun bat egi-ten zuen Parisetik, eta emankizun horri esker jakiten nituen Madrilen izaten ziren atentatuak: batean kapitain bat, bestean koronel bat... Eta ene buruari erraten nion: «Horiek bederen ari dituk plantan! Ez dute nornahi hiltzen, eta hautatzen dituzte hobendunak. Zerbait aldatzeko beharra sentituko dute horrela!», pentsatzen nuen. Gero gauzak aldatu ziren hipermerkatuetan bonbak jartzen edo politikariak *garbitzen* hasi zirenean. Horrekin ez nintzen ados.

Ikuspegi moral eta etikotik uztargarria da jarrera hori?

Ene aitak 14ko gerla egin zuen; bestalde, etxean bagenuen mutil bat Alemaniatik ihes egin zuena Bigarren Mundu Gerla garaian; eta ni Aljeriako gerlan izana... Eni erratea gerla moralaren kontrakoa dela? Kontatuko dizut: 1957an Aljeriara gindoazela tren batean, baginen hogeita hamar bat euskaldun bagoi batean. Tolosan gelditu ginen trenez aldatzeko, eta han non ikusi genuen Laxage Donibane Lohizuneko erretorea, gero bikario nagusi izanen zena, komandante karguaren lau galoirekin! Inork ez zuen galdegin hori moralaren kontrakoa zenik. Ni ez nintzen gai nehor kondenatzeko moralaren ikuspegitik; gero, taktika aldetik, hori beste eztabaida bat da.

Beraz, zuretzat Euskal Herrian gertatzen zena gerla zen ere?

Bai, enetzat hemengoa gerla bat zen, Euskal Herria Espainiaren kontra, ez bazen tanke eta abioirik ere...

Ipar Euskal Herrian ere sortu ziren mugimendu armatuak. Iparretarrak, erraterako.

Ni jadanik hemen nintzela sortu zen IK. Gu ETArekin ginen; beraz, Iparretarrak sortu zenean, bai ETak eta bai guk,

kaka sortuko zutela pentsatzen genuen. Kontuan izan behar da iheslariak hemen doi bat trankil zirela, eta talde armatu berri horiekin arazoak gehitzen zitzaizkien. Taktika aldetik ez nintzen ados beraiekin.

Aldiz, IK-koak ere Euskal Herriaren alde ari ziren borrokan.

Bai, bai, hori ez dut zalantzan ematen, baina taktikoki ez nintzen ados.

Barnealdeko IK-ko gazte horiekin eztabaida ainitz ukan zenituen?

Uf, so egin beharko nuke garaian sortu genuen *Herriz-Herri* aldizkarian. Peio Iralurrekin batera sortzaile nintzen, eta gure iritziak plazaratzen genituen bertan. Parean bagenuen sozialistek sorturiko *Berriak* kazeta, eta ikusten genuen eragina bazuela jendartearen, Garazi eta Donapaleu inguruetan. Beraz, ez ginenez ongi konpontzen horiekin, gurea sortu genuen. Kantonamendu bakoitzean ehun harpidedun nahi genituen, eta mila ingurura heldu ginen.

Bazen ere *Herria* kazeta. Ez zen aski zuentzat?

Herria euskaltzalea zen, baina politikoki ez zen arras gurea. Ikusi behar da nolako irakurzalegoa zuten! *Herriz-Herri* abertzalea zen osoki.

Zein helburu zuen?

Ikusmolde berri bat nahi genuen sorrarazi. Ez soilik abertzalea. Sindikalgintza, adibidez, ez zen abertzalea, baina hor sortu zen ELB laborari sindikatua. *Herriz-Herri*-n ziren sortzaile gehienak.

Borroka armatuaren kontra idatzi zenuen *Herriz-Herri*-n, baina ez ETArekin kontra. Zergatik?

IK-ko borroka armatuaren kontra idatzi nituen zenbait artikulu, bai. Errate baterako, Filipe Bidart espetxean zelarik,

artikulu bat idatzi zuen; baina ni ez nintzen ados, beste bat idatzi nuen. Berehala jin zitzaizkidan oharrak erranez ezin nuela idatzi preso baten kontra. Ene aldekoek ere ohar bera egin zidaten. Horrela zen gure mundua...

Herria-z gain bazen ere Enbata, baina hori ere ez zitzai-zuen aski?

Enbata kazeta hirikoa zen, eta guk baserri mundua nahi genuen hunkitu.

Turismoaren kontrako oldarraldia izan zen garai horretan. Zuk zer jarrera zenuen?

Gu turismoaren kontra ginen, arrunt! Hemengo gazteak Parisera joaten zirela lan xerka ikusten genuen, eta turismoak

ez zuela arazo hori konponduko. Ez zuten egiten hemengo gazteen alde. Hemen sortu behar zen lana, hemengo gazteentzat.

«Gu turismoaren kontra ginen, arrunt! Hemengo gazteak Parisera joaten zirela lan xerka ikusten genuen, eta turismoak ez zuela arazo hori konponduko. Ez zuten egiten hemengo gazteen alde»

***Enbata* kazetaren ildo editorialarekin ez zeundeten ados, nahiz eta borroka armatuaren gaian bat egiten zenuten. Zergatik?**

Euskararen gaian ez ginen ados. Berezik leporatzen genien euskaraz ez zutela fitsik

ateratzen. Baionako herriko aldizkaria kritikatzeko zuten ez zuelako deusik ekartzen euskaraz, baina *Enbata* frantsesez zen ia osoki.

Jakes Abeberriengandik horrek zintuen urruntzen?

Politikan ontsa jokatu zuen, baina, lehengo PNBkoen gisan, ez zuen sentitzen euskararen garrantzia. Bazekiten

intelektualki inportantea zela, baina ez ziren bide horretatik abiatzen.

Zure apaiz predikueta gai horiek aipatzen zenituen. Ez zenuen nehoiz abisurik ukan zure arduradunengandik?

Ez, ez. Donapaleuko apaiz abertzale taldean ginen elkarrekin, hogei inguru ginen. Elkar sustengatzeko biltzen ginen, ez baikinena ildo ofizialekoak; hots, gu aldaketen alde ginen, eta beste ainitz ez.

1981ean François Mitterrand Frantziako presidentegora heldu zen, eta abertzaleek bere alde egin zuten kanpaina. Esperantza garaia izan ziren?

Bai, dudarik gabe. Euskal departamendua hitzeman zuen, eta euskararentzat aitzinamenduak. Ez zen guk nahi genuena, baina bestaldean ez zen fitsik! Beraz, argi zen. Euskaldunok ETAkoak edo IK-koak ginen, batzuen begietan. Baina gauzak aldatzen hasiak ziren: Michel Intxauspe Garaziko diputatu eskuindarrak inkesta bat egin zuen departamenduan, eta erdiak baino gehiagok departamendua bitan zatitzearen alde egin zuten: hots, Euskal Herria eta Biarno bereiztea.

Esperantzaren ondoren, frustrazioa, Mitterrandek bere hitza jan baitzuen.

Deusean ginen! Eta konfiantza galdu genuen berarengan. Abertzaleak bereiz joaten ginen bozetara. Sozialistekin harremanak hautsi ziren. Eman dezagun Garaziko kantonamenduko bozetan hiru hautagai aurkeztu zirela: Michel Intxauspe eskuindarra, Frantxua Maitia sozialista eta Koxe Larre abertzalea. Emaitzetan, lehen tokian, Intxauspe, bigarren Koxe Larre eta hirugarren Maitia. Bigarren itzulian Maitia ez zela presentatuko uste bagenuen ere, sozialistak aitzina egin zuen, eta aukera guztiak galdu ziren Intxauspe garaitzeko, nahiz eta bagenekien gaitz izanena zela. Nik ezagutzen ditut ondoko bozkaldietan, Intxauspe edo Maitia zirenean lehian, bozkatzera joan ez direnak, edo zuri bozkatu dutenak.

80ko hamarkada hastapenekoak dira zure lehen liburuak: Afrikako 'salbaien' zuhurtzia, Irri solas, Garazi, Gerlako tresna bizidunak: Algeriaz. Zergatik liburuak idazteko gose hori?

Lehenik eta behin ikusten nuen liburu gehienak *bestaldekoak* zirela, eta *hango* euskara ez zutela ulertzen hemengo jende gehienek. Behar ziren euskara erraz batean idatzi. Adibide bat ematearren: Garaziko gazteek Irri-Gaua antolatu zuten, eta ni joan nintzen grabatzera. «To!, hau irakurtzeko gauza erraza duk!». Eta hara, Xalbador saria irabazi zuen liburuak. Ez zuen literatura aldetik gauza askorik balio, baina doike bestek ere ez, eta liburua publikatu zen. Eta horrek piztu zidan gogoia bigarren bat ere idazteko, Afrikako oroitzapenekin, eta horrek ere irabazi zuen sari bat.

Zer erran nahi du «euskara erraz batean»?

Gaur egun ez da hala, baina, garaian, Iparraldean ez zen deus publikatzen euskaraz. Horregatik hasi nintzen. Ikastolak sortu berriak ziren hemen; aldiz, Hegoaldean urteak zera-matzaten ikastoletan irakurtzen eta idazten ikasten. Hori ere bazen. Aitzinamendu bat bazuten, guk ez genuena hemen garaian. Gaur egun ez da diferentzia hori, baina orduan bai.

GURE IRRATIAREN SORTZAILE

Hedabideetan sartu zinen buru-belarri 1981ean, Gure Irratiaren sortzaile izan baitzinen. Baina zer bazen hemen urte hori aitzin?

Lehen-lehenik bazen udatiarrentzat, uda sasoian soilik, *Radio Côte Basque*. Michel Intxauspe diputatuak erdietsi zuela uste dut. Udan Parisetik Euskal Herrira jiten ziren udatiarrentzat sortu zen irrati hori. Donibane Lohizunen irratiak saltzen zituen Etxezaharreta izeneko teknikari batekin egin zuten ezagutza, eta bazela oren bateko hutsunea programazioan. Berehala Etxezaharreta horrek atzemanen zituela euskaldun

batzuk oren horren betetzeko... Eta horrela sortu zen lehen emankizuna euskaraz. Roger Idiart, Piarres Lartzabal, Telesforo Monzon eta beste bospaseik osatzen zuten saioa, Etkezaharreta horri esker. Meza ere euskaraz emateko proposamena egin zuten, baina horretan kalapitak izan ziren, meza frantsesez eman nahi baitzuten apez zenbaitek, kantuez aparte.

Maite Barnetxek hor hasi zuen bere kazetari ibilbidea?

1961ean idazkari gisara sartu zen, eta, 1966an, egunero bost minutuko saio bat egiteko ardura eman zioten. Hor ziren ere Janbattit Dirassar eta Gexan Lantziri. Maite hastape-nean frantsesez ari zen irratian, baina, bost minutu euskaraz egiteko parada sortu zenean, berak hartu zuen saioaren ardura. Igandetan ere oren bateko saioa, euskaraz, egiteko parada eman zioten, eta lagunek erraten zioten: «*Maite, que voulez-vous dire en basque pendant une heure? Une fois de bertsolari, une autre fois de pelotari... une semaine entière?*» (Maite, zer erran behar duzu astero oren batez euskaraz? Behin bertsolaritzaz, beste behin pilotariez...) [irriz].

Politika gairik aipatzen al zuen?

Ez zen onartua! Oroitzen naiz Burgoseko auzia zela-eta denek aipatzen zutela afera hori, baina Maitek ezin aipa, politika baitzen. «*La politique en basque n'est pas la même chose qu'en français*» (Politika ez da gauza bera euskaraz eta frantsesez), erraten zuten. Garaiko polizia komisario bat barrandan zuen Maitek, ea zer aipatzen zuen aferaz, bai baitzekien Barnetxek aipatu nahi zuela Burgoseko auzi hori, zelatari bat zuelako Maiteren ekipoa. Pentsa nola ziren aferak. Politika soilik frantsesez egin zitekeen!

Zein ziren, beraz, euskaraz aipatzen ziren gaiak?

Azoken berri ematen zen, pilota, musa eta euskal kantak...

Ondotik heldu zen *Radio Adour Navarre* 1978an. Hor, aldiz, euskarak toki gehiago ukan zuen?

1981a arte, legez zen irrati bakarra irrati publikoa zen. Baina trikimailu teknikoak egiten ziren beste irrati batzuk entzuteko. Hala nola, gure kasuan, *Radio Adour Navarre*-ren emisorrea Hegoaldean zegoen, eta, Loiola Herri Irratiaren azpiegitura teknikoari esker, hemen entzuten genuen. Estudioak Baionan ziren, baina emisorea eta antenak *bestaldean* ziren. Alexandre de La Cerda zen arduraduna, eta, euskal musika ainitz jartzen zuenez, berehala entzule andana bildu zuen, baina frantsesez zen has tapenean. Ondotik, 1981etik landa, antena piratak eman zituzten, eta programazioa ere handitu zen. Horrekin batera, euskarazko saio bat arratsetan egiten hasi ziren, oren batekoa. Hemengo euskal mundua hasi zen emankizunak egiten, eta gaur egun ezagunak diren kazetariak hor formatu ziren: Guillaume Hirigoien, Ttote Darguy, Bernadette Argain edo Pantzo Hirigarai, besteak beste.

«Mahai bat, bi mikro, eta diskoak jartzeko aparailua. Fini! Besterik ez zela behar. Zenbat kostatu zen galdetu nien, eta ehun mila pezeta. Eta nik ene buruari: 'Hori besterik ez baduk, guk ere zer bait egingen diagu'»

Eta nolaz pentsatu zenuten osoki euskaraz izanen zen irrati bat sortzea garai berean?

Ni orduan apez nintzen Uharte Garazin, eta Lizarrako ikastolako ikasle zaharrenak jin ziren aste baterako Donibane Garazira. Uharte Garaziko ene apezetxean lo egiten zuten. Horiekin adiskidetu ondoren, Garaziko Maiorga kolegioko ikasleek Lizarrara egin zuten ikas-bidaia, eta ni beraiekin joan nintzen. Han topo egin nuen ikastolako zenbaitekin, eta irratia zutela erran zidaten: «Irratia, zuek? –erran nien–. Ez duk posible!». «Hator gurekin», erran zidaten, eta etxe bateko gela batean zuten, ximple. Mahai bat, bi mikro eta diskoak jartzeko aparailua. Fini! Besterik ez zela behar. Zenbat

kostatu zen galdegin nien, eta ehun mila pezeta. Eta nik ene buruari: «Hori besterik ez baduk, guk ere zerbait eginen diagu». Etxerako bidean pentsaketak egin nituen: «Ezarriko diat irratia apezetxean eta antena Huntton emanen diat, lotura telefonoz egin, eta aitzina!». Piarres Xarritoni aipatu nion, eta horrek: «Jaaaaaaa! Ez duk han egin beharrik, Baionan egin behar dik, hirian!!!».

Zergatik Baionako hirian eta ez barnealdean?

Bizia hirian baita! Baiona inguru honetan 150.000 jende inguru bizi baita. Zuberoan 15.000 inguru; barnealde osoan 50.000 baino ez gara. Normal zen Baiona inguru honetan sortzea. Hemen euskaldun ainitz badira, baina barreiatuak. Behar dira euskaldunak xerkatu!

Euskal mundua engaiatu zen proiektuan?

1981eko udan egin genituen lehen bilkurak. Hor ziren AEK, Seaska, Bertsolarien Elkarte... Euskal mundua gomiatu genuen. Lehen langilea Luzien Etxezaharreta izan zen. Piarres Xarritonek ezagutzen zuen Parisetik, han ari baitzen irрати pirata batean, eta proposatu zion Euskal Herrira jitea Gure Irratian lan egitera.

Eta finantziazioa?

Berrogeita hamar libera jar zitzaten hilabetero galdegin genien gure lagun, inguruko eta babesleei. Berrehun bat jende engaiatu zen proiektuan. Zendua den Txomin Hegi zen diruzaina. Ez dakit nola egiten zuen, baina beti ginen ordainduak. Gero jakin dut ETAk ere bere ekarpena egin ziola Gure Irratiari. *Le Semaine* aldizkariko kazetari antieuskaldun batek galdegin zidan: «*Est-ce vrai que ETA vous a donné de l'argent?*» (Egia al da ETAk sosa eman dizuela?). Nik arrapostu, ez nintzela horretaz arduratzen. Beraz, Txomin Hegiri galdetu nion ea egia zen, eta hor jakin nuen bere etxeko baratzean atxikitzen zuela sosa, zulo batean [irriz]. Ez zen ainitz izanen, Gure Irratian beti diru arazoak izaten genituen-eta, baina beti ginen pagatuak.

Hastapenetik argi zenuten euskara hutsez izanen zela?

Bai, bai, horretan erradikalak ginen. Frantsesez ari zen irrati ainitz bazen bazterretan, eta euskaraz ez zen bihirik. Beraz, normala zen euskara hutsezko irrati bat sor genezan.

Prentsaitzinekotara joan aitzin galdegiten genien ea euskaldunik bazutenez. Ez bazuten, ez ginen joaten. Gure aldetik xerkatzen genituen euskaraz mintzatzeko gai ziren komunistak, zentristak, edo eskuindarrak... Oroitzen naiz behin CGT sindikatuko euskaldun bat ekarri genuela irratiara. Arduradunetan ez zenez, berekin jin zen beste bat, baina arrunt frantsesa. Ez zuen fitsik ulertu, baina mesfidatzen zen gutaz.

Elebidunez egiteko eskaerarik izan al zenuten?

Euskara hutsez eginen genuela entzun zutenean, batzuk harritu ziren. Mundu abertzalekoak ere. Irulegiko Irratia sortu zenean, hilabete batzuk geroago, frantsesez eta euskaraz egiten zuten, eta orain ere horrela egiten dute. Jojo Bidart eta Xan Koskarat Gure Irratiaren sortze-bilera guztietan hor izan ziren, hastapenetik. Azken momentuan beren irratia eginen zutela Nafarroa Beherean deliberatu zuten. Baina frantsesa sartuz ere. Elkarlana egin behar zela irratiaren artean ikusten genuen, baina guk baldintza bakarra jarri genien: euskara hutsez egitea elkarrekin loturik ginenean. Zenbaitetan ez zen betetzen, eta gaur egun ere ez da betetzen hori, arras. Hauteskundeetan hautagaiak entzuten ditut *tar-tar* mintzatzeko frantsesez! Ez dut sekula ulertu zergatik erabaki zuten frantsesa ere sartzea, jakinez %80k euskaraz egiten dutela.

Gure Irratian itzulpenak egitea ere ez zenuten onartzen.

Ez genuen itzulpenik nahi. Euskaldunek beren eremua ukan zezaten nahi genuen; beraz, euskaraz ari zirenak soilik mintzarazten genituen.

Enbata kazetak editorial bat atera zuen Gure Irratia sortu zenean. Euskara hutsezko irratia egitea ez zela hautu ona zioten. Ez ziren alde?

Enbata haste-hastetik kontra genuen, ezin baitziren mintzatu Gure Irratian! Ez baitzekiten euskaraz. Nola ez zen mintzatu Jakes Abeberri irratian? Hori leporatzen ziguten...

Milafrangako etxe batean instalatu zen Gure Irratiaren lehen estudioa. Nolako bidea egin zenuten?

Ernest Hirigoiien teknikariaren etxea zen. 1981eko eguberriaz egin genuen lehen emankizuna. Antena, berriz, Baigura kasakoan eman nahi genuen Iparralde osoan entzun zedin irratia, baina ez genekien argindarra behar zenik... Alabaina, ez zen elektrikaririk goi hartan, eta Milafranga berean instalatu behar izan genuen antena. Ondorioz, eremu txiki batean emititzen genuen. Hala ere, pirateatu genituen antena batzuk irratiaren eremua zabaltzeko. Oroit naiz lehen Korrika zabaltzeko nahi genuela Iparralde osora, eta Mixel Bidegainek auto zahar bat erdietsi zuen, eta Baigura kaskora igo. Han pirateatu argindarra, eta auto barnean emisorea eta antena emanez, Iparralde osora hedatu genuen lehen Korrika hura!

Laguntzaileak bazenituzten lehen emankizun horiek osatzeko? Elkarteak hor ziren?

Gauza bitxi bat gertatzen zen. Euskal elkarte ainitz *Radio Adour Navarre* irratian ziren, eta gu konpetentzia gisara ikusten gintuzten. Ez zuten ulertzen zergatik gu hor ginen. Oroitzen naiz Seaskak Baionako herriko etxea okupatu zuen batean, Luzien Etxezaharreta joan zela elkarrizketak egitera; haatik, nehork ez zuen mintzatu nahi izan. Gu *Radio Adour Navarre*-ren konpetentzia ginelako eta hura ontsa ikusia zelako. Pentsa! *Radio Adour Navarre*-k kausitu zuen euskal jendea lortzea, euskal kantak emanez.

Nola lortu zenuten Baigura kasakoan antena ezartzea legalki?

Kontrabandoan izan ginen hainbat urtez, baina erdietsi genuen CSA egituraren baimena antenarentzat. Azkenean instalatu ahal izan genuen, eta horretarako Ertzaintzako irrati arduradun bat jin zen Baigurara.

Nolaz zenuten Ertzaintzako harreman hori?

Ramon Labaien kultura sailburu zela, bera ikustera joan ginen Gasteizera, Eñaut Larralde eta biok. Gure beharren berri eman genion Labaieni, eta bera arduratuko zela... Hortik goiti ez dakit nork erran zien ertzainei Baigura kaskora joan behar zutela gure antenaren jartzera... Emisore berri bat ere ekarri zuten [irriz].

EDF argindar enpresarekin ere auzi bat izan zenuten Baigurako antenaren karira.

EDFk ez zigun elektrikarik eman nahi. Baigurako bidea ez zela gurea, eta bat eta beste... Auzitara jo genuen, eta guk irabazi! Lau mila libera inguru pagatu zizkiguten, eta Baigurako lan batzuk sos horrekin egin genituen.

Beraz Ertzaintzak emisorea pagatu eta EDFk argindarra...

[Irriz] Ez zitzaigun deusik kostat!

Zer harreman zenuen Hegoaldeko medio publikoekin?

Garaian, *Radio France* irratitik norbaitek berriak ematen zituen Euskadi Irratiarentzat. Guk erran genien hori ez zela normala, frantses irrati bat baitzen. Horrela hasi ginen eguneror berri bat ematen Euskadi Irratian, eta ontsa ordainduak ginen. Urte luzez iraun zuen horrek.

Hego Euskal Herriko berriak zuk jarraitzen zenituen Gure Irratian. Maiz joaten zinen Hegoaldera?

Hauteskunde garaian usu. Galdetzen nizkien elkarrizketak alderdi politikoei: PNBkoei, HBkoei, sozialistei eta, noizbait, PPkoei ere. Jesus Egiguren frankotan mintzarazi nuen, eta, bistan dena, abertzaleak ere. Nafarroan, berriz, abertzaleak baino ez nituen kausitzen.

Elkarrizketatu zenituen garaiko buruzagi politiko andana.

Xabier Arzalluz, Carlos Garaikoetxea, Arabako PPko buruzagi bat ere mintzarazi nuen euskaraz. HBkoak ere, bistan

dena... Oroitzen naiz Julen Madariagari elkarriketa egin niola, eta ezker abertzaleari horrek egin kritikei buruz joan nintzaiola galdezka Hegoaldeko HBko arduradun bati. Fite igorri ninduen antzarak ferratzera.

Hego Euskal Herriko bazter ainitz ezagutzen dituzu, ez?

Oporretako aste bat hartzen nuen Hegoaldera joateko. Herriz herri ibiltzen nintzen autoan, jendeak eta tokiak ezagutzen. Maiz, autoan lo egiten nuen, edo apezetxe batean.

Autoan lo egiten?

Bai, bai, frankotan autoan lo egiten nuen, merkeena zen!

Irratiaren profesionalizazioa nola egin zenuten?

Ahal bezala! Pentsa, ez genekien elektrika ere behar zenik antena martxarazteko! Autodidakta hutsak ginen, teknika aldetik lehenik, eta beste alorretan ere. Petto franko egiten genituen... Mikroa, magne-tofoia eta diskoa une berean eman behar zirenean, ez dizut erraten...

Hala ere, kontent ziren entzuleak euskarazko irratia zutelako. Zinez, entzuleak kontent ziren irradi bat zutelako egun guztian euskaraz. Nahiz eta batzuk ahalge ziren, eta Gure Irratia entzuten zutela ukatzen bazuten ere! Ez baitzen batzuentzat politikoki zuzena; baina, hala ere, plazer hartzen zuten etxeko txokoan entzunez. Behin, Arbonako gizon bat etorri zitzaidan orduko 200 libera eskutan, eta erran zidan: «Ez nehoi erran, ez dute jakitearen beharrik, sekretua!».

«Entzuleak kontent ziren irradi bat zutelako egun guztian euskaraz. Nahiz eta batzuk ahalge ziren, eta Gure Irratia entzuten zutela ukatzen bazuten ere! Ez baitzen batzuentzat politikoki zuzena; baina plazer hartzen zuten etxeko txokoan entzunez»

Ipar Euskal Herriko gizartea kontserbadorea eta eskuindarra zela esan duzu behin baino gehiagotan. Nola uler daiteke irrati euskaldun eta abertzale batek 40 urtez irautea?

Euskal kantuak jartzen genituelako, nagusiki. Hurbileko berrien ematea ere garrantzitsua zen entzuleentzat. Bertako euskara baliatzen genuen: lapurtera-behe nafarrera, denek ulertzen baitzuten, edo tarteka batua. Euskalkirik ez. Irratilariek lapurtera-behe nafarreraz egin beharko lukete gaur egun ere, euskara ikasten ari den batentzat sobera gaitz baita hitz-jate zenbait ulertzea. Edo, bestenaz, batu ofizialean egin behar da.

Sosa ateratzeko kantaldiak ere antolatzen zenituzten?

Gero, haur txapelketa izanen zena abiatu genuen, eskoletako haurren kantuak emanaz. Xabier Lete ere ekarri genuen Baionako antzokira. Eta Frantziako Iraultzaren kariatara bi kantaldi antolatu genituen hemengo kantari guztiekin: bat Saran eta bestea Urruñako elizan, bostehun lagun baziren.

Zer informazio mota ateratzen zenuten? Poliziarekin bazenuten harremanik?

Ez genuen sekula ukan poliziarengandik informaziorik. Nik uste antzarak ferratzera igorri gintuztela deitzen hasi ginen, eta harrezkero fini! Auzitegietara joaten ginen, baina euskal dosierrak jarraitza soilik.

Eta euskal munduko istorioak zirenean?

Erranen dizut alde guztiak mintzarazten genituela. Oroit naiz Seaskan barne kalapitak izan zirenean bi aldeei hitza eman geniola. Batzuek ez zuten hori preziatu. Beste behin, hauteskunde kantonaletan, Jean-Michel Colo aurkeztu zen Uztaritzen, eta parean zuena ez zen abertzalea. Beraz, abertzale batzuek Coloren kontra egin nahi zuten beste hautagaia sustengatuz, eta beste abertzale batzuek, ez. Erazarri ninduten bien oharrak irakurri nituelako, eta ez batzuen bakarrik. Giroa aski bortitza zen, bai.

Eskuin muturrari ez zaio inoiz hitzik eman Gure Irratian?

Ez. Gehiengoaren iritzia zen hori. Nik ez nuen hala pentsatzen, baina errespetatu nuen gehiengoaren iritzia. Noizbait egin izan bagenu, *sanandreseko* ezker abertzaleko guztiak hor izanen genituen irratiaren aitzinean [irriz].

Ezker abertzalearen zatiketa biziki gogorra izan zen Ipar Euskal Herrian. Nola bizi izan zenuten hori irratian?

Nik irratia utzi ondoren izan zen zatiketa bortitz hori, HBren eta garaiko ABren artean. Hala ere, buruan dut Piarres Xarritonek EAren izenean hitzartze bat egin zuela Hendaian, Abertzaleen Egun batean, eta ondoan ziren Patxa mugimenduko gazteak berari oihu eta oihu. Nik dena grabatzen nuen, batena eta besteena, eta gero irratian pasa. Euskaraz mintzatzen ziren oro mintzarazten genituen, hori zen gure filosofia.

90eko hamarkadatik landa euskal irratiaren arteko harremana handitzen duzue, eta federazio bat sortzeko ideia ere pizten da.

Ni ez nintzen ados, eta Gure Irratian ere ez ginen ados gehienak. Gure arazoa zen Erramun Baxok. Gure Irratiko bulegoko kide zen, baina Pizkundera mugimenduko presidente ere, eta bazuen hirugarren ardura bat ere Euskal Kultur Erakundean. Irratiaren izenean mintzatzen zen egitura guztietan, baina gurekin kontsultatu gabe. Ez genekien zer erraten zuen. Bazekien zer pentsatzen genuen irratiaren arteko kolaborazio horretaz, baina, hala ere, aitzina egin zuen eta erabaki batzuk hartu ziren gurekin mintzatu gabe, eta hori ez genuen batere preziatu.

Euskal Irratiak federazioa sortzearen kontra zinen, beraz?

Egiteko manera ez nuen maitatu. Sartzera behartuak sentitu ginen; alta, baziren baldintza batzuk guretzat ez zirenak onargarriak, eta horietako inportanteena zen euskararena.

Irulegiko Irratian eta Xiberoko Botzan frantsesa ere sartzen baitzuten tarteka, eta hori enetzat onartezina zen. Baina argi da nolabaiteko harreman eta kolaborazioa behar zela hiru irratiaren artean. Garaian gertatu izan zen irratietak bi kazetari joatea pilota partida berera, bat Gure Irratikoa

eta bestea Irulegiko Irratikoa. Hori ez zen normala; beraz, behar zen zerbait antolatu gure artean.

«Euskararen estimua ekarri dute irratiek. Irrati tresna modernoan egun osoan aritzeak prestigioa eman zion. Euskara orain errespetatua da jendeen aitzinean, eta hori irratiei esker izan da»

Irratiek zer ekarri diote euskarari Ipar Euskal Herrian?

Lehenik, euskararen estimua. Irrati tresna modernoan egun osoan aritzeak prestigioa eman zion. Euskara orain errespetatua da jendeen aitzinean, eta hori irratiei esker izan da. Irra-

tia egun guztietan martxan dela ikusi dute entzuleek, eta gai oroz ari dela euskaraz. Lekuko berrien garrantzia eta entzuleengandik hurbil diren informazioak izan dira betiko zutabeak.

Zure apaiz funtzioak eta kazetari lanak ez zuten talkarik egiten?

Ez dut uste. Irratian ezin nuen sobera alderdikeria izan. Gure xedea zen irratia denentzat izan behar zuela, eta jende hori behar genuela atxiki gurekin.

Baina garai gogorrak ziren politikoki ere, atentatuak eta beste.

GALen atentatu ondorengo omenaldi ia guztietan izan nintzen irratiarako grabaketak egiten. Jendea hunkitua zen atentatu horiekin. Omenaldiak pasatzen genituen irratiaren eta, horien ondoan, Maitia sozialista eta Intxauspe eskuindarra ere bai.

JENDARTEAREN BILAKAERA IPAR EUSKAL HERRIAN

90eko hamarkadatik gaur egunera arte, zertan izan da aldaketa nabarmenena Ipar Euskal Herriko gizartean?

Enetzat aldaketa handiena euskal munduan izan da. Duela hogeitaz urte, ez genuen asmatuko lurraldetasunarenarekin gertatu dena, hots, sortu den Euskal Hirigune Elkargoa. Departamendua galdegiten genuen, bai, baina bagenekien ez genuela lortuko. Orain, denak ados dira Elkargoarekin. Hastapenean sozialista eta komunista batzuk kontra ziren, baina, egun, denak barne sartu dira, eskuina eta ezkerra. Hori ikaragarriko aldaketa da. Euskal munduaz eta euskal kulturaz duten ikuspegia aldatu da.

Ikastolen sortzea ere ikaragarria izan da. Garai hartan hirurehun ikasle zituzten orotara, gaur egun lau milako bat badira. Gela elebidunik edo murgiltzerik ez zen publikoan eta katolikoan. Gaur egun badira hamabost mila haur edo elebidunean, edo ikastolan, edo murgiltze sisteman direnak... Izugarrizkoa da hori. Mintzatzea, gero, beste afera bat da.

Non da arazoa? Ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea handia da.

Ene ustez, bidegileek, liderrek, ez badute egiten, gaitz da besteek egitea. Egina dut ikerketa bat Ipar Euskal Herrian maiztasun batekin argitaratzen diren agerkariez. Baiona ingurukoak dira. Badakizu zenbat artikulu argitaratzen diren euskaraz? Ehuneko zortzi. *Maiatz* aldizkaria da bakarra euskaraz ari dena. Errate baterako, Euskal Museoko agerkarian ez da fitsik euskaraz! Ados naiz frantsesez atera behar direla artikulu batzuk, baina dena frantsesez? Hor ikusten dut moztura, teoria eta praktikaren artean.

Abertzaletasunarentzat euskararen gaia lehentasunezkoa izan al da Ipar Euskal Herrian?

Ez dut uste. Batzuek urratsak egin dituzte, baina kontzientzia eza da arazoa. Errazagoa da frantsesez mintzatzea, eskolan frantsesez aritu zarenean, edo unibertsitatean. Liburu gehienak frantsesez dira... Indar bat egin behar dute euskarara lerratzeko, eta ez dute egiten, eta ez dute sentitzen beharra badela.

Euskararik gabeko Euskal Herri bat irudikatzen duzu?

Ez nuke nahi! Baina posible da. Irlandaren kasua hor dugu. Independente dira; alta, zenbatek dakite irlandera? Euskarak iraun dezan, euskaraz dakitenek mintzatu behar dute. Ez da beste sekreturik.

Eskoletan euskarak derrigorrezkoa izan beharko luke edo borondatezkoa, gaur egun moduan?

Ikusirik murgiltzea eta elebitasuna zein abiadura azkarrean doazen, urte gutxi barru minoria izanen dira frantsesez soilik ikasi nahi duten ikasleak. Egia da elebitasunarekin euskara ez dutela ongi ikasten, etxean ez badute egiten bederen, baina hori hobea deusik baino! Frantziak ez digu deus emanen dohainik. Beti beharko da pusa eta pusa!

Eskumen gehiago eta botere gehiago nahi bada eskuratu, zein da estrategia Frantziako Estatuaren parean?

Nola egin dugu orain arte? Bide horretan segitu behar da, eta ez utzi gure burua besteek jan dezaten.

Hala ere, abertzaletasunak aitzina egin du herrietan. Auzapez abertzaleak badira, eta Euskal Hirigune Elkargoko presidenteordeetan abertzaleak badira ere... Zer da eskas? Zerk huts egiten du kontzientzia hartze horretan?

Norbaitek zirikatzea, beharbada... So egin ezazu. Gure garaian, irratan, beti entseatzen ginen euskaldunak atzematen hauteskunde garaietan. Hautagaiak ez bazekien euskaraz, beste norbait igortzeko eskatzen genien. Gaur egun, hautagaiak frantsesez hitz egiten entzuten ditut gure irratieta. Gehiago zirikatu behar dira. Sobera trankil dute kontzientzia.

Zer aldaketa ekarri du Elkargoaren sortzeak?

Iraultza izan da! Duela hogeit hamar urte ez genuke sekula pentsatuko lurraldetasuna gordetzen duen instituziorik ukanen genukeenik. Jean Rene Etxegarai Euskal Herriko *lehendakari* izanen zenik ez genuke nehoiz pentsatuko. Zerbait frantsesa baldin bada, hori departamendua da, bere prefet eta guzti, Parisek izendatua. Abertzaleen beldur zirenez –ez dakit zeren beldur, biziki ahul baikin...–, beti ukatu izan dute departamenduaren gaia, eta orain, berriz, ia denak ados dira, salbu komunista bakar batzuk. Pentsa! Macronen alderdiak ere, *Renaissance*-k, Ipar Euskal Herria eta Biarnoa aparte eman ditu bere organigraman. Hori pentsaezina zen duela hogeit hamar urte.

Elkargoaren sortzeak nola eragin du jendearen iruditerian?

Euskal Herria badela ikusten dute orain, hiru probintziak elkarrekin marrazten dira. Duela gutxira arte Euskal Herria bazenik ere ez zekiten ainitzek! *Pyrénées Atlantiques* zen beren erreferentzia, edo *Sud-Ouest*. Ni haurra nintzenean, ez nekien Luzaidetik hara bazenik Euskal Herririk. Mugan zen bukatzen Euskal Herria. Jende ainitzentzat bi mundu arrunt ezberdinak ziren Hegoaldea eta Iparraldea; gainera, ETaren atentatuak hor ziren, eta saltsa, oraino, gehiago nahasten zen. ETak armak utzi izana, enetzat, bihurgune inportantea izan da. Hor aldatu da jendearen mentalitatea Euskal Herriarekiko. Orain mugaz gaindiko harremanetan lan asko egiten dute batera: Garazi eta Luzaideko suhiltzaileak elkarrekin ari dira lanean, edo, AHTren inguruan, Baiona eta Irungo auzapezak elkarrekin ados eman dira. Naturalki harremanak gehitzen joanen dira ondoko urteetan.

Abertzaletasunak historikoki autonomia edo independentzia eskatu izan ditu Ipar Euskal Herrian...

Beste zerbait erdietsi ote zitekeen? Ez dut uste. Jadanik egin dugun bidea ikaragarria dela atzematen dut. Ezin asmatua duela hamabost urte. Urrunetik ere ez genuen ikusten! Izu-garri fite aldatu dira gauzak hemen.

Euskal Herria bere osotasunean batuko duen instituziorik ikusiko dugu geroan?

Izanen da zerbait elkarrekin. Ez gara orain Hegoaldea bezala bilakatuko, kulturalki eta pentsatzeko manera ezberdinak ditugulako. Eta alderantziz ere ez dira gutaratuko, baina elkarrekin ariko gara fite.

Politikak edo kulturak du Euskal Herria batuko eta irau-naraziko?

Kulturak! Lehenik behar da pentsatu, eta gero helduko da praktikara eramateko unea politikaren bidez.

Kolonizatuak gaude kultura frantses eta espainolaren eraginez?

Bistan dena. So egin ezazu Hegoaldeko mentalitatea eta gu-rea... Gu frantsesek tindatuak gara, eta haiek espainol kutsua dute.

Nola askatu lotura horretatik?

Ari izanez... Euskararen aldetik erradikala izanez, eta ez gara gaur egun. Zenbatek dakite euskara, baina ez dira mintzatzen?

Zein izan dira zu markatu zaituzten erreferenteak, eta Ipar Euskal Herria markatu dutenak?

Lehena Piarres Xarriton. Euskal munduan sartu nintzen berari esker, eta gaur egun ezagutzen dugun Euskal Herriaren zati bat horrelakoa da berari esker. Ekonomia arloan inportantea izan zen Jean Errekart, barnealdeko laborantza munduarentzat. Politikan, Mixel Labegerie, euskal nortasuna pizten lagundu zuelako. Kulturean, Piarres Lartzabal, abertzale ez ziren ainitz abertzaletu zirelako haren antzerkiei esker.

Laurek lagundu zuten jendeen mentalitatea aldatzen. Ba-dira ere gehiago: Piarres Lafitte, Marc Legasse, Telesforo Monzon, Mixel Berrokoirigoin...

Ekologiaren eta alternatiben inguruan mugimendu interesgarriak sortu dira Ipar Euskal Herrian. Zu, hala ere, ezkor zara ekologiaren eta garapenaren norabideaz.

Garapena gelditu liburua idatzia dut. Ez dakit nora abian garen... Badakigu non gauden eta ikusten dugu zer dugun, baina zer egiten dugu? Zer aldatzen dugu gure bizian garapen hori geldiarazteko? Horretan da arazoa. Gure politikariek ez dute deus eginen, zeren ondo-ko bozetan ez dira berriro aterako; beraz, kasu ematen dute. Intelektualki denak ados dira, euskararekin bezala, baina praktikan gibelera goazela iruditzen zait.

Zergatik gibelera?

Ingurumena hiltzen ari da, eta berrogeita hamar urte barru bizirik izanen ote da gure haur ttipientzat? Hori behar da ikusi... Oraindik ez dut ulertzen gobernuak nolaz finantziatu duen petrolioia Ukrainako krisi garaian. Nik ez nuen eginen! Petrolioia garestitzen bada, jendeak kasu eginen die erregaiei; baina, gobernuak pagatzen badu, ondorioa zero da!

«Badakigu non gauden eta ikusten dugu zer dugun, baina zer egiten dugu? Zer aldatzen dugu gure bizian garapen hori geldiarazteko? Ingurumena hiltzen ari da, eta berrogeita hamar urte barru bizirik izanen ote da gure haur ttipientzat?»

EKONOMIA SOLAS

Ipar Euskal Herrian kooperatiben inguruko mugimendua piztu zen 80ko hamarkadaren hondarrean.

Bai, hemengo gazteak Parisera joaten zirela lan bila konturatu ziren abertzale batzuk. Gainera, formatuak ziren eta ainitz ez ziren itzultzen berriro. Lanpostuak hemen sortu behar zirela

zioten, dirua hemen geldi zedin. Arrasateko kooperatibekin elkarlana abiatu zen eta Copelec izan zen hemen sortu zen lehen kooperatiba. Hiriburun sortu zuen Ramuntxo Camblongek. Gero, eskuin-ezker beste batzuk sortu ziren.

Arrasateko taldearekin lehen harremanak nola hasi ziren?

Aspaldiko kontua da. Ene ustez, Euskaldun Gazteriaok Arrasaten izanak ziren kooperatibak ikusten eta harremanak egiten bertako buruekin, helburua zelarrik hemen sortzea kooperatibak. Gureak mueble kooperatiba sortu zen 1986an Arrosan, baina aitzinagotik bazen beste proiektu bat Senperen. Uste dut txori hazkuntza zela xedea, baina Frantziako Gobernuak oztopoak jartzen zituen, atzerriko dirua zela erranez, eta ez zela legezkoa. Kalapita zenbait izan ziren, eta ondoko herriko bozetan, auzapez batzuk boikotatu nahi izan zituzten, bozka mahaiak ez antolatuz, protesta gisara. Funtsean, Ipar Euskal Herrian industria sar zedin nahi zen lanpostuak sortzeko hemengo gazteentzat, eta horretarako ezinbestekoa zen Hegoaldeko inbertsioa. Alta, gero ez du ukan segidarik.

Zergatik ez zuen segidarik izan kolaborazio horrek?

Ez baita hain ximple. Bada diruaren afera, estatu batetik bestera eramateko arazo legalarena. Bestalde, Hegoaldean den industria mentalitatea ez da Iparraldean. Hemen laborari mentalitatea arrunt sartua da. Hala ere, urratsak egin dira hemen berean lantegiak sortzeko, eta horretarako sortu ziren Hemen eta Herrikoa bezalako egiturak. Jendearen diru ekarpenekin enpresak sortu dira, eta ekimen interesgarriak aitzinatu dira, abertzaleei esker, funtsean.

Baionako Merkataritza eta Industria Ganberak deus gutxi ekarri diola Ipar Euskal Herriko hainbat eskualderi diozu, funtsean barnealdeari.

Ainitzez gehiago ekarri dute Hemen eta Herrikoa egiturek, herritarrek sorturikoak dira, gainera. Baionako Merkataritza eta Industria Ganberari ez zitzaion axola Ipar Euskal Herriko

barnealdea, Nafarroa Beherea eta Zuberoaz ari naiz. Ene koinatak, Marie-Andréé Arbelbidek, nahi izan zuen lantegi bat sortu Heletan, eta lur bat ere bazuen. Merkataritza Ganberara jo zuen, eta galdegin zioten ea zertara behar zuen Heletako zoko galdu hartara joan! Haiek Baionan berean emanen ziotela beste gunee bat... Ez zuten axola izpirik barnealdeaz.

Lapurdiko BAB eskualdean metatu da industria eta ekonomia guztia. Zergatik ez da hedatu beste guneetara?

Alde batetik, barnealde honetan industria kulturarik ez genuen. Bestalde, Baionako Merkataritza eta Industria Ganberak Baiona inguruan sartu zituen bere indar guztiak, hor sorzitezen lantegiak, Baiona zentro gisara harturik. Barnealdeak bere gazteak Ameriketara igorri ditu urte ainitzetan. Ni ttipia nintzenean, hilabetero-hilabetero hogeit bat gazte joaten ziren Ameriketara hegazkinez. Gogoan dut, Bigarren Mundu Gerlatik landa, amerikarrak nola jiten ziren Heletara, beren autoetan –autorik ez zen garai hartan–, beren atorra koloretseuekin eta alimaleko gerrikoekin. Bazuten prestigio bat jende horiek, eta hemengo herritarrek nahi zituzten hara eramane, han lan egin zezaten. Bidaia ere ordaindua zuten. Ene aitak ere nahi zuen ene anaia joan zedin Ameriketara, amak ez zuen nahi. Eta ez zen joan. Baina normala hori zen. Aita Ameriketara izana zen, eta bere lau anaia, eta bi arreba ere. Ekonomia Ameriketara edo Parisen zen euskaldunentzat urte luzez.

Hemen eta Herrikoa bezalako egiturek zer eman diote hemengo ekonomiarik?

Alde batetik, emigrazioaren fenomenoari kontra egiteko sortu ziren. Hemen lanpostuak sortzeko, lantegiak egin behar ziren, eta herritarrek emandako sosarekin hainbat sortu dira. Eta, bestalde, ez zitzaie ongi iruditzen hemen bildu dirua Lyonen edo Bordelen balia zezaten bankuek, enpresak sortzeko. Hemengo dirua hemen behar zela inbertitu erraten zen, lanpostuak bertakoentzat sorzitezen. Gaur egunean egoera

aldatu da. Herrikoak lanpostuak sortzen ditu kanpotik jiten diren langileentzat, urtero bostehun pertsona etortzen baitira bizitzera Baiona inguru honetara.

Laborantza ere hurbiletik jarraitu duzu. Bihurgune eta aldaketa garrantzitsuak izan dira azken berrogeita hamar urteetan...

Enetzat bi gertakari izan dira inportanteenak: ELB laborari sindikatuaren sorrera, eta, bestalde, Jean Errekartek sortu zuen Lur Berri agrokooperatiba. Laborantza eskolak ere aipatzekoak dira. Elizak ere zerikusi handia ukan zuen; izan ere, laborantza lizeo guztiak, Maule, Senpere, Hazparne edo

Donibane Garazikoak, eliza-
renak dira. Abertzale eta eus-
kaltzaleak izan dira formakun-
tza eskola horien bultzatzaile.
Xarritonek ere ikaragarriko
lana egin zuen Hazparneko
eskola teknikoaren sorreran.
Hazparneko kolegioko buru
zela, apezpikuak eskola tekni-
ko bat sortzeko manua eman
zion, eta berak ez zekienetz tu-
tik horretaz, ezagutzen zituen
irakasleak kontratatu zituen:
Txillardegi, Benito del Valle...
Errefuxiatuak horrela sartu
ziren hemengo eskoletan ira-

«Ipar eta Hego Euskal
Herria lehen baino
hurbilago gaude, dudarik
gabe. Hegoaldean
erraten zidaten: 'Zu
frantsesa zara', euskaraz
erraten zidaten. Eta nik:
'Ez, ni euskalduna'. Eta
haiek: 'Bai, Frantziako
euskalduna!'

kasle. Baina, ETAkoak zirenez, berehala hasi ziren arazoak... Kanporatu zituzten, eta Xarriton kanpo eman.

Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herria, hurbilago edo urrunago dira gaur egun?

Gaur egun lehen baino hurbilago gaude, dudarik gabe. Hegoaldean erraten zidaten: «Zu frantsesa zara», euskaraz erraten zidaten. Eta nik: «Ez, ni euskalduna». Eta haiek: «Bai,

Frantziako euskalduna!». Hori abertzaleek e! Gaur egun, bai jende artean bai politikarien artean ere harreman gehiago badela uste dut. So egizu AHT trenaren istorio horretan, Irun, Baiona eta Bordeleko auzapezek elkarrekin sinatu dutela gutun bat. Hori lehen pentsaezina zen. Lehen jendea Iparraldera jiten zen hondartzara edo Carrefourrera... Hori orain aldatu da.

Hego Euskal Herriko instituzio eta gobernuetatik behar adina egin da Ipar Euskal Herrira hurbiltzeko? Euzko Alderdi Jeltzaleak aski egin du, gobernuan baita urte luzetan?

Historikoki EAJ-PNBk errefuxiatu politiko estatusa ukan du hemen, 1936ko gerlatik iheska hemen gorde baitziren ainitz. Baina errefuxiatuek ezin zuten politikarik egin; hori zuten buruetan sartua eta horren beldur ziren, kanporatuak izanzen zirela. Hori izan zen hastapeneko arrazoa. Eta gero ezkerreko abertzaleek indarra hartu dute eta, hara... PNBkoak ernatu direnerako beranduegi zen, lekua hartua baitzen...

Euzko Alderdi Jeltzalea zergatik ez da bilakatu erreferentziatzko alderdi politiko bat hemen? Kristau demokrata bozkatzaileen artean?

Hori da galdera... Mixel Labegeriek erdietsi zuen. Euskaltzaletasuna bere kantuen bidez hedatu zuen. Nornahik kantatzen zituen bere kantuak: «Gu gira Euskadiko gazteri berria...». Batzuek ez zuten pentsatzen hala zenik, baina erratearen bortxaz, ainitzek hala zela pentsatu zuten [irriz]. Gero abertzaletasunetik urrundu zen, hautua egina baitzuen politikan jarraitzeko. Abertzaleekin sobera agertzen bazen, ez zen pasako ondoko bozetan, eta fini bere ibilbide politiko. Herriko mediku ere bazen, eta hor ere arazoak ukanen zituen bere pazienteak atxikitzeko, abertzale gisara aurkezten bazen. Hala zen orduko errealitatea.

Abertzaleekiko traizioa izan zen Labegerierena?

Beharraren bortxaz egin zuen. Edo politika edo bere lanpostua. Gero diputatu izatera heldu zen eta medikuntza uzten

joan zen, baina argi dena da politikan sartu bazen, abertzale garbi bezala ez zuela iraunen, orduan.

Etxebizitzaren arazoa da Ipar Euskal Herriko arazo nagusia. Zer ikuspegi duzu horretaz?

Bada turismoaren gaia, Iparraldea erakargarri gisara saldua baita Frantzia osoan. Bigarren bizitegi ainitz erosten dituzte, eta bada ere Airbnb bezalako plataformak zenbat emendatu diren. Hala ere, arazo handiena urtero Baionara heltzen diren bostehun pertsona berriena da. Hemen lana badenez, jendea etortzen da, eta etxebizitzak behar dituzte, bai ala bai. Gaur egun auzapez batek errepikatu nahi badu karguan, etxebizitzak egin behar ditu bere herrian, lantegiren bat erakarri, herriko etxea berritu, eta ezker pareta arramoldatu.

Ipar Euskal Herrira urtero etortzen diren bizizale berriena da etxebizitzaren muineko arazoa?

Lanpostu gehiago ez sortzea da konponbidea. Horrela ez da jende gehiago jinen, eta ez da gehiago eraiki beharko ere.

Ezin diozu jendeari debekatu hona etortzea...

Lanik ez badute, ez dira jinen. Beraz, hori da bidea. Gure buruetan sartu behar dugu orain ez dela lekurik hainbeste jenderentzat. Ezin da gehiago eraiki hemen. Ziburun, Miarrizten edo Donibane Lohizunen etxebizitza ia erdiak bigarren bizitegiak dira!

Beraz ez zara ados Ipar Euskal Herria segi dadin handitzen?

Garapen ekonomiko mota honen kontra naiz. Ez dugu gehiago hazi behar, ene ustez; bestenaz, dena betoiez beteko dugu. Hemen langabezia estrukturala baino ez dugu, ehuneko zortzi ingurukoa, ez da emendatzen portzentajetan, baina zenbaki osotan bai. Garapena gure kaltetan doa.

Ipar Euskal Herriak ez du unibertsitate berezkorik, Pauekoari edo Bordelekoari lotua da. Ez da beharrik sentitu?

Nehork ez du pentsatu unibertsitaterik izaten ahal zenik hemen, eta abertzaleak hasi direnean eskatzen, begi txarrez hartu dituzte. Halere, gauzak aldatu dira azken urteetan, eta orain badira hirugarren mailako unibertsitate teknikoak eta goi mailakoak. Ene ustez, nahikeria garbirik ez da izan azken urteak arte.

Jean Mixel Larrasket zenak lan handia egin zuen Iparraldeko ikasleak Hegoaldeko unibertsitateetara joan zitezen.

Bai, berak bai, bakarrenetarikoa izan zen. Ez dut ulertzen nolaz ez duten adar bat irekitzen hemen Arrasate, Deustu edo Euskal Herriko unibertsitate publikoak. Orain arte ez dute fitsik egin, eta hor ikusten da mugaren eragina. Egia da oztupoak badirela, diplomen balioztatzeko eta beste zenbait traba, baina nahikeria eskasa ikusten dut. Unibertsitaterik ez bada, koadroak kanpotik jiten dira hemengo lantegietara; gustura jakin nahiko nuke zenbat diren hemen sortu edo ikasi duten erdi mailako arduradunak, Iparraldeko lantegi handietan ari direnak... Ikaragarriko gibelapena dugu arlo honetan.

«Garapen ekonomiko mota honen kontra naiz. Ez dugu gehiago hazi behar, ene ustez; bestenaz, dena betoiez beteko dugu. Garapena gure kaltetan doa»

ELIZAREN KRISIAZ

Elizaz ainitz idatzi duzu. Baduzu ere liburu polemiko bat: *Oilarra kukuruka*. Elizaren norabideaz gogoeta egiten duzu. Zergatik elizak bildu du horrelako zafraldia gure artean?

Ongi diozu, gure artean. Eliza krisian baita Mendebaldean, baina ez beste tokietan, eta hori ez dute entzun nahi ene

kritikariek. Peio Ospitalek begitartean hartua nau, eta badu hitz bat asmatua: *xiprimetria*. Zenbakiak hor dira, onerako eta txarrerako. Egia da eliza peko errekarantz doala hemen, baina Afrikan goraka doa, eta orokorki zenbakiak emendatzen ari dira. Zergatik? Non da gibelka ari? Herri aberatsetan. Jendeak bere esperantza diruan eta aurrerapenetan emana du, eta horrekin itsutuak gara.

Baina elizak ez du autokritikarik egin behar?

A bai!!! Eta apaizak ere elizaren parte baikara. Pedofilia istorioak, errate baterako. Bagenuen beharra gauza batzuk plazara ateratzeko, garbiketa egiteko, baina ez gara bakarrak! Eta beti eliza aipatzen dute. Hor duzu Roman Polanski zine zuzendaria. Bortxaketagatik auziperatua, baina Frantziak ez du estraditatzten. Frantziak euskaldunak soilik estraditatzten ditu... Zenbat telebistako mahai ingurutan ez da ibiltzen gizon hori, jakinean zer egin duen? Ez da normala, beraz, soilik elizaren kontra egitea gai honetan.

Baina elizaren jarrera gai honetan defendaezina da.

Bai, bai, ados naiz. Nik ene liburuan idatzi nuen, pedofiliaren gai hori oraindik atera ez zenean, isiltasunaren kontra nintzela (*segeretukeria* hitza sortu dut), baina besteak ere aipatu behar zirela. Bestenaz, informazio partzial bat ari zara ematen.

Eliza ez al da gibel gelditzen ari moral gaietan? Homosexualen arteko ezkontzen aferean, abortua, eutanasia, erraterako? Ez ote du horrek jendea uxatu elizetatik?

Sexuaren gaia arras aldatu da ene gazte garaitik. Pilulak eta preserbatiboak jin direnean, gauzak aldatu dira. Ene gazte denboran mutiko bat eta neska bat ez ziren elkarrekin joaten, haurdun gelditzearen beldur baitzen neska, ez bekatu mortala zelako. Orain gauzak aldatu dira eta jendea libre sentitzen da. Ene ustez, beste muturrera pasa gara. Gazteak, orain, batekin eta bestearekin ibiltzen dira, eta ezkontzak galdu du bere erranahia.

Frantzian eztabaida bizia sortu du homosexualen arteko ezkontzak. Zu kontra zaude.

Enetzat ezkontza gizonen eta emazteen artekoa da. Homosexualena beste zerbait da. Ez dira gauza berak. Eta adopzioen aferetan ere, haur batek aita bat eta ama bat behar ditu.

Abortuaren gaian ere, eliza ez ote da ari gizartearen kontrako norabidean? Garaian pilularekin gertatu lez?

Abortua enetzat haur baten hiltzea da, eta horretan bat egiten dut aita sainduarekin. Baina ez dut inor kondenatuko abortatzeagatik. Bakoitzak badu bere iritzia.

Eta emazte bat jiten bazaizu erranez abortatu nahi duela?

Berak eginen du nahi duena. Bi kasu ezagutzen ditut, aski berdintsuak. Senarrak abortatu nahi eta emazteak ez. Bi kasuetan bikotea banatu da eta emazteek haurra atxiki dute. Hedabideetan ez da agertzen errealitate hori, baina hor dago. Komunikabide guztiek alde bateko ikusmoldea ematen badute, jendea ez da ausartzen tripan sentitzen dutena erratera.

Marc Aillet Baionako apezpiku integrista ote da Euskal Elizak behar duen buruzagia?

[Irriz] Ez! Bera jin aitzin, petizio bat egin genuen, eta bertan eskatzen genuen euskalduna izan zedin apezpikua. Elizarekin harremana zuten laikoekin batera egin genuen eskaria, eta mila eta bostehun sinadura inguru bildu genituen. Bazen nahikeria apezpikua euskalduna izan zedin, baina ez ziguten eman, eta, gainera, integrista bat igorri ziguten! Gero badu integrista izateko eskubidea, baina kakinarazten nau.

Aldiz, ez zenuen sinatu apezpikua izendatu ondoren hirurogei apezek idatzi zuten dokumentua Ailleten kontra. Zergatik?

Ez zidaten galdetu!

Zergatik zure ustez ez zizuten gomita luzatu?

Berriro diot, nehork ez zidala galdetu.

Bitxia da hori, ez?

Badut halako fama apezpikuaren laguna naizena.

Hala al da?

Ez. Ez naiz bere etsaia, baina ez nator bat berekin hainbat kontutan. Preseski, sinatzaileek aipatzen dituzten hainbate-

tan. Baina ez dut artikulurik idazten ene luma zorrotzarekin gauza horietaz, bai baitakit ez duela deusetarako balio, ez du deus aldatuko.

«Elizak ez du, gaur egun, garaian zuen indarririk, eta beste mundu batek du pisua. Gaur egun, bada mugimendu bat euskararen alde, elizarekin neholako zerikusirik ez duena. Mundu horrek du salbatuko euskara»

Zure artikuluetan denetarik irakur daiteke; aldiz, ados ez zauden apezpikuaren kontra deus?

Bera den bezalakoa da, eta ni, naizen bezalakoa. Ni ez nau aldatuko, eta nik ez dut bera aldatuko. Ez dut denbora galdu nahi horretan. Mezak latinez ematearen kontra naiz, edo emazteek komunionea

ematearen aldeko naiz. Apezpikuarekin ez nator bat horretan. Nik bultzatu dut neskatzak beretter izan daitezen, edo emazteek komunionea bana dezaten...

Badira Aillet apezpikuaren eliza eta beste eliza bat Ipar Euskal Herrian?

Badira apezetan alde eta kontra direnak, zalantzarik gabe. Eta kontra direnek lan egiten dute hor ez balitz bezala... Ezkerreko militante girstinoetan badira arrunt kontra direnak, baina oso militanteak dira. Gero, azkenean, bakoitzak nahi duena

egiten du. Nik nahi dudana egiten dut, eta nehork ez dit fitsik erratan, baina ez da deus kanbiatzen ahal. Hor da, eta hor da!

Elizak euskara baliatu al du bere interesentzat?

Bai, eta normala da, bere tresna gisara baliatu du. Zergatik ez dute berdin egin eskola publikoko irakasle eta errientek? XIX. mendean eskola elebidunak sortzeko proposamenak egin ziren, haurrek ez baitzekiten frantsesez. Hastapenean haurrek euskaraz hitz egin zezaketen, eta gero frantsesa sartzen zen, poliki-poliki. Ez zen onartua izan! Eta igorri zituzten errientek ez zekiten tutik euskaraz! Nola nahi duzu haur horiek frantsesa ongi ikastea, irakasleak ez baldin bazekien euskararik, beraiekin komunikatzeko?

Zuk idatzia da elizarik gabe euskara hila zatekeela.

Bai, baina gauzak kanbiatu dira. Elizak ez du, gaur egun, garaian zuen indarrik, eta beste mundu batek du pisua. Gaur egun, bada mugimendu bat euskararen alde, elizarekin neholako zerikusirik ez duena. Mundu horrek du salbatuko euskara: eskolak, irratia... Eta elizak lagundu baino ezingo du egin.

Mezak gero eta gutxiago dira euskaraz...

Euskal Herriko barnealdean beltzak dira euskaraz dakiten apezak gaur egun. Predikuak ez, baina gainontzekoa euskaraz aritzeko gai dira, Kanbon, Arrosan edo Heletan. Normala da. Ni Afrikara joan nintzenean hango hizkuntza ikasi nuen, eta horiek orain hemengoa.

Zenbat meza izaten da euskaraz gaur egun?

Hazparne aldean badira mezak euskaraz. Heletan, berriz, predikua kenduta ere bai. Beskoitzen elebidunak dira. Donibane Garazin denek badakite euskaraz.

Hogei urte barru apez euskaldunik izanen ote da?

Seminarioa hutsa zen, eta kanpotik jin dira apezgaiak. Orain badira andana bat, eta batzuek euskara ikasi dute, hemengoek

egin ez dutena! Ez dut ezagutu euskararik jakin ez eta seminarioan euskara ikasi duen hemengo apezgairik, nehor... Bai, Piarres Lafittek eta Xabier Iratzederrek ikasi zuten seminarioan. Ehun urteko historian bi horiek baino ez ditut ezagutu.

Zer iritzi duzu egungo aita sainduaz?

Iraun dezala ahal bezainbat! Ez baitakigu nolakoa izan den ondorengoa. Hau irekia da, eta elizak aita saindu irekiak behar ditu.

Zerk kezkatzen zaitu?

Gure munduak ez du irauten ahal gaur eguneko bizi erritmoarekin. Munduko aberastasunaren %90 %1en esku dago. Ezin du horrek iraun. Ginear baten urteko irabazia mila eurokoa da, eta gurea hogeita hamar milakoa, batez beste. Ezin du iraun desberdintasun horrek.

Meza ematen segitzen duzu?

Ikusten duzun aldare honetan egunero meza ematen dut, enetzat, ez baita nehor etortzen. Aste hondarrez, aldizka, Aiheran, Donamartirin, Donoztirin, Isturitzen edo Hazparden ematen dut.

60 urte predikuak ematen. Oroitzen zara azkenaz?

[Pentsaketak egiten ditu] Ez naiz oroitzen, baina aktualitatearekin lotzen ditut usu.

Beti ados dira zure predikuarekin eliztarrek?

Ez didate inoiz esan kontra zirenik. Ez ditut jendeak erasaten! Ez du balio. Erasaten badituzu, ez dute gehiago entzunen.

Elizak hutsik dira...

Bai, eta COVID pandemiaren ondoren, oraindik ere hutsago. Lehen eguberriaz gazteak etortzen ziren, baina, orain, bakar batzuk. Ehorzketetara eta ezteietara soilik etortzen dira gazteak.

BIOGRAFIK

***Bidegileak* atalean hainbat jenderen biografiak bildu eta idatzi dituzu. Erraterako, Piarres Lafitterena. Nolakoa zen bera?**

Ez nuen pertsonalki sobera ezagutu, ni ez bainintzen izan Uztaritzeko seminarioan. Hala ere, errango nuke Euskal Herrian galdurik zebilen atzerritar bat zela. Ezberdina zen. Ez zen beste apezak bezalakoa. Irekia zen, aurrerakoia bere garairako. Euskarari atxikia, sindikatuen aldekoa, eta aber-tzalea. Zenbat apez abertzale izanen ziren ba? Gutxi.

Pete Agereberrik idatzi liburu baten itzulpena egin zenuen. Nor zen bera?

Xiberotarra zen. Ameriketara joan zen urre bila. Han zaldizain, artzain, eta, azkenean, urrea atzeman zuen. Ene aita eta osaba Ameriketara izanak baitziren, nik ere lurralde hura ezagutu behar nuela pentsatu nuen. Lehengusu batzuek beren etxean aterpetu ninduten, eta han atzeman nuen Pete Agereberriren liburua, ingelesez. Euskaratu behar nuela pentsatu nuen, sekulako istorioak baitzituen.

Maixan Minaberri ezagutu zenuen, eta berari buruz ere idatzi.

Irratian izan zen gurekin. Aparteko emaztea zen bera. Aldudeko zoko hartarik heldu zen Baionara, eta izpiritu biziki irekikoa zen. Errientsa gisara Hendaian aritu zen, eta haurrentzat sekulako lana egin zuen euskaraz. Liburutxo bat idatzi nuen berari buruz.

«Maixan Minaberri
irratian izan zen gurekin.
Aparteko emaztea zen
bera. Aldudeko zoko
hartarik heldu zen
Baionara, eta izpiritu
biziki irekikoa zen.
Liburutxo bat idatzi
nuen berari buruz»

Zer erran Pierre Topet *Etxahun*-i buruz? Ongi aztertu zenuen pertsonaia.

Langabezian nintzela, Jean Haritxelharrek Etxahuni buruz idatzi zuen tesia irakurtzeko denbora hartu nuen. Ikaragarri luzea eta sakona zen lana. Baina nork irakurtzen ditu horrelako liburuak? Labur egin behar zela pentsatu nuen, eta euskaraz, frantsesez baitzen Haritxelharren tesia. Moldatu nuen eta gauza batzuk gehitu.

Nolakoa zen Etxahun?

Gizon arraroa eta mindua zen. Tripako min ainitzeko gizona. Arazo ainitz ukan zituen ezker-eskuin, maitasun istorio eta abar... Konplexua zen.

Ez da hain ezaguna bere bizia, halere.

Ez dut uste. Piarres Lartzabalek Etxahunez idatzi antzerki lan bat ikusi nuen Heletan, eta horrela ezagutu nuen Etxahun. Pierre Landheren liburua eta Jean Haritxelharren tesia irakurri ondoren, gehiago ezagutu dut. Haren heriotzaren men-deurrenean artikulu bat idatzi nuen *Herria*-n, nehork ez baitzuen fitsik idazten erranez bazela urtemuga hori. Haritxelharrek idatzi zuen ere, ez zuela merezi egun hori aipatzea ere. Arraileria zen, probokazio hutsa, ea norbaitek ihardukitzen zion.

Eta izan zen erantzunik?

Beste xiberotar batek, Epherre, idatzi zuen Etxahunen alde... Ondotik heldu ziren pastoral bat, eta disko bat ere Etxahunen kanteekin...

Piarres Lartzabal ezagutu duzu?

Gutxi. Bere lana eta artikuluak irakurri izan ditut. Gogorrak idazten zituen *Herria*-n Aljeriako gerlaren kontra, eta auzipe-ratua ere izan zen horregatik. Baita Lafitte bera ere artikulu horiengatik. Frantzia gutxi ziren gerlaren kontra idazten zutenak! Pentsa ezazu, Aljerian ginela, *La Vie Catholique*

kazeta hartzen genuen, eta Frantziako Gobernuak debekatu zuen torturak aipatzen ziren artikulu bat argitaratu zutelako.

Jeanpierre Arbelbide zure familiakoaz ere idatzi duzu.

Ene aitatziren otto zen. Apeztu ondoren bikario izan zen misionistetan, eta konturatu zen serora ainitz bazela, baina fraide gutxi gure eskualdean. Izan ere, fraide-etxeetan frantsesa jakin behar zen, eta gure laborari munduak ez zekienez frantsesik... Horrela otu zitzaion euskaldun fraideentzat etxe bat egitea, eta hortik jin zen Belokeko fraide-etxearen ideia. Bere inguruko apezekin mintzatu zen, erdi isilka; bazituen inguruan frantziskotar eta jesuita egin nahi zutenak, eta hiruren artean deliberatu zuten Belokeko komentu etxea martxan jartzea. Donibane Garaziko Maiorga kolegioa ere sortu zuen, baita Maulekoa ere. Maulen den Agerria jauregia ere erosi zuen eta komentu bat sortu bertan. Baina garai-ko apezpikuari ez zitzaion sobera gustatzen ondoan izatea ekimen handiko gizon bat, eta Ameriketako euskaldunekin misionista lana egiten hasi zelarik, bere kargu guztiak kendu zizkion.

XIX. mende hasieran *txuri eta gorrien* arteko lehia agerikoa zen: errepublikaren aldekoak gorriak eta elizaren aldekoak txuriak. Testuinguru horretan bizi izan zen Juan Martin Hiribarren.

Azkaingoa zen, eta Bardozen egona zen apaiz. Bitxia bada ere, Hiribarren errepublikaren aldeko apeza zen, gorria, beraz, eta Agosti Xahoren adiskidea. Biak elkarrekin Iruñeko bestetara zaldi karrozan joan ziren. Hiru egun behar izan zituzten heltzeko. Harreman estua izan zuten.

Maite Barnetxe Ipar Euskal Herriko telebistaren aitzindaria ere ongi ezagutu duzu eta bere biografia idatzi.

Radio Côte Basque irratian hasi zen. Ondoren, telebistarako hainbat erreportaje egin zituen, eta sekulako artxiboa utzi

«Goxoan bizi naiz,
arazo metafisikorik
gabe. Lo lasai egiten
dut. Gibelera so eginez,
baikortasunarekin
ikusten dut ene bizia,
eta uros izan naiz, eta
hala naiz oraino»

zigun, garaiko Ipar Euskal Herria ulertzeko biziki baliagarria dena.

Zuk errana da belaunaldi oso baten pentsamoldea *Eskualduna* kazetak moldatu zuela.

Manex Hiriart-Urruti zuzendariak euskal iritzi publikoa bideratu zuen berrogei urtez, bederen, Iparralde barnealdean.

Eskuindarra zen. *Eskualduna* kazeta herri guztietara hedatzen zuen, eta berak du markatu jendearen iritzia urte luzez. Errepublikaren kontrakoa, eta ontsa eskuindarra! Jean Ibarnegarairen hurbilekoa. Baina Garazi aldean denak ziren Ibarnegarairen aldekoak, ez baitzen besterik. Ene aita ere hala zen. Gero Pétainen aldekoa zelako auziperatu zuten Ibarnegarai, eta beste.

Eskuin muturrekoa zela errango zenuke.

Gaitz da erratea eskuin muturrekoa zenez garai hartan. Eskuindarra bai, baina denak hala ziren garai hartan hemen. Ez zen ezkerrekorik, salbu Baiona aldean. Euskarari ainitz ekarri zion, baina ideien aldetik... biziki eskuindarra zen.

Alemanekin kolaboratzeagatik hetsi zuten *Eskualduna* kazeta.

Arotzarena izturiztarra zen garai horretan zuzendari. Kolaboratzaile izateagatik hetsi zuten kazeta, eta Lafittek bere baitarik erabaki zuen *Herria* sortzea, *Eskualduna*-k utzi hutsunea bete asmoz. Baina *Herria*-k ideologikoki ez zuen zerikusirik *Eskualduna*-rekin. Momentu batean Lafitteri aurpegiratu zioten sobera ezkerrekoa zela, ez gaur egunean ezkerria ulertzen dugun gisan. Baina egia da ideia berritzaileak zituela.

**Heldu den urtean laurogeita hamar urte beteko dituzu.
Gibelera so eginez, zer ikusten duzu?**

Goxoan bizi naiz, arazo metafisikorik gabe. Lo lasai egiten dut. Gibelera so eginez, baikortasunarekin ikusten dut ene bizia, eta uros izan naiz, eta hala naiz oraino.

Zein da sekretua uros izateko?

Ez sobera gormanta izatea. Amets handirik ez egitea. 🍷

Xipri Arbelbideren liburuak

Narratiba

Afrikako 'salbaien' zuhurtzia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1983 (Irun Hiria saria, 1982).

Gerlako tresna bizidunak: Algeriaz, Elkar, 1986 (Xalbador saria, 1986).

Barrabasen Ebanjelioa, Etor-Ostoa, 2006.

Requiem, Elkar, 2008.

Saiakerak eta kronikak

Les Baoulés d'après leurs dictons et proverbes, CEDA, 1975. Frantsesez.

Irri solas, Iruñako Udal Aurrezki Kutxa, 1983 (Xalbador saria, 1981).

Piarres Lafitte. Bere bizia, Elkar, 1986.

Piarra Topet Etxahun. 1786-1862, Elkar, 1987 (Café Iruña saria, 1986).

Iraultza Heletan. Errepublikarentzat hil behorrari, Etor, 1993.

Enbata, Kutxa Fundazioa, 1996 (Irun Hiria saria, 1995).

Besta Berri, Ostoa, 2001.

Euskaldunak Aljerian, Elkar, 2003.
Jean Pierre Goytino eta Californiako Eskual Herria, Euskaltzaindia eta BBK, 2003 (Mikel Zarate saria, 2002)
Janpierre Arbelbide, Egan, 2005.
Zoriona. 31 eta esku, Labayru, 2005.
Xuri-gorriak, Elkar, 2007.
Sorginak. Lehen eta orain Afrikan eta hemen, Elkar, 2011.
Euskal Elizaren historia, Elkar, 2014.
Gogoetak, Maiatz, 2014.
14eko gerla. 14 lekuko, Maiatz, 2016.
Garapena gelditu, Maiatz, 2017.
Oilarra kukuruka, Erein, 2020 (Miguel de Unamuno saria, 2020).
Euskarazko lehen irratia. Gure Irratia, Maiatz, 2022.

Haur eta gazteentzako literatura

Garazi, Elkar, 1987 (Xalbador saria, 1984).
Lupua eta mika, Elkar, 1987.

Itzulpenak

François Mauriac: *Terexa Desqueyroux*, Elkar, 1989.
Wentworth Webster: *Ipuinak*, bi liburuki, Kriselu, 1993.
George C. Pipkin: *Pete Aguerberry. Urrea Kalifornian*, Harriet, 1997.

GAIAK

- 69** Euskal hezkuntzan ahaztutako
auzo-ikastoletako maistrak
Karmele Artetxe Sanchez

Euskal hezkuntzan ahaztutako auzo-ikastoletako maistrak

Karmele Artetxe Sanchez
UPV/EHUko Hezkuntza Zientziak Saileko irakaslea

Bizkaiak eskola-sare zabala zuen xx. mendearen lehen herenean.¹ Estatuaren eskolak ez ezik, munizipalak ere baziren, baita ikastetxe pribatuak ere, gehienak erlijiosoak. Horretaz gain, 1919tik aurrera Bizkaiko diputazioak hezkuntza egitasmo garrantzitsu bat sustatu zuen: auzo-ikastolak. Bertan aritu ziren maistrak eta horien ibilbideak ia erabat ezezagunak dira gaur egun. Artikulu honetan, maistra ezezagun horienganako lehen hurbiltze bat egiten dugu, arreta berezia jarritz 36ko geran jasan zuten errepresio politiko-militarrean. Izan ere, guretzat berebiziko garrantzia du emakume ikasi, euskaraz alfabetatu eta talde profesional horrek, historiografiarentzat ikusezinak izan badira ere eta euskal hezkuntzak ahaztu baditu ere.

Gerraurreko Bizkaiko eskola-paisaia

Espainiar liberal moderatu eta progresisten adostasunarekin, espainiar hezkuntza-sistema 1857ko Moyano legearekin (*Ley de Instrucción Pública*) abiatu zen. Bertan alde edo moldez biltzen ziren 1812ko Cádizeko Konstituzioaren aldarrikapenetik aurrera liberalek hezkuntzaren inguruan sortu eta landutako txosten, plan eta agindu desberdinak (Zabaleta Imaz 2000). Aipatutako 1857ko lege-testuak bere asmo

ideologikoak esplizituki adierazten ez dituen arren, eskola lehen mailako aparatu ideologiko bihurtu zen proiektu liberalarentzat, ez bakarrik leialtasun politiko berrien sustatzaile gisa, baita kohesio sozial eta nazionalerako tresna gisa ere (De Puelles 1993). Legearen asmoa bikoitza zen: alde batetik, garai hartan espainiar nazioarekiko identifikazio nazional-identitarioa sustatzea: bestetik, ikasleak testuinguru ekonomiko-industrial berrira egokitzeke alfabetatzea sustatzea. Horretarako, legeak oinarrizko irakaskuntza unibertsalizatu zuen Espainian, eta estatuaren esku utzi zuen curriculumaren edukiak finkatzeko eskumena.

Estatu liberalaren sendotasun faltak eta finantzaketa arazoek hezkuntza-lege horren ezarpena oztopatu zuten. XIX. mendeko espainiar gorabehera politikoei eta oinarrizko hezkuntzaren finantzaketa udalerrien gain uzteak, hau da, salbuespenak salbuespen, pobreak ziren udalen gain uzteak, eragozpen handiak eragin zituen legearen helburuak erdiesteko. Aldaketa XX. mendearen lehen hamarkadetan gertatu zen, estatuak progresiboki hartu zuenean hezkuntza sarearen finantzaketaren ardura, baita eskola berriak eraikitzeke erabakia ere. Horrenbestez, 1912an hezkuntza zentro publikoak *eskola nazional* gisa izendatzen hasi ziren errege agindu baten bidez. Orduan finkatu zen ere ikastetxeetako maisu-maistren soldatak Instrukzio Publikoko Ministerioak ordaintzea.

Bizkaiko erreferentziazko hezkuntza sarea, XX. mendearen lehen hamarkadetan, aipatu berri ditugun eskola nazionalak osatzen zuten, eta bertan aritzen ziren maisu-maistrak estatuak ezarritakoak ziren. Baina baziren bestelako izaera zuten ikastetxe publikoak ere, hala nola munizipalak eta auzo-ikastolak, finantzaketa publikokoak izanik, herriak zein diputazioak ordaindutakoak eta, beraz, kudeaketa deszentralizatua zutenak, baita irakasleria autonomoa ere. Horretaz gain, finantzaketa zein kudeaketa pribatuko ikastetxeak baziren, gehienak kongregazio erlijiosoren bati atxikita, baina ez-konfesionalak ere izan zitezkeen (adibidez, Bilboko

ikastetxe alemana). 36ko gerraren aurretikoan, ikertzaileen datuen arabera, Bizkaia guztira 500 bat ikastetxe zituen (Rekalde 1999: 138).

Bizkaian, eskola munizipalik gehien Bilboko hiriak zituen. Izan ere, 1936. urte inguruan, 6.000 bat ikasle zegoen bertan matrikulatuta (Arrien *et al.* 2021). Udala arduratu zen eskola-eraikinak egiteaz eta mantentzeaz, bai eta ikastetxeen funtzionamenduari zegozkion gastuak ordaintzeaz ere, hala nola ikasgelako materialaz edo irakasleen soldaten ordainketaz. Ruiz Loizagak aztertzen duenez (2015), hezkuntza-politika hori finantzatzea posible izan zen Bilbo Handiaren garaiko garapen industrialari esker. Eskolatzea sustatzeko udal politika aktibo horrek ahalbidetu zuen bilbotar gazteak prestatzea gizarte industrial berriaren beharrezanean erantzuteko.

Diru publikoarekin kudeatutako eskola nazional eta munizipalez gain, Bizkaian bazen landaguneetan probintzia mailako eskola sare bat, jada aipatu ditugun auzo-ikastolak. Sare hori 1919tik aurrera eraikiz joan zen bertako diputazioaren finantziazioarekin. Auzo-ikastolak antolatzea –orientazio pedagogikoa, ikuskaritza eta koordinazioa– zein bertako irakasleen kidegoa aukeratzea diputazioaren mende zegoen. Proiektua EAJren lehendakaritzapean sortu zen, eta, alderdi horrek laster diputazioaren kontrola galdu arren, hurrengo agintariak ere mantendu egin zuten (nahiz eta proiektuaren edukietan aldaketak gertatu, ikusiko dugunez). Hasiera batean mota horretako 50 eskola berri eraikitzea aurreikusten bazen ere, azkenean 1919tik 1936ra bitartean 100 auzo-ikastola baino gehiago inauguratu ziren Bizkaian, eta 30eko

Diru publikoarekin
kudeatutako eskola
nazional eta munizipalez
gain, Bizkaian bazen
landaguneetan probintzia
mailako eskola sare bat:
auzo-ikastolak. Sare hori
1919tik aurrera eraikiz
joan zen diputazioaren
finantziazioarekin

hamarkadan 6.000 ikasle baino gehiago matrikulatuta zeuden horietan (Arrien 1987, 2021).

Ikastetxe horien euskarazko izen ofiziala ‘auzo-ikastola’ bazen ere (gaztelaniaz, ‘escuela de barriada’), hasierako proiektuan bi motatako irakas ereduak bereiztu ziren, zentro bakoitzaren ingurune soziolinguistikoa aintzat hartuz: batetik, A kategoriako eskolak, nagusiki eremu euskaldunean kokatutakoak eta alfabetatze euskalduna xede zutenak, gaztelania ahaztu gabe; bestetik, B kategoriakoak, hizkuntza nagusitasuna gaztelaniari zegokion eremuetan kokatuak eta, hain zuzen ere, umeak erdaraz alfabetatzeko asmoa zutenak, euskarara hurbilduz. Saillkapen horrek, moldaketa handiekin, 1938ra arte iraun zuen. Hori dela eta, diputazioak euskara-maila egiaztatzeko eskatu zien eremu euskalduneko auzo-ikastoletan aritutako irakasleei.

1921eko hauteskunde probintzialen ondoren, Bizkaiko diputazioa indar monarkikoen kontrolpean geratu zen eta, auzo-ikastolen proiektuari segida eman arren, asmo euskaltzalea ia desagertu egin zen. Izan ere, agintari berrien eskutik, landa eremuan bizi ziren ume euskaldunen erdalduntzea bermatzeko ikastetxeak bihurtzen hasi ziren. Hala ere, eskola nazionalak asmo bera bazuten ere, frogatu izan dugunez (Artetxe 2020), auzo-ikastolen marko pedagogikoa abegitsuagoa zen, hasteko bortxa fisikoa debekatuta zegoelako bertan.

Primo de Riveraren diktaduran, hau da, 1923tik aurrera, auzo-ikastolak eskola nazionalen irakaskuntza-erregimen orokor berriari lotuta geratu ziren. Hala ere, irakasleen kudeaketa ez zen estatuaren esku geratu, diputazioaren kontrolpean baizik. Egoera horri esker, irakasleria ez zen depuratua izan, Espainia osoan gertatu zen moduan. Izan ere auzo-ikastoletako irakasleriaren depurazioa 36ko gerrarekin ezarritako erregimen frankistarekin etorri zen (Ipiña 2017: 190-217), beste eskola nazional, municipal eta pribatuetan gertatu zen moduan.

Ekimen pribatuko ikastetxeei dagokienez, Euzko Ikastola Batzaren (EIB) ekarpena azpimarratu behar da. EIB 1932an

sortu zen Euzko Gaztedi eta Emakume Abertzale Batza erakundearen ekimenez, biak EAJri lotuak eta euskal familia abertzaleen hezkuntza eskaerak asetzeko. Izan ere, sektore horiek hezkuntza konfesional eta elebiduna eskatzen zuten. EIBk euskal eskola (Ikastola) nazional bat sortzearen aldeko apustua egiten zuen, EAJren hezkuntza-politikak finkatutako irizpideetan oinarritutako curriculum baten inguruan antolatua, eta, aldi berean, garaiko Europako joera pedagogiko modernoaren barruan txertatuko zena (Fernández Fernández 1994: 24-27). EIBk bultzatutako eskola gehienak Bilboko metropoli-eremuan (Barakaldo, Galdakao, Getxo, Portugalete, Sondika eta Bilbo), Bizkaiko barnealdeko herri banaka batzuetan (Zornotza, Elorrio eta Ondarroa) eta Gipuzkoako beste batean (Bergara) lehendik zeuden eraikinetan ezarri ziren. Federazioak eskola eraikin berri bat ere eraiki zuen Bilboko Kale Nagusiaren amaieran, Errotatueta izena zuena, gaur egun eraitsita dagoena (Ezkurdia, Bilbo eta Perez 2017: 19).

Laburbilduz, Bizkaiko lurraldearen paisaia eskolarra askotarikoa zen, sare desberdinak baziren, baita proiektu pedagogiko oso diferenteak ere, elkarren lehian zeuden herritar-tasun proiektu politiko desberdinak zituztenak, eta horrek ere aberastu egin zuen herrialdearen eskola-paisaia. Guztira, aipatu bezala, izaera desberdineko 500 bat ikastetxe izango ziren. Horietaz arduratzekeo maisu-maistren zifra zehatzik ez dugun arren, 1930eko erroldak Bizkaian 1.301 irakasle erregistratzen ditu (bertan bilduz hezkuntzaren arlo eta maila guztietakoak).² Pentsa daiteke, beraz, Lehen Hezkuntzako irakasleak milatik gora izango zirela. Hala ere, ikastetxe eta irakasle horiek guztiak ez ziren nahikoa probintziako eskolatze eskariari aurre egiteko.

Frankisten errepresioa maistra eta maisuen kontra

36ko gerraren ostean ezarritako erregimen frankistak Bizkaiko hezkuntza-sareko irakasle asko jazarri zituen. Horretarako gehien erabili zuen errepresio-mekanismoa depurazioarena izan zen. Depurazioaren bidez, administrazio publikoak

prozesu administratibo bat irekitzen zuen eta, behin enplegatu publikoaren jardun profesionala aztertuta, erabakitzen zuen berarekin zer egin, hau da, lanpostuan mantentzea edo egozte. Batak zein besteak zigor osagarriren bat izan zezakeen. Morenteri jarraituz (1997: 883-905), Bizkaian Lehen Hezkuntzako eskola mota guztietako 999 irakasle depuratu ziren. Baina depurazioa ez zen errepresio-mekanismo bakarra izan, frankistek irakasleei bestelako neurri hertsatzaile gehiago ere ezarri baitzizkieten, hala nola gerra-kontseiluak, ondasunak kentzea, langileen batailoietan sartzea...

Gerraosteko errepresio-tresna bortitzena jurisdikzio militarren bidez ezarri zen. Irakasleriaren jazarpenerako berriaz diseinatutako tresna izan ez bazen ere, irakasle askok hertsatzeko mekanismo horren gogortasunak pairatu zituzten. Izan ere, gure ikerketaren bidez³ egiaztatu ahal izan dugu probintziako 588 irakasle auzipetu zituela jurisdikzio militarrek (381 emakume eta 207 gizon), hau da, Biz-

Gerraosteko
errepresio-tresna
bortitzena jurisdikzio
militarren bidez ezarri
zen. Irakasle askok
hertsatzeko mekanismo
horren gogortasunak
pairatu zituzten

kaian depuratutako irakasleen %58,8 jurisdikzio militarrek ere auzipetu zituela. Maistra gehienen espedientea artxibatu eta itxi egin zen. Zehazki, 297 emakumeren (%78) kasua ez zen gerra kontseilura iritsi. Baina horrek ez zuen eragotzi bestelako zehapen osagarriak ezartzea, hala nola kargu publikoak hartzeko debekua edota ondasunak konfiskatzea.

Maisuei dagokienez, epaiketa gabe geratu ziren hasieran auzipetutako 207 gizonetatik 145 (%70).

Gerra kontseilua izatera iritsi ziren hezkuntza arloko 84 emakume eta 62 gizonetatik, 13 maistrak (%15,5) eta 29 maisuk (%42) kartzelan bukatu zuten. Beraz, gerra-kontseiluek prozesatutako maistren kopurua handiagoa izan bazen ere, maisuek jasandako zigorren larritasun-maila handiagoa izan

zen, eta zehapen gogorrenak ezkertiar gisa sailkatutakoek jasan zituzten.⁴ Pentsatzekoa da erregimen berriaren izaera paternalista eta katolikoak emakumeen gaineko errepresio-intentsitatea nolabait arindu zuela.

Auzo-ikastoletako maistren aurkako errepresioa

Aurreko atalean Bizkaiko eskola mota guztietako irakasleek jasandako errepresioa aipatu dugu, orokorki. Atal honetan, auzo-ikastoletako irakasleen kasuan zentratuko gara. Baina, frankismoak auzo-ikastoletako maistrengan eragindako errepresioa azaldu aurretik, une bat atzera egingo dugu, talde horren sorreraz eta ezaugarriez zerbait esateko.

Auzo-ikastoletan aritzen ziren irakasleek beren postua eskuratzeko, oposaketa publikoa gainditu behar zuten. Bizkaiko diputazioak 1936 baino lehen hamahiru lehiaketa egin zituen irakasleak kontratatzeko. Lau zerrenda egin ziren genero bakoitzerako, eta horietako bakoitzaren barruan A edo B motako eskoletara bideratutakoak bereizten ziren. Araudiaren arabera, hautagaiek oposizioan parte hartu ahal izateko bete behar zituzten baldintzak hiru ziren: i) irakasle titulu ofiziala izatea, ii) gaitasun fisiko eta sanitarioko ziurtagiri medikoa aurkeztea, eta iii) gutxieneko adina izatea, maistren kasuan 18 urtekoa eta maisuenean 20koa. Biek ala biek A kategoriako eskoletan aritzeko euskara azterketa bat gainditu behar zuten. Guztira, auzo-ikastoletan 228 irakasle aritu ziren (213 maistra eta 15 maisu).⁵

Maistra talde horrek, kasu indibidualen bat kenduta, orain arte ez du interes akademikorik erakarri. Ez dago beren ezaugarri, ibilbide eta proposamen pedagogikoen inguruko ikerketarik. Asko jota, Arrienen (1987) gisako lanetan 1935-1936 ikasturteko horien izenen zerrenda bat biltzen da. Ez dute gehiago merezi izan, besteak beste, irakasle horien profila (emakumea, gaztea -21-40 urte-, euskalduna eta euskaraz alfabetatutakoa, katolikoa eta abertzalea -edo hurbilekoa-) ez delako doitzen historiografikoki askoz gehiago laudatutako

(espainiar) maistra errepublikazaleen eredu ezagunera (emakume modernoak, laiko edo ez oso erlijiosoak, asko oso bertzaileak pedagogiaren ikuspegitik...). Errepublikazale horiek azken urteotan ikertzaileen arreta izan dute (besteak beste, Sánchez de Madariaga 2012), eta horrek haien ekarpena nabarmentzea ekarri du. Idoia Fernández Fernándezek (2012) eta beste ikertzaile batzuek Julene Azpeitia maistrari buruz egindako lanak kenduta, auzo-ikastoletako maistra horiei ez zaie aitortu inongo aitzindaritzarik edo ekarpenik ondorengo euskal hezkuntza berritzeko egon ziren mugimendu desberdinetan. Ez omen dira izan ezeren aurrekari. Azken aldiko historiografian, ordea, talde hori aztertzeke gako interesgarriak aurki ditzakegu. Horrela, Maitane Ostolazak, adibidez, bere azken ekarpenetako batean, generoaren, erlijioaren eta hezkuntzaren arteko harremanak aztertzeke gaur egungo joera historiografikoak jasotzen ditu. Eta bertan garrantzi bereziko kontu bati erreparatzen dio: maistra katoliko asko gizartearen modernizazioaren alde zeuden, nahiz eta Espainiako hezkuntzaren historialari gehienek hezkuntza-aldaketa politika liberalekin edo Institución Libre de Enseñanza delakoarekin lotu (Ostolaza 2018: 51). Hain zuzen ere, Bizkaiko auzo-ikastolen kasuan, abertzaletasunaren eta maistra katoliko euskaldunen eskutik heldu ziren aire berriak.

Auzo-ikastoletako maistren soslai 36ko gerraren bortxaren bidez ezarritako bando irabazlearentzat oso susmagarria zenez, errepresio bortitza pairatu zuten. Maistra eta maisuen errepresioaren lehen datuak Ostolazak (1996) argitaratu zituen. Lan aitzindaria den arren, berrikuspen sakona behar du, historialari horrek 70 espediente baino ez baitzituen ikertu; eta, Aritz Ipiñak bere tesian (2017) erakusten duen bezala, eskola horietako 174 irakaslek, gutxienez, depurazio-prozesua jasan zuten.⁶

Ipiñaren arabera, auzo-ikastoletako irakasleen %61,7 depurazioaren bidez errepresaliatuak izan ziren: %33,3 kargugabetu zituzten, eta %28,4 kargugabetzeaz gainera, beste zigorren batekin zamatuta zituzten. Ipiñaren datuen arabera,

kargugabetzeak eta zigorrak depurazio-prozesuaren aurreko lotura ideologikoengatik eta hizkuntza-jarrera publikoek eragindakoak ziren. Beraz, ez ziren inoiz irakaskuntza-praktika txar batek eragindakoak izan.

Gure aldetik egiaztatu ahal izan dugunez, Bizkaiko eskola sare horretan aritutako maistrek jasan zuten Espainiako Estatuko depurazio mailarik altuenetakoa (%61,7), kolektibo pedagogiko edo proiektu oso gutxi eta zehatzek baino ez dutenak gainditzen. Adibidez, Freinet Teknikaren Espainiako Kooperatiba eta freinetarren mugimenduko partaideen %30 baino ez ziren iritsi beren lanpostura depurazio-prozesuaren ondoren. Gainerakoak inhabilitatu, zigortu, irakaskuntzatik banandu edo hezkuntzan aritzeko urruneko lurralderen batera joan behar izan zuen (Hernández Díaz eta Hernández Huerta 2007: 192).

Depurazioaz gain, auzo-ikastoletako irakasleriak justizia militar frankistaren errepresioa ere pairatu behar izan zuen. Epaille frankistek, kasu horretan, maistrek gatazka militarrean izandako parte hartzea epaitzen zuten, ardura berezirik jarri gabe beraien irakaskuntza lanean. Gure datuen arabera, auzo-ikastoletako 213 maistretatik 31ri espedientea ireki zitzairen. Erdiaren espedientea itxi edo artxibatu egin zen, auditoreak sumario-eginbideetan delitu-erantzukizunik aurkitu ez zuelako. Horrelakoetan auzipetuak, behin betiko askatasuna lortu arren, ez zuen saihesten bestelako zigor osagarriak pairatzea. Hala, 15 espediente artxibatu baziren ere,⁷ 16 maistra epailearen aurretik pasatu ziren 1937ko abuztuaren 27tik abenduaren 14ra bitartean. Tarte horretan lau maistra kartzelaratu zituzten (Soledad Campos,⁸ Ines Aldana,⁹ Elena Fernandez¹⁰ eta Julia Landeta¹¹) eta bi inhabilitatu zituzten: Maria Luisa Fano Urkidi¹² eta Eulalia Azkuenaga.¹³ Biak ala biak sei urte eta egun bateko inhabilitazio bereziarekin zigortu zituzten, matxinatuen zerbitzupuan lanean jarraitu zutelako. Fano elantxobetarra zen, bertan jaioa 1905ean. Gerra kontseilua baino lehen, 1932an, Errepublikara garaian, zigorra jaso zuen katekismo kristaua irakasteagatik. Bere espedientearen arabera,

bere borondatez lanean jarraitu zuen errepublikazaleekin, nahiz eta sarritan, emakumeek bereziki, zigorra saihesteko eta beren burua zuritzeko, beldurraren aitzakia erabiltzen zuten; baina, dirudienez, Fanok ez zuen hori egin. 1974an eskatu zion Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari irakasle gisa onar zezala. 1975ean Ministerioak bere aldeko ebazpena kaleratu zuen, bere kontrako gertaerak preskribatuta zeudela; beraz, 1975-1976 ikasturteko irakasle plazen lehiaketan aukera izan zuen eskola esleiei ziezaioten.¹⁴ Tarteko urteetan, 1937tik 1974ra, Fanoren berririk ez dugu.

Jurisdikzio militar frankistak auzo-ikastoletako maistrei irekitako espedienteak

<i>Salaketa</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Epaia</i>
Matxinada militarra	3	Absoluzioa: 3
Matxinadari atxikitzea	3	Absoluzioa: 3
Matxinadari laguntzea	2	Sei hilabete eta egun bateko kartzelaldia: 1 Absoluzioa, baina gobernu zigorra jasotzeko proposamena: 1
Matxinada sustatzea	3	Sei urte eta egun bateko kartzelaldia: 2 Sei hilabete eta egun bateko kartzelaldia: 1
Karguan jarraitzea matxinatuen zerbitzupean	4	Sei urte eta egun bateko inhabilitazio berezia: 2 Absoluzioa: 2
Zehaztu gabe	1	Absoluzioa: 1
<i>Guztira</i>	<i>16</i>	

Iturria: geuk prestatua, auzo-ikastoletako Bizkaiko Foru Aldundiko dokumentazioetik eta Gogora Institutuaren datu-baseko datuetatik abiatuta.

Arestian aipatu moduan, Bizkaiko eskola-paisaia askotarikoa izan arren, ematen du hezkuntza proiektu jakin batzuek eta beraietan aritutakoek frankisten jazarpen handiagoa jasan zutela. Izan ere, Bizkaian 84 maistrek izan zuten gerra kontseilua (eskola mota guztietakoak): horietatik 16 auzo-ikastoletakoak ziren (%19), eta kartzelaratutako 13 maistretatik 4 auzo-ikastoletakoak ziren (%31). Kontuan hartuta auzo-ikastolen sarea probintzian berria eta txikia zela, errepresio aski gogorra jasan zuten, bai gerra kontseilu kasuei zein depurazio datuei erreparatuta. Agian planteatu daiteke frankismoak interes berezia izan

zuela ordura arte autonomoki kudeatutako eskola-sare hori –halako euskaltzaletasuna zeriona eta pedagogia progresista jarraitzen zuena– eta bertan aritutako maistrak zapaltzeko.

Bestalde, pentsa liteke, zigortutakoak ez bezala, errugabetzat jo zirenak beraien lanbidera bueltatu ahal izan zirela. Zoritxarrez ez zen horrela izan; hori erakusteko, Lourdes Mokoroa Muxikaren adibidea aipatuko dugu. Bere espediente juridiko-militarra artxibatu bazen ere, eta gerra kontseilurik azkenean jasan ez bazuen ere, depurazioaren ondorioz ezin izan zuen berriro bere lanbidera bueltatu, bi arrazoi nagusirengatik: batetik, gerraurrean euskaltzale agerikoa izan zelako, eta, bestetik, abertzale izateagatik. Ikus dezagun, bada, zer pasatu zitzaion.

Pentsa liteke,
zigortutakoak ez bezala,
errugabetzat jo zirenak
beraien lanbidera
buelatu ahal izan
zirela. Zoritxarrez ez zen
horrela izan

Lourdes Mokoroa tolosar maistra

1908an Tolosan jaiotakoa, aita euskal idazlea zuen, Valeriano. Etxean bederatzi seme-alaba ziren, eta familia liburuak inprimatu eta saltzetik bizi zen. Denek ikasketak egiteko aukera izan zuten, asko elizan sartu ziren, baina Lourdes eta bere ahizpa Isidora maistra egin ziren. II. Errepublika garaian, Lourdesek erizain ikasketak ere abiatu zituen.

Lourdesek Gipuzkoako Maistren Eskola Normalean maistra ikasketak 19 urterekin bukatu eta urte horretako abuztuan auzo-ikastoletako 1927ko oposaketara aurkeztu zen; bertan, gerora gerra kontseiluaren ondorioz kartzelaratu zuten Ines Aldanarekin kointziditu zuen. Oposaketa gainditu eta irailean hasi zen lanean Ziortzako Gerrika auzo-ikastolan bosturtekoa bete arte, hau da, 1931-1932 ikasturtera arte. Ondoren, Berriatuko Mereludin, Zeberioko Ermitabarrin eta 1934-1935 ikasturtetik aurrera Ondarroako Gorozikan

egon zen; bertan, 36ko gerrak harrapatu zuen. Urte horietan guztietan, Lourdesek gorabehera batzuk bizi izan zituen. Esate baterako, 1932ko ekainean Pedro Zufia ikuskariak espedientea ireki zion maistrari. Zufiaren ikerketaren arabera, Gerrikako auzo-ikastolara beraien seme-alabak eramaten zituzten sei aitaren lekukotzak honakoa zioen:

Todos los firmantes declaran que la Maestra de la Escuela de barriada Srta. María Lourdes Mocoroa, prima por todos los medios que sus hijos, que asisten a dicha Escuela, no aprendan la lengua castellana, prohibiéndose usar esta lengua incluso fuera de la Escuela, toda vez que cuando un niño saluda en castellano fuera de las horas de clase, les dice lo hagan en euskera, y que lo que los vecinos quieren y ya se han hecho presente a la Maestra es que sus hijos aprendan castellano, pues vascuence saben demasiado.

[...]

Leida que fué esta declaración en castellano y en vascuence, muestran todos su conformidad, a cuyos efectos firman.¹⁵

Hortaz, Ziortzako guraso euskaldun elebakarrek, Luis Ezeizak egin zuen itzultzaile lanari esker, jakinarazi zuten Lourdesek bere eskolan ez zituela umeak erdalduntzen, hori baldin bazen ere beraien nahia, baita aldundiarena ere. Horretaz gain, eskolako umeak abade biren hiletetara eramateagatik kexu ziren gurasoak. Urte horretako uztailaren 19an izan zuen maistrak salaketon berri, eta uztailaren 27an aurkeztu zuen bere aldeko txostena. Bertan, besteak beste, honakoa aipatzen zen, umeekin eskola orduetan gaztelania erabiltzen zuela, baina eskola orduetatik kanpo gaztelania ez erabiltzea gomendatzen ziela, oraindik ez zutelako menderatzen.¹⁶ Aldundiak, salaketaren kontra maistrak emandako argudioen aurrean, hamar eguneko soldata gabeko isuna jarri zion. Euskarari dagokionez, aldundiko hezkuntza batzordeak zehaztu zuen eskolan euskara erabil zezakeen pertsona bakarra maistra zela eta ez ikasleak.¹⁷ Beraz, Espainiako II. Errepublika garaiko auzo-ikastoletarako hizkuntza politika ez zen ezertan aldatu aurreko erregimen diktatorialetik.

Urte horretan bertan, Augusto Vecino aldundiko ikuskarriak azaroan bisita egin zion, bere irakasle-lana ikertzeko,

eta guztiz pozik geratu zen ikusitakoarekin. Pedagogikoki ondo prestatuta zegoela ikusi zuen, nahiz eta ikasleekin zorrotzgia ez izan asistentziari, puntualitateari eta diziplinari dagokienez. Arazo horiek ondoko urteetan errepikatu ziren, baina landa giroan horrelakoak gertatzea oso ohikoa zen, baserriko umeek lehenik etxean lagundu behar baitzuten.

Gerra Bilbora heldu baino lehen, Lourdes Mokoroak erizain ikasketak eginda zituen. Halaber, Markinako Emakume Abertzale Batzako kidea izan zen, baita ELA/SOV sindikatuaren parte zen Eusko Irakasle Bazkuna/Agrupación de Maestros Vascos elkartearen afiliatua ere. Berriatuko auzo-eskolan maistra gisa egon zen garaian (1932-1934), Batzokian euskara irakatsi zuen. Horrelako aurrekariekin, 1937an frankistak Bilbora sartzean, Mokoroak errepresio gogorra jasan zuen. Batetik, lehenengo depurazio espedientea ireki zioten, auzo-ikastoletako maistra guztiei bezala. Bere kasuan, maistra izateko inhabilitatu zuten. Bestetik, justizia militar frankistak espedientea ireki zion. Ez zen gerra kontseilura iritsi, kasua artxibatu zutelako. Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboan gordetzen den espediente pertsonalaren arabera, behin baino gehiagotan Lourdesek eskariak egin zituen maistra gisa berriro onar zezaten, baina ez zuen lortu. Ez da harritzekoa 1972an Antonio Maria Labaienek kontatzen ziona Manuel Irujori gutun batean:

En efecto, Lourdes ha estado estos dos o tres últimos años sufriendo una depresión nerviosa y en tratamiento en un sanatorio psiquiátrico. Afortunadamente hoy se encuentra bien restablecida y hace ya vida normal en su casa de Tolosa.¹⁸

Hortaz, Lourdesek osasun mentaleko arazoak jasan zituen. Arrazoi zehatzak ez ditugu ezagutzen, baina lekutan dago gaztaroko suhartasuna. Bestalde, ekonomikoki justu xamar bizi zen. Labaienen arabera:

Respecto a la situación económica de Lourdes me parece ser bastante satisfactoria. Vendieron o traspasaron la librería y parte de la casa familiar y le toca a ella una renta que le permite vivir modestamente pero sin agobios. Es lástima que no pueda dedicarse a su profesión de maestra, pues hoy están muy solicitadas para

las 'ikastolas' y podría ganar un sueldo considerable que mejoraría mucho su situación económica.¹⁹

Familiako ondasunetik eratorritako errentatxoren bat ba omen zuen, beraz, baina ez zen oso handia; aipuaren arabera, ikastoletako andereño izan balitz, soldata duinagoa edukitze-ko aukera izango zukeen. Baina ezin ahanzt dezakegu 1972an, ikastolen egoera ilegal/alegal horretan, andereño batek solda-

ta txikia izango zuela. Hortaz, Lourdesen egoerak nahiko edo oso prekarioa izan behar zuen.

Bestalde, gutun berean, Labaienek aipatzen du Lourdesen ahizpa, maistra ere bazena, baina ez Bizkaiko auzo-ikastoletakoa, Parisen zegoela, eta urteak zeramatzala Xarriton familiaren etxean lan egiten. Hortaz, Euskal Herritik kanpo, maistra lanbidea utzita, erabateko erbestean bizi zen. Ez zen izan familiako bakarra erbestera jo behar izan zuena gerraostean.

Lourdesen neba Justo Maria euskaltzale ezagunak ere lehenengo Frantzian eta ondoren Txilen eman zituen zenbait urte, harik eta 1953an itzuli zen arte.

Beraz, Lourdes Mokoroka maistrak, gerra kontseilua izan ez arren, depurazio prozesu gogor baten ondorioz, ezin izan zuen inoiz lanera bueltatu. Gerraurreko bere hizkuntza jarrerak eta filiazio politikoak gerraosteko urte luze eta latzetan bizimodua goitik behera mugatu zioten.

Gerraosteko maistren bizimodu ezezaguna

Errepresioaren ostean, ikusi dugunez, maistra asko lanik gabe geratu ziren eta zenbait urtetan maistra gisa aritzeko debekua izan zuten. Batzuk saiatu ere ez ziren egin gerraostean

lanera itzultzen; baina beste batzuek, ezkongabeek, adibidez, behin baino gehiagotan eskatu zuten lanbidera bueltatzeko baimena, sarri askotan ukatu egin zitzaiena. Pixkanaka, hala ere, 50eko hamarkadan batez ere, maistra gisa aritzeko baimena eskuratzen hasi ziren. Bueltatu zirenek eskola nazionaletan irakasle gisa jardun zuten, ordurako auzo-ikastolak ere nazionalen erregimenera pasatu zirelako. Lanean hasi eta lehenengo urteetan, zigorraren parte gisa, maiz Bizkaitik eta Euskal Herritik kanpo aritu behar izan zuten.

Orokorrean ezer gutxi dakigu gerraosteko maistren –zein maisuen– bizimoduaren eta irakaskuntza jardueraren inguruan, are gutxiago berebiziko errepresioa jasan zutenei buruz. Bada hemen ikerketa lerro zabala, gerraosteko hezkuntzari buruzko historiografiak oraindik heldu ez diona. Guri ikerketarako galdera asko bururatzen zaizkigu gai horri dagokionez: Justa Freire maistraren tankerako barne erbesteaz (Del Pozo 2013) hitz egin genezake maistra eta maisu errepresaliatuen kasuan? Elizak irakasle katolikoan (adibidez auzo-ikastoletako maistren) biziraupenaren alde zerbait egin zuen? Aldatu al zen irakasle-identitatea eta jarduna errepresioaren ondoren? Ikasgelako hezkuntza-jarduera benetan eraldatu al zen? Agian, zenbait ikertzailek adierazten duten bezala, frankismoak inposatutako eskola nazionalkatolikoan, gerraurreko irakasleek ia aldaketarik gabe jarraitu zuten irakasten gerraren aurretik egiten zuten bezalaxe, nahiz eta curriculumak desberdina zen. Galderok ikerketaren bidez argitu beharko dira.

Azken ohar bat

Auzo-ikastoletako maistron patua ezin tristeagoa izan da: frankismoak errepresaliatu zituen, orain arteko historiografiak baztertu egin ditu arreta auzo-ikastolen erakundean jarri duelako, ez bertan aritu ziren pertsonengan; eta euskal hezkuntzak erabat ahaztu ditu.

Frankismoak gerra urteetan maistrok modu askotara errepresaliatu zituen euskaldunak eta abertzaleak izateagatik, eta

gerraostean bizibiderako aukerarik gabe utzi zituen. Auzo-ikastolen sareko maistra guztiek zuzenean zein zeharka sufritu zuten bortxa politiko eta administratiboa. Batzuk kartzelatik igaro ziren, beste batzuek, berriz, inhabilitazioaren ondorioz ezin izan zuten berriro irakasle gisa lanik egin, edo zenbait urte itxaron behar izan zuten horretarako. Bestelako zigorrik jaso ez zuenik ere izan zen (ikertzaileen arabera, %38,3). Hala ere, denek, baita zigorgabeek ere, bortxa eta beldur esperientzia barneratu zuten; gerraostean, ezin neur dezakegun automugapen pertsonal eta profesional ugari biziko zituzten.

Bestalde, historiografiak ez ditu aztertu, batez ere emakume eta katoliko izateagatik; beraz, ezezagun handiak dira, auzo-ikastolak ez bezala. Izan ere, Bizkaiko landaguneetan kokatutako gerraurreko eskola txiki horiek, bai erakunde gisa, baita eraikinek ere, gaur eguneko aldundiaren aintzatespen osoa jaso dute, hezkuntza proiektu horren bidez erakunde publikoak bere prestigiatze sinbolikoa bilatu izan duelako. Baina zer dakigu bertan lanean aritu ziren maistra horiei buruz? Egiaitan, ezer gutxi. Oraindik asko dago ikertzeko, batez ere gerraosteko urteei buruz. Argitzeko dugu non, zertan eta nola bizi izan ziren eta lan egin zuten.

Halaber, hezkuntzak ere maistrok ahaztu ditu. Euskal hezkuntza mugimenduek ez dute inoiz aitortu maistra horien ekarpena eta aitzindaritza. Euskal Herriko beste hezkuntza mugimendu eta figura batzuek bereganatu dute aintzatespen sozial eta instituzional guztia. Gure ustez, auzo-ikastoletan aritutako maistra taldeak, txikia eta oso ezezaguna izan arren, berebiziko interesa dauka. Izan ere, maistra horiek herrialde honetan aritutako emakume talde profesional bat osatu zuten, euskalduna eta politikoki zein pedagogikoki modernotzat har litekeena. 

Oharrak

1. Artikuluaren egilea Eusko Jaurlaritzako *IkasGaraia*. *Hezkuntza, kultura eta garapen iraunkorra* (IT1637-22) ikertaldeko kidea da.
2. Datua hemendik atera dugu: Presidencia del Consejo de Ministros (1932): *Censo de la población de España según el empadronamiento hecho el 31 de diciembre de 1930*, Madril, III. liburukia, 47. or. (www.ine.es/inebaseweb/pdfDispacher.do?td=104411&text=.pdf).
3. Jurisdikzio militarren bidez jazarritako irakasleei buruzko ikerketa Erik Zubiaga UPV/EHUko irakaslearekin batera egin dugu, eta laster argitaratuko da.
4. Izan ere, maisu ezkertiar bat heriotza zigorrera kondenatu zuten eta 19 kartzelaratu zituzten, frontean aritzeagatik edota kargu militar eta politikoak betetzeagatik. Abertzaleen (11) zigortzea ez zen hain berritza izan: lau kartzelaratzeko egon ziren, besteak absolbitu edota inabilitatu zituzten.
5. Maisu-maistren zerrenda osoa Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Agiritegian auzo-ikastolen funtsa kontsultatuz osatu dugu; baina oraindik ez dago argitaratuta, partzialki kontsulta daiteke Arrien (1987) eta Ipiñaren (2017) lanetan.
6. Maistra batzuek bi depurazio pairatu zituzten: bat diputazioarena, eta bestea ministeriokoa.
7. Zehazki 15 maistra horiek dira: Eusebia Atxutegi, Elisa Berrojaetxebarria, Rosario Dañobeitia, Blanca Ezpeleta, Maria Fernandez Rubio, Maria Purificacion Fernandez Tranbarria, Juana Gainza, Cristina Gardeazabal, Maria Luisa Leibar, Lourdes Mokoroa, Maria Amparo Okelluri, Feliciano Ordeñana, Maria Pujana, Victoria Retana eta Eloisa Urkidi.
8. Soledad Campos Gorlizko erietxean umeentzat irekitako ikastetxearen zuzendaria zen; *matxinadari laguntzea* salaketarekin prozesatu eta zigortu zuten sei hilabete eta egun bat Bilboko Karmeloko kartzelan. Bere espedienteak zehazki zera dio: «Desde fines de 1930 era Directora Escolar del Sanatorio de Górliz, cargo conseguido por oposición. El 10/06/1937, cumpliendo el deseo del Consejero de Sanidad del 'llamado' Gobierno de Euzkadi, no mostró su oposición a trasladarse a Francia en la segunda expedición de niños vascos, 'contribuyendo de este modo a que aquel acto ilegítimo del gobierno vasco adquiriese plena consumación, si bien la procesada no mostraba plena simpatía por aquel acto'. A los pocos días de estar en Francia volvió a España, entrando en zona 'nacional' y presentándose a las autoridades. 'Carece en absoluto de peligrosidad social'. Atenuantes muy cualificadas de falta de 'peligrosidad' de la procesada y escasa trascendencia de los hechos» (kausa zenbakia: 1751/37 Bilbo).

9. Ines Aldanak (ezkongabea, 30 urtekoa) gerra garaiko parte hartzeagatik izandako salaketa *matxinada sustatzea* zen, eta sei urte eta egun bateko kartzelaldiko zigorra jaso zuen. Txostenak zehazki zera dio: «Maestra nacional, cargo del que ha sido desposeída recientemente. Lo desempeñaba con anterioridad en un pueblo de Vizcaya, del que huyó hacia Santander al aproximarse las tropas ‘nacionales’. Marchó de Santander a Francia, de donde regresó por fin a Vizcaya. Simpatizante del ‘separatismo’ vasco. Se ha comprobado recientemente que se dedicaba a escribir cartas a familiares y amistades, residentes en España o en Francia, en las que desmentía las noticias de la prensa española y excitaba ‘a mantenerse en actitud de rebeldía contra el Movimiento Nacional, con la esperanza de que dicha actitud acabaría por triunfar’» (kausa zenbakia: 10004, Bilbon edo Burgosen auzipetua).
10. Elena Fernandez Ugarte Areatzako maistrari *matxinada sustatzea* leporatu zioten, eta bere txostenak zera dio: «Durante el dominio ‘rojo-separatista’ hizo propaganda contra la causa ‘nacional’, tanto en la escuela como en sus conversaciones particulares» (kausa zenbakia: 936/37 Bilbo). Hortaz, altxatuen kontra zegoen eta eskolan euren kontra aritu zen, herri berean maisu gisa ari zen bere senar Estanislao Gonzalez Sarralde bezala.
11. Julia Landeta Rementeriak sei hilabete eta egun bateko kartzelaldia jaso zuen, *matxinada sustatzeagatik*; izan ere: «Comunicó a su marido, médico izquierdista, que un grupo de personas de derechas se reunían con objeto de oír la radio ‘nacional’, por lo que el esposo avisó a unos milicianos para que procedieran a la detención de las mismas. Atenuante de falta de ‘peligrosidad’ de la procesada» (kausa zenbakia: 1438/37 Bilbo).
12. Kausa zenbakia: 1230/37 Bilbo.
13. Eulalia Azkuenaga (38 urte, ezkongabea) sei urte eta egun bateko inhabilitazio bereziarekin zigortu zuten *bere karguan lanean jarraitu zuelako matxinatuen zerbitzupean*. Espedienteak zera dio: «Maestra de barriada en el pueblo de Bedia (Vizcaya). ‘De ideas separatistas’. Al iniciarse el ‘Movimiento’ continuó en el desempeño de su cargo. No está indudablemente acreditado que al volar los aviones ‘rojos’ sobre el pueblo, hiciera salir a los niños de la escuela para aplaudirlos» (kausa zenbakia: 761/37 Bilbo).
14. Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, Administrazio Atala, Hezkuntza eta Kultura, auzo-ikastolen funtsa, Maria Luisa Fano maistraren espediente pertsonala.
15. 1932ko uztailaren 15eko Gerrikako gurasoen deklarazioak (ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, Administrazio Atala, Hezkuntza eta Kultura, auzo-ikastolen funtsa, Lourdes Mokoroaren espediente pertsonala).

16. Honakoa aipatzen du txostenean maistrak: «Contestando a esta acusación debe asegurar que ello no es cierto. La que suscribe conoce perfectamente, y pone siempre en práctica, la disposición del artículo 57 del Reglamento de Escuelas de Barriada que establece que la enseñanza en las dos categorías de Escuelas de Barriada A y B se dará precisamente en lengua castellana, aunque en las de la categoría A haya de servirse el maestro de la lengua vasca como medio o vehículo de enseñanza con relación a los alumnos que desconozcan el castellano. Y así afirma y sostiene que nunca ha prohibido a los niños el uso de la lengua castellana en la escuela y que por el contrario ha exigido siempre su uso a aquellos que, dado el tiempo que llevaban frecuentándola, consideraba la suscribiente en disposición de expresarse en dicha lengua./ Tampoco fuera de la Escuela ha prohibido a nadie el uso del castellano, pudiendo afirmar, aunque la denuncia nada tiene que ver con lo que la maestra haga fuera de la Escuela pues fuera de ella es un ciudadano como otro cualquiera con toda su libertad de acción, que lejos de perseguirlo, ha solido corregir frases que oía a los niños en mala sintaxis castellana diciéndoles que antes de acostumbrarse a destrozar el castellano era preferible que hablasen en euskera hasta tanto que hubiesen aprendido el castellano». Ikus 1932ko uztailaren 27ko Lourdes Mokoroaren erantzuna salaketen aurrean (ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, Administrazio Atala, Hezkuntza eta Kultura, auzo-ikastolen funtsa, Lourdes Mokoroaren espediente pertsonala).
17. Diputazioaren Hezkuntza Batzordearen txostenak honakoa dio: «Ciertamente que la Maestra fuera de la Escuela es una ciudadana como otra cualquiera, pero no lo es menos que en tal concepto ninguna relación ni autoridad le correspondería sobre los niños matriculados en la Escuela, y si sobre éllo actúa fuera de las clases, es imposible que lo haga prescindiendo de su condición de Maestra de los mismos niños; y desde este punto de vista las manifestaciones de la Maestra son corroboración expresa de las afirmaciones de la denuncia, porque si los niños no han de emplear el castellano hasta que lo posean perfectamente, es confesar que no lo han de hablar nunca, porque el único medio de adquirir un idioma es practicarlo con las imperfecciones necesarias en su iniciación que han de irse corrigiendo por la misma práctica, y ello no por lo que se refiere a la vida social de los niños, sino también en cuanto hace relación a su vida escolar, ya que la confesante afirma que en la Escuela exige el uso del castellano a los que por el tiempo que llevan los considera en disposición de expresarse en dicha lengua, es decir que los demás no la usan, y que queda al arbitrio de la Maestra el exigir o no el

- castellano, cuando el Reglamento es preceptivo y obligatorio para todos los niños matriculados que han de recibir la enseñanza en castellano desde el primer momento, y es la Maestra la única autorizada para el empleo del vascuence como medio de enseñanza del idioma castellano que ha de empezar a practicar el niño desde sus primeros pasos en la Escuela./ Y es de advertir que el Reglamento considera falta grave la desobediencia a ese precepto, tanto por no usar la Maestra el vascuence en sus explicaciones, como por no exigir a los niños el uso con la mayor intensidad posible del castellano, porque el Reglamento dice que el Maestro ha de tener muy presente que su misión es precisamente la de enseñárselo a los niños». Hezkuntza Batzordearen 1932ko abuztuaren 5eko erabakia (ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, Administrazio Atala, Hezkuntza eta Kultura, auzo-ikastolen funtsa, Lourdes Mokoroaren espediente pertsonala).
18. Antonio Maria Labaienek Tolosatik Parisera Manuel Irujori bidalitako gutuna 1972ko urriaren 23an. Eusko Ikaskuntzaren dokumentu funtseko gutun digitalizatua (www.eusko-ikaskuntza.eus/PDF/Fondo/irujo/14054.pdf).
19. *Ibid.*

Bibliografia

- Arrien, G. (1986): 'Educación y escuelas de barriada de Vizcaya, 1937-1939. (Su traspaso al Estado y deterioro de la enseñanza)', *RIEV* 31(3), 629-640.
- (1987): *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia. (Escuela y Autonomía 1898-1936)*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia.
- (2014): *¡Salvad a los niños! Historia del exilio vasco en Gran Bretaña, 1937-1940*, Bilbo, Sabino Arana Fundazioa.
- Arrien, G.; Arozamena, A.; Estornes, I.; López, A.; Arana, J. A. (2021): 'Bizkaia. Educación y cultura', *Auñamendi Eusko Entziklopedia* (<https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/en/bizkaia-educacion-y-cultura/ar-18869/>; 2021-08-15).
- Artetxe, K. (2020): 'Las Escuelas de Barriada de Bizkaia (1920-1937). Revisión y nuevos datos', *Historia y Memoria de la Educación* 12, 363-394.
- De Puelles Benítez, M. (1993): 'Estado y Educación en las Sociedades Europeas', *Revista Iberoamericana de Educación* 1, 35-57.
- Del Pozo, M. M. (2013): *Justa Freire o la pasión de educar. Biografía de una maestra atrapada en la historia de España (1896-1965)*, Bartzelona, Octaedro.

- Ezkurdia, G.; Bilbao, B.; Perez, K. (2017): 'Emakume Abertzale Batza Bilbon', *Euskalingua* 31, 14-27.
- Bilbao, B.; Ezkurdia, G.; Perez, K.; Chueca, J. (bilk.) (2012): *Emakumeak. Hitza eta bizitza*, Leioa, EHU.
- Fernández Fernández, I. (2012): 'Género, educación activa, lengua y nación en el País Vasco. Julene Azpeitia (1888-1980), exponente de una educación vasca en ciernes', *Historia de la Educación. Revista interuniversitaria* 31, 275-297.
- Hernández Díaz, J. M.; Hernández Huerta, J. M. (2009): 'La represión franquista de los maestros freinetianos', *Aula* 15, 201-227.
- Ipiña, A. (2017): *Represión y terror franquista en la Diputación de Bizkaia: fusilamientos y depuración (1936-1976)*, Arre, Pamiela.
- Morente, F. (1997): *La escuela y el Estado Nuevo. La depuración del magisterio nacional (1936-1943)*, Valladolid, Ámbito.
- Ostolaza, M. (1996): *El garrote de la depuración. Maestros vascos en la Guerra Civil y primer franquismo (1936-1945)*, Donostia, EHU.
- (2018): 'Género, religión y educación en la España Contemporánea: estado de la cuestión y perspectivas historiográficas', in I. Blasco (arg.): *Mujeres, hombres y catolicismo en la España Contemporánea. Nuevas visiones desde la Historia*, Bartzelona, Tirant, 47-68.
- Rekalde, I. (1999): 'La construcción de escuelas en el País Vasco durante la II República (1931-1936)', *Aula* 11, 115-174.
- Ruiz de Loizaga, M. (2015): *Primeras letras, «revolución social» y modernización en Bilbao (1876-1920)*, Bilbo, EHU.
- Sánchez de Madariaga, E. (arg.) (2012): *Las maestras de la República*, Madrid, Catarata.
- Zabaleta Imaz, I. (2000): *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera*, Bilbo, UEU.

EGUNEN GURPILEAN

93 Kultura

Irati frontoian
Bost Txindoki desfilean
Buhameak maskaradetan
Egurrezko ohea maitasunean
Maialen Akizu Bidegain

99 Glokalia

Atzo egin behar zenuena ez utzi biharko
Iturri berriztagarriak, teknologia
berriztaezinak
Energia-burujabetzarantz
Zenbat energia behar du gizaki batek?
Energia boterea da
Joanes Igeregi Santamaria



Kultura

Maialen Akizu Bidegain

Irati frontoian

Haur literaturako ipuin baten izenburua izan zitekeen. Teo udalekuetan, amona bizikletan eta Irati frontoian. Eta badu misteriotik ere: nola bukatu du *Irati* pelikulako promozioak pilotalekuetan? Kuriosoa da ezker hormako Urzante, La gula del Norte eta Astoreko karatulen artean Edurne Azkarate eta Eneko Sagardoyren irudiak nola nabarmentzen diren. Txapa azpiko toldoan ere *Irati*: otsailaren 24an estreinaldia zinemetan.

Kulturaren zabalkunde (falta) askotan izaten dugu ahotan, eta ezin uka mesfidantza ere eragiten duela beti motzetik gertu ibili eta bat-batean ia pasako marraraino iritsitako pilotak. Niri ez zait batere ideia txarra irudit. Eta behin gorriaren alde eginda, zergatik ez utzi liburuak Labriteko harmailetan edo erakusketa bat Beotibarko pasilloan edo pilotariei egin galdera zer entzunez etorri diren partidurako bidean, zein kultur pilula hartu duten aurkariari aurre egiteko. Gutxienean elkarriketetan erantzun diferentexegoak entzungo ditugu.

Bost Txindoki desfilean

Txanponaren bi aldeen metafora ez zen kasualitatez jarri. Badira beste hainbat objektu bi aurpegi dituztenak, baina txanponak bezala gutxik bereizten ditu aurkia eta ifrentzua. Hego Euskal Herriko gutxieneko soldata 1.080 eurora igo da 2023 urte honen hasieran. Espainiako Gobernuak %8 handitu du gutxieneko soldata, eta 74.500 langileri eragingo die. Erretiratzeko adina atzeratzeko asmoa geroz eta erreala

da astero. Kontrara, BBVak %38an igo ditu bere irabaziak 2021ean. EAEko batez besteko soldata inoizko handiena izan zen, 2.051 eurokoa, Nafarroan 2.189koa eta Frantzia 3.331koa (ez dugu Iparraldeko daturik). Europako Batasuneko batezbestekoa baino %6,5 txikiagoa gutxi gorabehera.

Eta, halakoetan, 1971n Jan Pen ekonomialari herbeheretarrak egindako irudikapena etortzen zait gogora. Desberdintasun soziala ikusgarri egiteko, «soldaten desfilea» proposatu zuen. Herrialdeko biztanleen altuera euren diru-sarrerekiko proportzionalki irudikatu zuen, jende pobrea oso baxu eta aberatsa oso altu irudikatuz. Biztanleak ilaran jarri zituen desfilelatzen, tamaina txikienetik handienara ordenatuta. Ordu bete irauten zuen desfileak, eta denbora diru-sarrera bereko kopuruarekiko proportzionala zen. Ez dakit ondo azaldu naizen.

Desfilea oso jende baxuarekin hasten zen. Hamargarren minutuan ozta-ozta iristen dira metroko altuerara (1.000 euro gordin inguruko soldata); jendea pasa eta pasa, ordu erdira iristean, desfilearen denbora erdira, metro eta erdi baino gehixeagoko gorputzak ageri dira, garaiko 1.500 euro gordin. Bost minutu geroago, 1,70 metroko batez besteko altuera lortzen da. Desfilea mantso doa, altueraren aldeak ez dira nabarmenak eta inor begira egoteko aspergarri xamar, baina berrogeita zortzigarren minutuaren bueltan saskibaloiko jokalaria kankailuak hasiko dira agertzen, bi metro eta erdiko gizabereak; saioaren azken bost minutuetan hara hor hiru metrokoak, hamarrekoak, berrogeita hamar metrokoak, zazpiehunekoak, urtean 800.000 eurotik gora irabazten duen jendea, milioiak irabazten dituen, milioiak, milioiak eta milioiak. *Forbes* aldizkariaren 2022ko zerrendaren arabera, Suitzan bizi den Daniel Maté donostiar enpresaria da euskal herritar aberatsena. 3.200 milioi euroko irabaziak izan ditu: hau da, Jan Penen desfilean, gutxi gorabehera, bost Txindoki adinako luzera izango luke.

Askoren aldarria izan da, gutxieneko soldata bezala, goian ere muga jarri beharra dagoela, Jan Penen desfilean unibertsoa iristen denik ere badelako, eta oxigenorik ezin hartuta

geldituko dira bestela gaixoak. Garbi dago, desfileko jende kopuruaz gain, gorputzen nolakotasuna ere aztertzekoa eta esanguratsua litzatekeela, eta, noski, «desfilea bera da aldatu behar duguna, ez jendea». Ados, baina bost Txindoki ditugu parean.

Jan Pen ez zen artista, baina bere metaforak, errealitatea irudikatu zein salatzeke modu bikaina izatez gain, errealitatea sinplifikatzeko ahala ere badu. Eta hori ere behar du kulturgintzak egin.

Joseba Sarrionandiarri irakurria da ipuinak kontatzen ziotuen agurearen fabula. Agureak txundituta uzten omen ziotuen ingurukoak bere istorioekin, baina, bukaera heldzean, akabo. Ez zuen bukaerarik kontatzen. Entzuleak zapuztu eta istorioa arren amaitzeko eskatzen zioten. Agureak erantzun. «Zer irudituko litzaizuke inork intxaur bat eskaintzen badizu eta, intxaur hori, mastekatuta, ahotik eskura ematen badizu?». Entzuleek ezetz, intxaurrik mastekatuta ez dela eman behar. Agurea ere ados zen: «Intxaurrak mastekatuta inoiz ez. Umeentzat eta maiteminduentzat oskola kenduta».

Buhameak maskaradetan

Maskarada, kabalkada eta libertimenduek hartu dute kalea. Tradizioa akuilu, beti berri eta beti ezberdin. Aurtengo Zube-roako maskaradetan aldaketa buhamerik eza izan da. Buhameak, ijitoak, taldeetan presentziarik ez eta gainera mozkor, alfer eta zirikatzaile gisa agertzen ziren maskaradetan, eta hausnarketa kolektibo baten ostean deliberatu dute beste pertsonaia batzuk eta beste istorio bat kontatu nahi dutela.

Guaren eta *besteen* errepresentazioek noiznahi jartzen gaituzte auzitan, eta argi da gaur egun malguago, aldakorrago, zalantziago ibiltzen garela. Ez dezagula beldurrik izan kaldereroen zentzuaz galdetzeko, Zeledoni oporrak emateko edo koruetako entseguak mezkitetan egiteko. *Besteak* guk sortzen ditugu eta *besteak* sortzea gua sortzeko modua da. Besteak *beste* ez irudikatuta, ordea, ez ditugu guretuko. Hau

da, buhameak nolakoak diren baino, ijitoak taldeetan ez dau dela da errealitatearen gakoa agian, eta, gainera, mozkorra, alferra, zirikatzailea izatea iruditeria ‘txarrarekin’ lotzen da. Gainera, batzuetan hartzailearen jarrera gutxiesten dela ere iruditzen zait: etxeoandre beltzaranak gogoetarako bide eman dezake; etxeoandre zuriak gogoetarako bide eman dezake. Baina kulturgintzan zilegitasunaren afera ezbaian dago eta hori interesante bezain guaya da.

Euskaldunoi historikoki lotu zaigu arrazisten etiketa. Egun ere jarri hezkuntzari begira. Antton Lukuk ni baino sakonago pentsatu du gai horretaz. *Euskal kultura* liburuan honela dio:

Jakinez aski ukan ez dutenek beti arma bera dutela baliatzen: arrazistak eta hertsiaik direla euskaldunak, kulturarik gabekoak. Tentazio eta irrisku handia da, beraz, kultu eta irekiak garelako froga saioetan galtzeko [...] Laster kultura euskarari oposatuko zaio.

Aldatzen eta berritzen, eta beti betiko eta beti mehatxupean. Biziraupenaren irriskua ere bada euskaldun egiten gaituena. Lewis Carrollen Erregina Gorriak bazekien zerbait. *Ispiluan barrena eta Alicek han aurkitu zuena* nobelan, Alice eta Erregina Gorria zuhaitz baten aldamenean daude. Erreginak Aliceri eskutik heldu dio, eta, bat-batean, korrika hasi dira. Korri eta korrika, geroz eta azkarrago. Alice arnasestu batean aurkitzen da, eta azkarrago ezin duela joan sentitzen du, nahiz eta esateko arnasarik ez izan. Gelditu dira biak bat-batean, eta Alice zur eta lur inguruari begira. «Arraioa! Esango nuke zuhaitz honen azpian egon garela denbora guztian». Erregina ere harrituta. «Zer uste zenuen?». «Beno, gure herrian –erantzuten dio Alicek–, denboraldi luze batez korri egiten baduzu... beste norabait iristen zara». Erregina Gorriak elkarriketa ixten du: «Oso herri mota geldoa».

Egurrezko ohea maitasunean

Noiz uzten dio kontzeptu batek berri izateari? *Podcast* letra etzanez idatzi edo ez zalantza egin dut. Duela urte pare bat

gidoi artean azalpen labur bat ematera behartuta nengokeen –mugikor eta ordenagailuetan erreproduzitzeko multimedia fitxategia–, baina gaur egun euskarara itzuli gabe geuretu dugu podcasta –eta, bidenabar, errimategia puzteko balio du, *azka, aska, axka* bukatzen diren hitz askorik ez baitugu–.

Sukaldean ari nintzen. Eskuak hau eta beste egiten, baina burua bertan izateko beharrik ez itxuraz –gorputza zatikatzeko nolako abilidadea dugun egun–, eta Gaztea irratia *Yoko Ona* saioaren atal bat jarri nuen entzungai. *Yoko Ona* Ainhoa Vitoria kazetariak gidatzen duen saioa da, Olatz Salvador eta Lore Nekane Billelabeitia musikariekin batera. Izena Yoko Ono artista japoniarrari keinua da, eta kulturgile bat gonbidatzen dute saio bakoitzean gai baten bueltako tertulian aritzeko. Hirugarren denboraldiko bigarren atala jarri nuen entzungai, Olaia Inziarte musikari nafarra gonbidatu eta harremanak hizpide.

Harremanen nondik norakoen, laguntasunaren katramilen eta norbere buruarekiko aitorpenen bueltan jardun dira hasierako ordu erdian. Gero maitasunaren gaia atera da.

Ainhoa Vitoria galdetzen die ea maite dituztenei «maite zaitut» esateko ohiturarik ba ote duten, edo euskaldunaren estereotipoak makur bete eta halakoei uxa-uxa egiten dieten. Euren joerak konpartitzen dituzte giro goxo eta umoretsuan, eta Lore Nekane Billelabeitia Belako musika taldeko baxu jotzailearen iritzia egiten dut nire. Lore Nekane dio «maite zaitut» askotan ez duela esaten eta agurraren pare erabiltzea Hollywoodeko kultura yankiaren zeinu dela. *Amama* (2015) pelikulan Kandido Urangak gorpuztutako Tomasen pertsonaia etorri zait gogora. Tomas *Amamaren* seme zaharrena zen, maiorazkoa, lehorra, burugogorra oso, lanari emana, keinu afektibo gutxikoa: euskalduna. Iraia Eliasek bere egingdako Amaia pertsonaia, Tomasen alaba, oso bestelakoa zen. Artista zen Amaia, eta baserria utzita hirira joango da bestelako grinek bultzatuta. Aitak ez dio hitzik egingo denbora luzez, terko, ilun, biolento agertuko da alabak baserriaren soka jarraitzea erabaki ez duelako. Bere barruei forma eman

ezinda, ordea, isil-isilik egurrezko ohe eder bat egingo dio alabari, eta sorpresaz eraman hiriko pisu berrira.

Zineman euskaldunon errepresentazioaren beste adibide ikoniko bat *Zortzi abizen euskaldun* (2014) da. Bertan ere bada Amaia bat, Rafa sevillarrarekin korapilatu den gaztea; buruan zapia, bekozkoa zimur, andaluziarraren sedukzio teknikak ez dute limurtzen. Euskaldunak ez garelako 'lasaiak', sexuzaleak edo jolastiak, 200 kiloko harririk ezean zaplateko bat jasoko duzu gutxienean. (Orain dela bi hamarkada Espainiatik etorritako lagun batek behin aitortu zidan Euskal Herrira heltzean benetan pentsatzen zuela denak bollerak ginela. Gaur egun asko aldatu dela hori. Beste baterako).

Estereotipoak ere botere forma bat dira, muga eta domestikazio, muga eta izate. Bihotz gorriak, horiak, berdeak, gezidun bihotzak, hatzekin osatutakoak, ezpain gorriak, Iloveyouak... Whatsappen ez dago egurrezko oherik. 🍷



Atzo egin behar zenuena ez utzi biharko

Urteak daramatzagu etorkizunerantz ostikadak jotzen. Etor-kizunerantz, eta etorkizunari. Konponbideak atzeratu eta atzeratu gabiltza eta, bitartean, hurrengo belaunaldien arazoak larriagotzen. Gure ekintzen ondorioak aurreikusi, aukera ez-berdinak aztertu eta erabaki razionalak hartzeko gaitasuna da, zenbait antropologoren arabera, gizakiok gainerako animaliangandik bereizten gaituen ezaugarrietako bat. Horrela bada, ez gara oso gizaki jokatzeko ari. Beharbada, arrazoizko erabakiak hartzeko gaitasuna kamustu egiten zaigu ondorioak espazioan eta denboran urrundu ahala. Beharbada, gizartearen eskalak aspaldi gainditu zuen gizakion talde deliberaziorako gaitasuna. Beharbada, erabakimenik handiena dutenek ez dute arrazoirik zuhurtziaz jokatzeko, aukera dutelako ondorio kaltegarrienak urruntzeko.

Hamarkadak dira zientzialariek klima-aldaketaren arriskuez ohartarazi gintuztela. Geroztik, berotze globala aurreikusi baino arinago ari da gertatzen, eta ondorioak gero eta larriagoak direla ikusten dugu egunetik egunera. Hamarkadak dira geologoek erregai fosil merkeen amaiera iragarri zutela. Aldeak alde, guztiek aurreikusi zuten erauzpenak goia joko zuela XXI. mendearen lehen erdian, eta hortik aurrera gero eta esfortzu handiagoa egin beharko genuela, gero eta energia gutxiago eskuratzeko. Hala ere, petrolioa erretzen jarraitu dugu, noizbait energia garbi eta agorrezina aurkituko dugulakoan.

Berandu eta txarto heldu gara, heldu diogu, energia-trantsizioaren erronkari. Dagoeneko ez daukagu astirik nahi bezain patxadatsu eta behar bezain modu planifikatuan egiteko. Edozelan ere, badirudi gero eta garbiago dugula energia

zikinak alboratu beharra. Horrela, azpiegitura berriztagarriak eraikitzeko egitasmoak ugaritzen ari zaizkigu, baita Euskal Herrian ere. Aldi berean, energia-trantsizioa bizkortzeko asmoek makroproiektuen aurkako erresistentzia piztu dute. Azkenengo hilabeteetan, eolikoek haizatu dute eztabaida. Askotan, instalazio handiek tokiko faunan edo paisaian eragingo duten kaltea aipatzen da gehien; baina, kalte horien garrantzia onartuta ere, komeni da gaia zabalago aztertzea.

Iturri berriztagarriak, teknologia berriztaezinak

Naturak berez dakarkiguna teknologia konplexuekin ordezkatea da gizarte industrialaren bulkada handienetako bat. Dena ordezkatzeko, antza, gizakion adimenak. Beharrian bat asetzeko zenbat eta bitarteko teknifikatuagoa erabili, hobe. Berdin dio zer baliabide erabili dugun, zer helburu lortzeko. Denboraren joanean, berrikuntza teknologikoa helburu bihurtu zaigu, bere horretan. Energia-trantsizioari begira ere, gizartearen inkontziente kolektiboa tematuta dago: gero eta teknologia konplexuagoek aterako gaituzte gero eta teknologia konplexuagoek sartu gaituzten bidegurutzetik.

Azpiegitura handiek logika horri erantzuten diote, erregai fosilen energia-kontsumoa iturri berriztagarriekin ordezkatu nahirik. Baina, posible ote da ordezkapena? Antonio Turiel fisikariak dioenez:

Orain arte inor ez da gai izan presa hidroelektriko bat, haize-sorgailu bat edo plaka fotovoltaiko bat eraikitzeko [...] erregai fosiliek erabili gabe. Inork ez du lortu energia berriztagarriarekin bakkari, ez baitago argi egin daitekeenik.

Gaur-gaurkoz, gas naturala behar da zementua egiteko, iktatza altzairurako, eta dieselak mugitutako makina astunak mineralak erauzi edo eoliko handiak altxatzeko. Ez dago argi prozesu horiek guztiak inoiz erregai fosilik gabe egin ahal izango diren, are gutxiago gaur egungo eskalan.

Bestalde, plaka fotovoltaikoak edo turbinak egiteko mineral eskasak erabiltzen dira, baita elektrizitatea biltegitu eta garraiatzeko ere. Alicia Valero kimikariak egindako ikerketa baten arabera, energia berriztagarrien eta ibilgailu elektrikoen eskaria Pariseko Akordioetan aurreikusi bezala handitzen bada, 2050. urtea baino lehen ez da erreserba nahikorik izango hamalau elementu kimikoren eskariari erantzuteko. Tartean dira, ezagunenak aipatzearren, zilarra, kobrea, litioa edo beruna. Planetako energia-fluxuak erraldoiak eta agorrezinak dira; horiek eskuratzeko baliabideak, erabat mugatuak.

Demagun, hala ere, euskaldunok lortzen dugula gure energia kontsumoa ordezkatzeko behar beste mineral, berdez margotutako inperialismo ariketa betean. Zer egingo dugu, hemendik 20-25 urtera, gaur eraikitako azpiegituren bizitza erabilgarria amaitzean? Izango dugu horiek konpondu edo ordezkatzeko mineral eta makinarik? Zertan ari gara, erregai fosilen amaierari irtenbide bat bilatu nahian ala konponbidea beste 25 urtez atzeratzen? Eta, aurreko guztia positiboan jarrita, posible ote da energia eskuratzeko azpiegiturak beste logika batekin diseinatzea, bizitza erabilgarria luzatzeko, pieza bakoitzaren birziklapena eta ordezkapena errazteko, material ugari eta hurbilak erabiliz, eta prozesu osoan erregai fosilik behar ez duten teknologiak erabiliz? Epe luzeko begirada behar dugu krisi ekologikoari erantzuteko, jomuga lau urteko legealdia edo urteko irabaziak baino urrunago jarrita.

Energia-burujabetzarantz

Munduan ez dira leku asko izango burujabetza politikoaz hainbeste hitz egiten dutenak eta, aldi berean, energiari dagokionez hain mendekotasun handia dutenak. Euskal Herrian kontsumitzen den energiaren %92 kanpotik dator, eta horrek predatzaile bezain zaurgarri egiten gaitu erregai fosil merkeen amaieran. Horixe da, hain zuzen ere, eoliko eta fotovoltaiko

industrialen alde erabiltzen den argudio nagusietako bat. Due-la gutxi honela zioen, esaterako, Jaurlearitzako sailburu batek: «Menpekotasuna murriztu nahi badugu, zentral eolikoak jarri behar ditugu nahitaez». Oposizioko alderdiak ere, ñabardurak ñabardura, ez dabilta hain urrun diskurtso horretatik.

Eta horixe da, era berean, azpiegitura horien aurkakoei egiten zaien kritika handienetako bat: gure mendi eta paisaiak defendatzeko, berriztagarri industrialei uko eginda, beste lurralde batzuetatik ekarritako energia kontsumitzen jarraitu beharko dugula, hango ekosistemak eta paisaiak degradatuz. Fokua apur bat zabalduta, goian esandakoaren ildotik, ikusiko dugu berriztagarri industrialek mende-kotasuna desplazatu baino ez dutela egiten, kanpoko energia ordezkatzeko kanpoko mineralak erabilia. Hautu bakarra omen dugu: kolonialismo energetikoa ala kolonialismo minerala.

Egia esan, gizartea goitik behera eraldatu gabe, ez dago beste biderik. Bere kontsumoa betetzeko bi planeta eta erdi erabiltzen dituen gizarte batek nekez arinduko du mende-kotasuna, beste lurralde batzuk mende-an hartuta ez bada. Arrazoibide horrek baztertu egiten du, hala ere, kontrako bidea: energia-burujabetza lor genezake ekoizpena handituz, baina baita kontsumoa txikituz ere. Bietatik beharko dugu, nola ez. Inoren jabe egingo ez den burujabetza-proiektu zabal batek, halabeharrez, nahikotasuna behar du lagun. Nahikotasuna. Hazkundearekin itsututako gizarte honentzat, ba ote da hitz heretikoagorik?

Zenbat energia behar du gizaki batek?

Lev Tolstairen *Zenbat lur behar ditu gizon batek?* izeneko ipuinean, Pahom nekazaria estepan barneratzen da, lur bila. Baxkirren lurraldera heltzean, lurra erosteko asmoa azaltzen die, eta buruzagiak erantzuten dio egun batean oinez ibilitako lur guztia eskura dezakeela, mila errubloren truke. Hori bai, eguzkia sartu aurretik abiapuntura itzultzen ez bada,

biak galduko ditu, lurra eta dirua. Biharamunean, egunsentiarekin, ahalik eta lur gehien hartzeko asmoz abiatzen da. Iluntzea hurbiltzean, gehiegi urundu dela ikusten du, eta ez daki itzultzeko gai izango den. Ziztu bizian eta urik edan gabe, eguzkiaren azken izpiekin batera heltzen da abiapuntura, baina bertan jausi eta hil egiten da. Lur ematen diotenean, honela dio azken esaldiak: «Burutik oinetara, hiru *arshin* [bi metro inguru] behar izan zituen, besterik ez».

Dagokigun alorrean ere, galdera hori egitetik has gintezke: zenbat energia behar du gizaki batek? Erantzuteko, energia zertarako erabiltzen dugun aztertzea izan liteke abiapuntua, eta, arakatzen hasita, ikusiko dugu elektrizitatea arazoaren hari-muturretako bat besterik ez dela, ez korapilorik handiena. Izan ere, Euskal Herrian amaierako kontsumoaren %20-25 baino ez da elektrikoa, eta zailtasun handiak daude gainerakoa erabat elektrifikatzeko: garraioa, eraikuntza, berokuntza, janari ekoizpena...

Kontsumoari begiratuta, garraioan dago zailtasunik handiena: amaierako kontsumoaren %40 hartzen du, erregai fosilekin funtzionatzen du ia osotasunean, eta ezinezkoa dirudi aldaketa teknologiko soilekin gaurko mugikortasunari eustea. Ez dago mineralik ibilgailu pribatu guztiak elektrifikatzeko, eta ez dira txikiagoak kargarako azpiegiturekin edo salgaien garraioarekin lotutako mugak. Joan-etorriak gutxitzea, beraz, funtsezko estrategia da energia-trantsizioarako: ekoizpen eta kontsumo sareak laburtuz, lurraldea oinezkoen neurrira egokituz, bizitzak oinez ala bizikletaz ibil gaitzkeen eremura mugatuz eta hortik gorako distantzietan garraioibide kolektiboak erabiliz. Berez, gizakiok hobeto bizi gintezke gutxiago mugituz; gizarte industriala, ez.

Bizitzarako garrantziagatik, aldiz, elikadura da, ez bairik gabe, askatu beharreko lehenengo korapiloa, erregai fosilak ezinbestekoak baitira nekazaritza industrialean: gas naturala ongarri nitrogenodunak egiteko, diesela traktoreetarako... Euskal Herrian, gainera, elikagaien %80 inguru kanpotik datoz. Nekazaritza izan da, milaka urtez, gizakion energia-iturri

nagusia. Erregai fosiletan oinarritutako nekazaritzan, ordea, askotan energia gehiago erabiltzen da gero elikagaietatik lortzen dena baino. Horrela, elikadurak agerian uzten du eredu industrialaren burugabekeria termodinamikoa. Testuinguru horretan, agroekologia eta elikadura-burujabetza bizirau-penerako giltzarri izatera igaro daitezke. Nola elikatu hiru milioi euskal herritar 20.000 kilometro karratuko lurralde batean? Ez zait galdera garrantzitsuagorik bururatzen hurrengo hamarkadei begira.

Laburbilduz, planeta mugatu batean bizitza onak izateko baldintzak sortzetik hasi beharko genuke. Nola bete oinarritzeko beharrian bakoitza, nahikotasun maila batean, ahalik eta baliabide gutxien erabiliz eta ekosistemak arriskuan jarri gabe? Munduaren luze-zabalean askotariko erantzunak asmatu beharko dira, lekuan lekuko baldintza ekologikoak kontuan hartuta. Horixe da energia-trantsizioaren lehenengo erronka. Bestela, askoren ogia arriskuan jar genezake, gutxi batzuen auto elektrikoari eustearren. Bizi dugun krisi ekosozialak ez du konponbide errazik, ez du irtenbide teknologiko hutsik. Gizarte eraldaketa sakona eskatzen du, baina, oraindik ere, errazagoa zaigu munduaren amaiera imajinatzea gizarte industrialaren amaiera imajinatzea baino.


Energia boterea da

Teknologiak ez dira neutralak, gizateria etengabeko aurrerabidera daramaten asmakizunak, guztion hobe beharrez sortuak. Gizarte jakin batean jaio dira, ia beti gizarte horretako botere-harremanez bustita, sarritan harreman horien zerbitzura. 1963ko hitzaldi batean, Lewis Mumfordek teknika demokratikoak eta teknika autoritarioak kontrajarri zituen. Lehenak, xume bezain moldakorrak, erabiltzaile autonomoen trebezian oinarrituak, eskala txikiko ekoizpenerako. Bigarrenak, boteretsu bezain zurrinak, agindupeko erabiltzaile ordezkagarrien eskutan, masa ekoizpenerako sortuak.

Antzeko irakurketa egin genezake energia-iturriez ere. Berriztagarriak sakabanatuta daude, edonork eskuratzeko moduan. Euskal Herriko zenbat baserrik zeukaten beren errota? Erregai fosilak, ordea, leku jakin batzuetan kontzentratuta daude, eta metatzeko aukera handiagoak ematen dituzte. Berezko ezaugarriei begiratuta, lehenengoek eskala txikiko gizarte deszentralizatu bat errazten dute, bigarrenek gizarte handi eta kontzentratu bat. Berriztagarri industrialak kontraste hori gainditzeko tresnatzat har litezke. Sakabanatuta datorren energia-iturri bat kontzentratzen dute, teknologia zentralizatu bat erabilia, erregai fosilen antza har dezaten, hori behar baitu gizarte industrialak.

Bizi dugun bidegurutze teknologikoa aztertzerakoan, interesgarria da erregai fosilak nagusitu ziren garaiari begiratzea. Andreas Malmek *Fossil Capital* liburuan egindako azterketaren arabera, erregai fosilak ez ziren hedatu merkeagoak zirelako edo energia gehiago ematen zutelako. Alderantziz, Ingalaterrako ehungintzak ur-jauziak ikatzaren alde alboratu zituenean, urarekin mugitutako errotek energia mekaniko handiagoa sortzen zuten lurrin-makinek baino, eta merkeagoak ziren. Zergatik egin zuten trantsizio hori, beraz, orduko industrialariek? Malmek dioenez, ikatzak bi abantaila nagusi zekarzkien: batetik, aukera ematen zien naturaren erritmoetatik askatzeko, ur-jauziek lantegien kokalekuak eta erritmoak baldintzatzen baitzituzten; bestetik, industria hirietan metatuta, errazagoa zen langile merkeak aurkitzea, ordezkatzeta eta horien negozioazio-ahalmena ahultzea.

Lotuta daude energia eta boterea. Ez da kasualitatea ingelesez biei *power* esatea. Hurrengo energia-trantsizioarekin ere, zein botere-harreman ereingo dugu? Edo, aldrebes begiratuta, zein botere-harreman erein dezakegu gaur, gizakion neurrira egindako eraldaketa bat nagusitu dadin? 🌸



 **euskadi
irratia**
gertu

JAKIN 2020

Jakin 236

AMURIZA, Miren: *Xabier Amurizari elkarriketa*

RUBIO, Miren: *H. Cano, E. Rodriguez eta K. Uribe autonomia literarioaz eta konpromisoaz Egunen gurpilean*: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 237-238: Joxe Azurmendi. Pentsamenduaren ur-jauzia

ZULAICA, Joseba: *Arbola beltzaren poema*: Azurmendi, euskal mende hautsiaren lekuko

ESKISABEL, Idurre: *Feminismotik naziogintzara hurbilketa bat* Azurmendi bidelagun

APODACA, Eduardo: *Mamu, momia eta zonbiak*. Bizi osteko biziak

SARRIONANDIA, Joseba: *Azurmendiren inguruko sei-zazpi ideia eta galdera*

OLARIAGA, Andoni: *Nola pentsatu etika orain eta hemen?*

CUGNO, Agnès: *Indarkeria eta identitate politikoa*

SOTO, Iñaki: *Don't Think of 'Foro de Ermua'*

CASADO, Antonio: *Pentsamenduaren marruskadura*: etika eta praktika komunitateak

NEREKAN, Maitane; YARZA, Itsaslore: *Heriotzarekin bizitzen ikastea*

ZAPIAIN, Markos: *Bizitzaren zentzuaz*

ETXEBERRIA, Arantza; PZ. IGLESIAS, J. Ignacio: *Gizaberea, eboluzioa eta kooperazioa*

URDANGARIN, Mikel: *Gizabere kooperatiboa krisian bizitzeko mito gisa*

EIZAGIRRE, Andoni: *Pertsona burujabea Arizmendiarrietaren asmoan eta egitean*

AZKARATE, Miren: *Azurmendi: euskara batuaren bilbe eta irazki*

MARTINEZ, Elena: *Hizkera filosofikoa hizkuntza gutxiagotu baten testuinguruan*

GARMENDIA, Elixabete: *Zegamatik Arantzazura, pentsalariaren lehen paisaiak*

Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 239: Pandemiak, distopiak eta mundu berriak

ZUBIAGA, Mario: *Politika biluzik birusaren garaian*

ETXEBERRIA, Arantza: *Mikro-bioa, gaitza eta natura*

AZKARRAGA ETXAGIBEL, Joseba: *Ekodistopia prospektiban, EHkopia perspektiban*

ZUBIA, Irati: *Egia-ostea ziurgabetasun garaian*

GABILONDO, Joseba: *Pandemiaren arrazoiak: konspirazioa, paranoia eta negazionismoa*

CANO, Harkaitz: *Hirugarren oldearen osteko txostena (2024)*

Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 240: Torrealдай: euskara herri

AGIRRE, Lorea: *Maratoia korritzera atera gara*. Joan Mari Torrealдай Joseba Intxausti,

Joxe Azurmendi eta Paulo Agirrebaltzategiren bihotz-begietan

ANAUT, Dabid: *Torrealдай: izena eta izana, euskaigintzari emana*

ARRULA, Garazi: *Zerrendero batekin solasean*

MURUA URIA, Imanol: *Torrealдай eta prentsa*

OTAEGLI, Lourdes: *Torrealдай, euskal liburuaren zentsuraren aztertzaile*

JUANENA, Agurtzane: *Biblioteca Nazionalaren ametsa XXI. mendean*

Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 241: Euskal kultura 2020

AGIRRE, Katixa: *Hekatonbearen urtea: kultura, automaitasuna eta polimaitasuna*

BARANDIARAN, Alberto: *Sortuz ta sortuz bizitzen gera*

OSA, Olatz: *Ezpatat dantzatik soka dantzara*

LANDABIDEA, Xabier: *2020ko Durangoko Azoka Immateriala*

FANO, Dani; EIBAR, Eider; JOSEVISKY; UNANUA, Nerea: *Kulturaren urtea marrazkitan*

UGARTE, Itziar: *Pandemiaren urtea kulturgintzan*. Edurne Azkarate, Igor Elortza,

Xabier Gantzarain, Katti Pochelu eta Castillo Suarez

EIZAGIRRE, Xabier: *Euskal liburugintza 2018*

JAKIN 2021

Jakin 242

RUBIO, Miren: *Pilare Baraiazarrari elkarriketa*

GURRUTXAGA, Alexander: *Ihesa zilegi balitz: Xabier Lete eta trantsizioko poetikak*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 243: Gazteak eta politika

LARRINAGA, Ane; IRAOLA, Iker; ODRIOZOLA, Onintza; AMURRIO, Mila;
ZABALO, Julen; EPELDE, Maddalen: *Oraingo gazteak axolagabe? Gazteen eta politikaren arteko harremanak aztergai*

OLARIAGA, Andoni: *Garai baten mugetan*

BARANDIARAN, Ander: *Konpromisoa krisi garaiotan. Aitana Agirre, Iñigo Etxezarreta, Izar Hernando, Unai Martinez eta Naiara Rodriguez*

Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 244

LEKUONA, Ane: *Arteak euskal identitate bati forma eman zionean. Kultur politikak, artearen historia eta generoa*

ARRUTI, Nerea: *Traumaren ondoren: gehiegizko oroimena eta ahanzturak euskal literaturan*

ARANGUREN, Gaizka: *Zoparen Teoria Orokorra. Identitatearen atarietan*

GOROSTIDI, Juan: *Lekeitio Lemoizen da*

Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 245-246: Krisi ekosoziala: desazkundera irtenbide?

PASCUAL, Unai: *Klima eta biodibertsitatearen krisi bikoitzari aurre egiteko gobernantza eraldatzailearen aldeko aldarria*

BEGIRISTAIN, Mirene: *Ekofeminismoaren txirikordak*

ELOSEGI, Arturo: *Euskal Herriko ingurune naturalen etorkizuna*

ZABALETA, Ane; ANTIGUEDAD, Iñaki: *Ur berdearen garrantzia klima-krisiaren aurrean*

AUSEJO, Belen: *Uraren kudeaketa Nafarroan: gatazkak eta proposamenak*

FLORES, Lorea: *Abeltzaintza industrialaren ajeak. Nafarroako kasua*

ENDARA, Sabine; HARLUXET, Xabier: *Bizi!, larrialdi klimatikoaren, metamorfosi ekologikoaren eta justizia sozialaren haritik borrokatzen*

AZKARATE, Aitor: *Esne-behi gutxiagorekin bizi daiteke?*

GALLEGO, Sergio; JERÓNIMO, Cristina: *Non daude gure basoak?*

GOIKOETXEA, Ibon: *Usurbil Atez Ate. Hondakinen desazkunderaren bidetik*

MURGOITIO, Eider: *Energia berriztagarriak. Euskal Herrian badugu alternatiba propioa*

Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 247: Euskal kultura 2021

MANTEROLA, Ismael: *COVID edo postCOVIDaren urtea?*

URIEN, Ainhoa: *Euskal kultura segurua da?*

BARANDIARAN, Alberto; TXAKUR GORRIA; FANO, Dani; ARBELBIDE, Nora;

GURRUTXAGA, Amagoia; AGIRREAZKUENAGA, Irati; GARTZIANDIA,

Maitane; ZUMALABE, Maddi; BASAGUREN, Jon; EZKERRA, Estibalitz; AXPI;

ARANDIA, Izaskun; JOSEVISKY; AGIRRE, Manex; CABALLERO, Maite;

LARRAIOZ, Mikel; MIMENZA, Libe: *Euskal kultura 2021*

EIZAGIRRE, Xabier: *Euskal liburugintza 2019*

JAKIN 2022

Jakin 248-249: *Filosofiatik ezabatutako emakumeak*

YARZA, Itsaslore: *Hitzaurrea*
ESKISABEL, Idurre: *Euskal pentsamendua eta feminismoa*
ETXEBERRIA, Arantza: *Hilekoa eta subjektu filosofiko gorpuztua*
ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Pentsamendu feminista filosofiarako sarrera batean*
LUJANBIO, Lore: *Zaintza eta gobernamentalitate neoliberala*
ZUBIA, Irati: *Injustizia epistemikoak: Agoran sartzeko zailtasun bat gehiago*
ARRAIZA, Maite: *Zaintzaren filosofia*
AIZPURU, Alaitz: *Simone de Beauvoir, bizitzeko pentsamendu bat*
BARRIOS, Yolanda: *Hannah Arendt, pentsatzeko ausardia*
RETOLAZA, Iratxe: *Virginia Woolf (1882-1941), pentsamenduaren uberak*
GAGO, Naiara; NEREKAN, Maitane: *Tractatus kritiko-feminista*
BEAUVOIR, Simone de: *Bigarren sexua: 'Ondorioa'*
ARENDR, Hannah: *Eichmann Jerusalem: 'Post scriptum'*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 250

GURRUTXAGA, Amagoia: *Amaia Lasa Alegriari elkarrizketa*
EIZMENDI, Maider: *Emakume zientzialariak komunikabideetan*
EIZAGIRRE, Xabier: *Euskal liburugintza 2020*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 251: *EH 2040: demografia, zaintza eta hizkuntza*

ESNAOLA, Imanol: *Euskal demografia lurraldean: zer dio prospektibak?*
GOIKOETXEA, Jule: *Espazioaren produkzioa: hiria, familia, utopia*
ARRIETA, Felix: *Gizarte zerbitzu sistematik zaintza sistemara*
GOIKOETXEA, Garikoitz: *Euskara: ezagutza ez da nahikoa izango*
OLAIZOLA, Itaso: *Demografia, lurraldea eta zaintza hizkuntza-ekologiatik*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 252: *Euskal Unibertsitatea: auziak eta erronkak*

SARASUA, Ane; SARASOLA, Kepa: *Karlos Santamariaren bidetik proposamena*
GOIRIZELAIA, Iñaki: *Euskal Unibertsitatea ala Euskal Herriko Metabertsitatea?*
JIMENO, Roldan: *Euskal Unibertsitateaz hausnarketa bat Nafarroako periferiatik*
BIDEGAIN, Eneko: *Euskal Unibertsitatearen zutabeak*
GOIRIGOLZARRI, Jone; LANDABIDEA, Xabier: *EU 2022: loreak arrakaletan*
ESTEBAN, Mari Luz: *Unibertsitatea, feminismoa eta 'belar txarren' erdua*
LARRINAGA, Ane: *Unibertsitateen doikuntza neoliberalismoaren garaian*
TXAPARTEGI, Ekai: *Errealitate krisiei aurre egiteko unibertsitatea*
IZTUETA, Anjeles: *Euskal Unibertsitate Sistema: legea, erronkak eta etorkizuna*
ARTETXE, Karmele: *Euskal Unibertsitatea behe-lainotan*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 253: *Euskal kultura 2022*

IBAÑEZ, Aritz: *Jalgi hadi dantzara! Jalgi hadi plazara!*
ALVAREZ URIA, Amaia: *'Euskal bolloen' intersekzioetan barrena*
UGARTE, Itziar; TXAKUR GORRIA; GALLEGU, Patxi; AKIZU, Maialen; FANO, Dani; IMAZ, Andoni; AXPI; ZABALA, Ane; UNANUA, Nerea; ARANGUREN, Amets; ELORRIETA, Irati; JOSEVISKY; ONANDIA, Mikel; ADUR; ZUMALABE, Maddi; MIMENZA, Libe: *Euskal kultura 2022*
EIZAGIRRE, Xabier: *Euskal liburugintza 2021*

Sailaren arduraduna: Joxe Azurmendi

- 1 URIBARRI, Ibon: *Immanuel Kant: bizitza eta filosofia*
- 2 GALPARSORO, Jose Ignacio: *Betiereko itzulera Nietzschearen pentsaeran*
- 3 KANT / HEGEL: *Kant eta Hegel: gerra eta bakeaz gogoetak*
- 4 DUCHET / MARQUARD: *Gizakiaren filosofia ilustratutik antropologia filosofikora*
- 5 LEIBNIZ, Gottfried Wilhelm: *Metafisikako diskurtsoa*
- 6 ADORNO, Theodor W.: *Musikaren filosofia*
- 7 MARX / ENGELS: *Alderdi Komunistaren Manifestua*
- 8 FOUCAULT, Michel: *Gizakiaren heriotzaz*
- 9 FREUD, Sigmund: *Ilusio baten etorkizuna*
- 10 LEYTE, Arturo: *Heidegger: Hermeneutika eta Funtsezko Ontologia*
- 11 PLATON: *Sokratesen Defentsa*
- 12 BACON, Roger: *Unibertsitatea eta Zientzia Erdi Aroan*
- 13 PORTALIS, J.E.M.: *Frantziako Kode Zibilarren lehen proiektua: Atariko hitzaldia*
- 14 BENGOTXEA, Juan Bautista: *Filosofia eta Zientzia. Vienako Zirkulua*
- 15 WITTGENSTEIN, Ludwig: *Etika, zientzia eta antropologia*
- 16 PLATON: *Ion*
- 17 URIBARRI, Ibon: *Kanten ezagutzaren teoria*
- 18 GARATE, Jenaro: *Gizakia maitagogoia da (Nire aitorpen filosofikoa)*
- 19 RILKE, Rainer Maria: *Poeta gazte bati idatziak*
- 20 BENTHAM, Jeremy: *Panoptikoa*
- 21 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Zertaz dihardu filosofiak?*
- 22 PLATON: *Sinposioa*
- 23 DOMAT, Jean: *Legeen Tratatua*
- 24 BENGOTXEA, Juan Bautista / EIZAGIRRE, Xabier: *Dogmak zientzian?*
- 25 ARREGI, Xabier: *Descartes*
- 26 NIETZSCHE / FREUD: *Nietzsche eta Freud, filosofian eragile*
- 27 ALVAREZ SANTA CRISTINA, Jose Luis: *Etikaren oinarrien bila*
- 28 GROTIUS, Hugo: *De iure belli ac pacis. Gerra eta bakearen zuzenbidea. Testuak*
- 29 AIESTARAN, Ignazio (arg.): *Kant eta modernitatearen iraultza*
- 30 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *W. von Humboldt: hezkuntza eta hizkuntza*
- 31 ITURRIOTZ, Ander: *Giza abere heroikoa kultura homerikoan*
- 32 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *David Hume: ekintzak, sentimenduak, balioak*
- 33 ZAPIAIN, Markos: *la guztiaren funtsaz. Kojève globalizatzaile*
- 34 ITURRIOTZ, Ander: *Lehen filosofia Heladen*
- 35 PUFENDORF, Samuel: *De officio hominis et civis juxta legem naturalem libri duo*
- 36 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Paidea eta hizkuntza: euskal hezkuntza*
- 37 AGUIRRE, Javier: *Aristotelesen Metafisikari sarrera*
- 38 INSAUSTI, Xabier / ARRIETA, Idoia: *Hic Hegel, hic saltus*
- 39 FOUCAULT / BENSÂID: *Historiaz mintzo*
- 40 JIMENEZ, Jon / OLARIAGA, Andoni: *Modernitatearen auziaz*
- 41 SUAREZ, Francisco, S. J.: *Tractatus De legibus ac Deo legislatore*
- 42 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Hizkuntzaren zientziak hizkuntzaren pedagogian*
- 43 AZURMENDI, Joxe (arg.): *Filosofia eta poesia*
- 44 INSAUSTI, Xabier / OLIDEN, Irati: *Konpromisorik gabeko filosofia. Alain Badiou*
- 45 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Arimak eta balioak*
- 46 ETXARTE, Hedoi: *Wagner auziaz. Wagermée, Clément, Žižek, Badiou*
- 47 AZURMENDI, Joxe: *Gizabere kooperatiboaz*
- 48 SARTRE, Jean-Paul: *Begirada*
- 49 URDANGARIN IRASTORZA, Mikel: *Simone de Beauvoir, norbanakoa eta burujabetza*
- 50 GARCÉS, Marina: *Filosofia amaitu gabea*

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- ☐ Euskal Herria **60 €**
- ☐ Europa **75 €**
- ☐ Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- ☐ Paperean bakarrik
- ☐ Digitalean bakarrik
- ☐ Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- ☐ Euskal Herria **14 €**
- ☐ Europa **17,50 €**
- ☐ Mundua **20 €**

DIGITALA

- ☐ **14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- ☐ Jakinkide bazara **Doan**
- ☐ Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara
- Jakinkide ez bazara

- ☐ **10 €**
- ☐ **12 €**

DIGITALA

- ☐ **4 €**
- ☐ **7 €**



Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia | | | | | | | | | | | | | | | | | |

Kontuaren jabea



Jakin *eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus





Jakin •eus
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

